HIZKUNTZAREN ALDAGARRITASUNA: EUSKARAREN ALDAERAK (irakasleen prestakuntzarako apailatua)

EGILEA

Maite Mendiburu Elizalde
UPV/EHUko Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
Gasteizko Irakasle Eskola

Diseinua eta maketa
Garbiñe Goikoetxea

2009ko iraila

AURKEZPENA

Ikasmaterial hau probetxuz erabiltzeko argibideak

Ikasmaterial hau EHUko Unibertsitate Irakasle Eskoletan osatu da, euskal adarretan ematen den ***Euskara eta bere Didaktika*** / enborrezko ikasgaia lantzean. Bi atal ditu ikasgaiak, baina aurkezten dugun gaiak lehen atala baizik ez du osatzen.

GAIAREN INTERESA

Hasierako atal horretan, **hizkuntzaren aldagarritasunaren** gaia jorratzen da, **eta euskararen aldaerei buruzko ezagupena eta gogoeta** bultzatzen da. Abiapuntu hori **ezinbestekotzat jotzen dugu euskaraz irakatsi behar duten irakasle guztien prestakuntzan,** behar dituzten hizkuntza eta hizkuntzaren didaktika-oinarri garrantzitsuak hartzen baititu kontuan. Hori dela eta, ikasmaterial hau Irakasle Eskoletako ikasleentzat ez ezik, **lagungarri izan behar litzaioke Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eskolak euskaraz eman behar dituen irakasle orori.**

LORTU NAHI DIREN GAITASUNAK. ARRAZOIAK

1. Askotariko hizkuntza-erabilpenak aztertu, alderatu, eta ebaluatu, komunikazio-gaitasunaren irizpide bereizleak aplikatuz, hizkuntzaren didaktikaren oinarri egokia hartzeko. Irakaskuntzan duen garrantziagatik, hizkuntzaren gauzatze heterogeneoez jabetzea, eta horren aurrean jarrera zabala erakustea.

2. Oro har hizkuntzaren eta bereziki euskararen aldaera mota guztiak definitu eta sailkatu, ikastetxeko harreman arruntetan eta irakaskuntza-jardueran komunikazio aberatsagoa bultzatzeko eta egokitasun-irizpidea zorrozki aplikatzeko.

3. Euskararen aldaera geografikoen eta kode batuaren garapen historikoa aztertu, garaiko hiztunen jarrerekin lotu, gaurko guraso, irakasle zein ikasleek hizkuntzari buruz izan ditzaketen aurreiritzi makurrak eta jarrera desegokiak identifikatzeko eta moldarazteko. Irakasle Eskolan bertan egiten diren euskararen erabilerak direla eta, eskolakideen artean sor daitezkeen gaitzeste eta interpretazio ezkorrak galarazi, eta elkarrenganako onespenerantz bideratu.

4. Batuaren gaurko corpusaren alderdi osatuak eta gabeziak hauteman; egiten diren kritika eta hobekuntza-proposamen zenbaiti buruzko gogoeta egin. Hori guztia, irakaskuntzak behar duen aldaera estandar idatzia onbidean jartzeko eta bultzatzeko.

GAIAREN EGITURA ETA METODOLOGIA

Zortzi gaiez osatua da materiala. Gai guztiak eskema berberari jarraituz landuko dira, eta horretarako lau urrats markatuko dira beti:

- Gaiari buruz dakigunetik abiatu
- Auzia eztabaidaren bitartez argitu
- Ikasi beharrekoak ahoz esplikatu
- Gaiari lotutako irakurketak, ariketak edo lan osagarriak proposatu

Lehen bi urratsek gaiari ondo heltzeko balio dute: ahoz jorratuko dira galderak, talde txikitan edo handian, ikasle artean, eta azkenik, irakaslearekin. Hirugarren urratsean irakasleak emango du eskola. Laugarren urratsak ez du ariketa kopuru eta luzera bera izango gai guztietan, baina denetan ikasgaiaren parte funtsezkoa da oso, ikasitakoa aplikatzea eta sakontzea ahalbidetuko baitu. Lana bakarka egin beharko da batzuetan, taldeka beste batzuetan, baina ondorioak betiere irakaslearekin bildu edo zuzenduko dira bukaeran.

Ageri denez, material hau ez da eskolak ordezkatzeko osatu; lagungarri izango zaio eskoletara etortzen ez denari, bistan da, baina **eskolarako materiala da**.

Ikasgai hau behar bezala lantzeko, ikasle guztiek **ezinbestekoa dute Euskal Herriko mapa osatu bat eskuratzea**. Hain zuzen ere, gaiak eskatzen duen neurrian eta bakoitzaren premiaren arabera, mapa hori erabili beharko da, dela kontsultatzeko, dela ikasteko.

Bestalde, ezinbesteko irakurgaiak dira bibliografian agertzen diren Ibon Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak* eta Laura Urubururen artikulua.

IRAKASGAIEKIKO LOTURAK

Euskararen aldaera guztiak azalpen berean lotzea da material honen ekarpen nagusietako bat. Eskaintzen dena oinarrizkoa dela esatean, berriz, adierazi nahi da ezagupen orokor hori behar-beharrezkoa jotzen dugula gaurko euskal irakasleentzat, baina bestetik, ez dela aski, gai horiek sakondu behar direla. Adibidez, euskalkien eta batuaren tokiaz sor daitezkeen auziak aurkeztu dira, soluzio-bideak ere iradoki dira baina ez da nahikoa. Gauza berbera erregistroekin. Hortaz, beste atal edo ikasgai batzuetan landu eta sakonduko dira gaiok.

Aurkibidea

1. GAIA

Komunikazio-gaitasuna

2. GAIA

Hiztunon gaitasun soziolinguistikoa eta hizkuntzaren aldaerak

3. GAIA

Euskararen aldaera geografikoak (I): euskalkiak, haien jatorria eta sailkapenak

4. GAIA

Euskararen aldaera geografikoak (II): euskalkien garapena eta hiztunen jarrerak

5. GAIA

Euskararen aldaera estandarra (I): euskara batuaren zergatikoak, zertarakoak, nolakoa

6. GAIA

Euskararen aldaera estandarra (II): euskara batuaren ibilbidea, batua eta euskalkiak irakaskuntzan

7. GAIA

Gizarte-aldaerak

8. GAIA

Kontestu-aldaerak edo erregistroak

KOMUNIKAZIO-GAITASUNA 1

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

Sei egoera aurkeztuko ditugu, horietan gerta litezkeen hizkuntza-ekoizpenekin batera. Besterik gabe, ikus dezagun zer burutapen ekartzen digun horietako bakoitzak:

1. Gasteizko Irakasle Eskolara sartu berri diren bi ikasle donostiarren arteko elkarrizketa:

   - *Zer, tokia aurkitu dezu azkenean?*

   - *Ez, zeren eta hain garestia zen erresidentzia ezen nere gurasoek onartu baitute etxean geldi nadin. Hots, egunero joan-etorria egin dezadan.*

2. Denda batean, zain dagoen mutil batek bere aurrean eskatzen ari den emakume zahar bati:

   Ez hadi hainbeste luzatu, beste batzuek ere hor gara eta!

3. Haur Hezkuntzako lehen mailan hasi berria den ikasle etsiren batek ondokoari:

   Ba, niri ya, ex guxtatxen axko Magisterio!

4. *Berria* egunkarian argitaratutako kirol-artikulu batean:

   Jokalari amerikarrak kristoren baloikada hartu zuen seigarren minutuan eta guztiz izorratuta ibili zen partidu guztian.

5. Nekazaritzako ministro euskaldunaren erantzuna, ETBn:

   Pues, klaro, bajatu beharko dute prezioak, porque bestela ezin dugu Europan konpetitu.

6. Lapurdiko edo Nafarroa Behereko ostatu bateko mahaian, zerbitzariari ura eskatzeko:

   Ura ekarriko duzu?

Geure iritzia aldera dezagun ondoko ikaskidearenarekin eta ideiak hobeki funtsatzeko azpimarra ditzagun ekoizpen horien ezaugarri deigarrienak.

ARGI DEZAGUN AUZIA

Eginkizun honen ondotik, zenbait ondorio aterako zenituzten, noski. Dudarik gabe, lehen kasuko ikaslearen erantzuna tokiz kanpo iruditu zaizue, hizkuntza-erabilera hori ez baita ohikoa egoera horretan ari den ikasle baten ahotan. Pedantearen moldea atzemango genioke gehienok.

Bigarren kasuan, berriz, harritzekoa da mutil gazte bat zaharragoa den andreari hika aritzea. Hori ez da gure gizartean onargarria. Arau-hauste horrek pentsarazten digu mutiko hori errespetu gutxikoa dela eta haren portaera gaitzestekoa dela.

Hirugarren kasuan, Irakasle Eskolako ikasleak beharbada badu motiborik etsirik egoteko baina hizketan entzuten dionak ere beste hainbeste arrazoi izan dezake penatzeko: euskaraz mintzatzeko ahalegina egin arren, ikasle horrek ez baitaki euskaraz ongi. Gaztelaniaren aldi bereko itzulpen kaxkarra dirudi haren ekoizpenak, besteak beste, euskal fonetika desitxuratu eta ezezko aditz-forma gaizki osatu baitu.

*Berria*ko kirol-artikuluaren pasartea arrunta eta zuzena irudituko zaio bati baino gehiagori, baina izango da, bestalde, *kristoren* eta *izorratuta* hitzak toki horretan agertzeari egoki irizten ez dionik ere. Hots, gauza bat da lagunen artean mintzatzea eta beste bat mezu bera komunikabide idatzi garrantzitsu batean adieraztea.

Eta zer esan molde horretan hitz egiten duen Nekazaritzako ministroari buruz? Demagun eremu batzuetan *pues*, *klaro*, *bajatu* eta *konpetitu* hitzak erabiltzen dituztela hango euskaldun petoek. Gure ministroak herriko ohiturari jarraitzen diola argudia lezake norbaitek. Eta erantzun behar litzaioke, duda izpirik gabe, ezin dela hizkera bera izan herritarren artean erabiltzen dena eta ministro batek bere karguan diharduela erabili behar duena. Larriagoa da, bestalde, aditz-komunztadura arloan (*dute*) eta sintaxi mailan (*porque*) ministro horrek erakusten duen ezgaitasun gramatikala. Horrek ez du aitzakiarik.

Arrunt baliagarria eta zuzena irudituko zaio hegoaldeko hiztun askori ostatu batean ura eskatzeko transkribatu dugun bosgarren esaldia. Ordea, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko euskaldun gehienek *plazer baduzu* edo *fagorez* eskatuko lukete ura edo beste edozer; zer esanik ez, denda batean zerbait erosteko eskatzen dutenean. Izan ere, Iparraldeko euskaldunek bere egin dituzte Frantziako *politesse* edo bizilegearen arau inplizituak. Gaztelaniaz, ordea, formula horiek ez dira horren beharrezkoak; Hegoaldeko biztanle euskaldunentzat ere ez. Hortaz, euskaldun orori zuzena irudituko zaio esaldia; askori, berriz, ez zaio egokia irudituko ezagutzen dituen gizarte-arauen arabera.

ONDORIOAK: Erakutsi dugunez, guztiok dugu euskaraz jarduteko gaitasuna, eta horri esker gara gai adibideotako hizkuntza-ekoizpen horiek epaitzeko. Kasu batzuetan, euskararen gramatika gaizki erabili dela ikusi dugu. Beste batzuetan, ordea, gramatika zuzen erabili arren, hiztunak erabilera txarra egin duela erabaki dugu, desegokia. Akatsa komunikazio arloan kokatu dugu. Eta hori baieztatzeko, geure komunikazio-gaitasuna erabili dugu, geure gaitasun gramatikalaren gainetik; izan ere, euskararen sistema zuzen erabiltzeaz batera, gai gara egoki ere komunikatzeko.

Gogoeta horretan oinarrituz, ikasgai honetan bereizketa garrantzitsu bat egingo dugu hain zuzen, gaitasun linguistikoaren eta komunikazio-gaitasunaren artean dagoen aldea eta harremana

azalduko baitugu. Eginkizun horretan, ezinbestekoa izango zaigu Dell Hymes adituaren izena aipatzea eta haren ekarria, labur bada ere, azaltzea.

IKAS DEZAGUN

On Comunicative Competence izeneko lanean (1967), Dell Hymesek kritika egin zion Chomskyk *competence / performance* kontzeptuen artean proposatzen zuen banaketari, haren ustez *performance*aren garrantzia guztiz murritza baitzen Chomskyren teorian. Izan ere, hizkuntzalaritzan berritzailea zen teoria horretan, teoria sortzailean, hitz-jarduera gramatikak dioenaren proiekzio soiltzat hartzen zen. Chomskyrentzat, hiztunaren gaitasuna (*competence*) gaitasun linguistikoa zen, (hizkuntzaren sistemari dagokiona, beraz), eta erabilera (*performance*), horren ondorioa.

Antropologoa da Dell Hymes, eta bere ikerketa eta bizipenek bultzatu zuten hiztunon hizketari garrantzi handiagoa ematera, hainbesteraino non kontrako ibilbidea proposatu baitzuen hizkuntza aztertzeko. Sinpleago azaltzeko, hiztunok egiten dugun hizkuntza-erabileratik abiatu behar genuke hizkuntzaren azterketa osoagora heltzeko, hiztunon gaitasuna gaitasun linguistikoa baino harago baitoa: *komunikatzeko gaitasuna* kontuan hartu beharra zegoen Dell Hymesentzat. Hari zor diogu kontzeptua, eta pasarte honetan laburbildurik dago bultzatu zuen ikuspuntua:

> *...hizketa aztertu beharko da (...) eta horren helburua* ***komunikazio-gaitasuna*** *argitzea izango da, horri esker baitaki komunitate bateko kideak noiz hitz egin eta noiz isildu, zein kode erabili behar duen, noiz, non eta norekin.*

Denborarekin osatuz joan da kontzeptu horren esanahia, eta guztiz interesgarria bihurtu da, aplikagarritasunari dagokionez, Canale eta Swain-ek egindako hedapena. Horien arabera, lau gaitasun motak osatzen dute hiztunaren komunikazio-gaitasuna:

- gaitasun linguistikoa
- gaitasun soziolinguistikoa
- gaitasun diskurtsiboa
- gaitasun estrategikoa

Gaitasun linguistiko txarra du gramatika-legeak hausten dituen hiztunak; gaitasun linguistiko ona, berriz, gramatika zuzen darabilen hiztunak. Euskal hiztuna bada, euskararen fonetikaren arabera hitz egiten du, ortografia-arauak errespetatzen ditu idaztean, euskararen hitzak erabiltzen, morfologia- eta sintaxi-arauak betetzen ditu. Zuzentasuna da arlo honetan baliatzen den irizpidea. Komunikazio-gaitasunaren oinarria da gaitasun linguistikoa. Ezin komunikatzaile ona izan gramatika gaizki darabilena.

Gaitasun soziolinguistiko ona duena gizartean egiten diren erabilera era askotakoetan trebea da. Testuinguruaren arabera jokatzen du, era batera edo bestera adieraziz behar duena, edo interpretatuz esaten zaiona, solaskidearen izaera, adina, eta estatus soziala kontuan hartzen dituela. Forma arruntez gain, forma alternatiboak erabil ditzake. Gizarte mota batean dauden arauak, esplizituak

zein inplizituak, errespetatzen ditu, gizarte horren balioak ezagutzen baititu, eta bere hizkuntza-jarduna moldatzen du gizarte-ohituretara. Gizartean bertan ikasi ohi da hori. Egokitasuna da arlo honetan baliatzen den irizpidea. Komunikazio-gaitasunaren osagai garrantzitsua da gaitasun soziolinguistikoa.

Gaitasun diskurtsiboari esker, hiztunak badaki bere mezua eraikitzen, egituratzen, mezuaren parteak lotzen. Gure esaldiak ez dira unitate independenteak, komunikazio-helburu batekin jarduten dugu, eta helburu hori hobekien lortuko duen hariari jarraitzen dio gure hizkuntza-jarduerak. Ez da berdin hitz egiten edo idazten zerbait azaltzeko (azalpen-testua) ala argudiatzeko (argudio-testua). Adibidez, gai bakarraren inguruan idazten ari garela, azalpen bat egitean bigarren mailakotzat daukagun informazio bera argudiatzeko bereziki aipagarria izango zaigu. Eta azalpenak eta argudiaketak informazio bertsua baliaturik ere, sarrera desberdinak eskatzen dituzte bi testuok, ideiak besterik gabe ordenatu ala zerbaiten alde egiteko gisan kokatuko ditugu; halaber, testuaren bi ondorioek norabide desberdina izango dute. Koherentziaz ari gara hor. Esan beharrik ez dago gramatika-lokailu diferenteak erabiliko ditugula hartutako norabidea, azaltzekoa edo esandakoa indartzekoa, markatzeko: kohesioa litzateke hori. Koherentzia eta kohesioa dira diskurtsoa ebaluatzeko baliatzen ditugun irizpideak. Gaitasun diskurtsiboa komunikazio-gaitasunaren osagai garrantzitsua da dudarik gabe.

Gaitasun estrategikoa da, azkenik, hiztunak hobeki komunikatzeko duen beste baliabide bat. Zerbait adierazi nahi dugunean eta aurrean dagoenak ulertzen ez duenean, adibidez, beste hitz batzuen bidez saiatzen gara gauza bera azaltzen. Izen zehatz baten faltan gaudela, ezagutzen ez dugulako edo ahantzia dugulako, izen orokorrago bat edo perifrasi baten bitartez ulertaraziko dugu horren esanahia; solaskideari laguntza eskatuko diogu, beste batzuetan. Adierazi nahi duguna segurtatzeko darabiltzagu estrategia horiek gure ama-hizkuntzan. Maizago erabiltzen ditugu geurea ez den hizkuntza batean jarduten dugunean: adibidez, gure lehen hizkuntzaren ereduetatik abiatuz bigarren hizkuntza “arrozten” dugu askotan, hitzak asmatuz edo *code-switching* izeneko joskera-aldaketa eginez. Komunikazioa mantentzeko erabiltzen ditugun trikimailuak dira estrategia horiek, bigarren hizkuntza behar bezala ez dakigulako. Zenbat eta gaitasun linguistikoa urriagoa izan, orduan eta beharrezkoagoa izango du hiztunak bere gaitasun estrategikoa. Betiere gure gaitasun linguistikoak ematen ez duen neurria osatzeko edo konpontzeko erabiltzen ditugu estrategiak.

Gaur egun, Dell Hymesen edo Canale eta Swainen ekarriek onarpen zabala dute irakaskuntzan, eta esan daiteke komunikazio-gaitasuna hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen helburu bihurtu dela.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

1. Artikulua irakurri ondoren, laburtu ezazu Andoni Egañaren tesia.

EZIN ESANA

Saltsa askotan sartzeko suertea dugunok gauza asko ikusteko zoria izaten dugu. Bertsozale Elkartean zoro kuadrila bat bilerak egiten hasi ginen bertsogintzatik abiatu eta neska-mutikoen ahozko, eta bidenabar idatzizko gaitasunak nondik nora hobetu genitzakeen ikertzeko. Bide luze baten buruan zertxobait egitera ere iritsi gara. Finkatu genuen abiapuntua. Helburua ere kokatu genuen. Zirriborratu genuen egitasmo bat. Ari gara aho-fitxa deitu ditugunak osatzen. Usteak praktikan jartzen hasteko puntuan gaude.

Gaitzaren diagnosian gehienok gatoz gainera bat: hiztunek oro har, eta denetariko ikasleek zehazkiago, ahoz, adierazi nahi duten huraxe modu eraginkorrean esateko zailtasun handiak dituzte. AEK-ko ikasleen, IRALEkoen irakaskuntza arautukoen... arazoa berbera da azken batean.

Guk, helduen hizkuntza gaitasun prozesuan oraingoz ez dugu atzaparrik sartu. Baina gaztetxoen irakaskuntza arautuaren barne gure esperientzia txikiak egiten hasi gara. Eta eskola eta ikastola batzuetan metodo esperimental bat ere jarri dugu abian. Horretarako abiapuntu, 14-15 urtetako ikasleei, propio prestaturiko azterketa moduko batzuk ipini genizkien, eta horietatik atera ahal izan ditugu ondorio kezkagarri zenbait.

Ahoz zein idatziz, gure neska-mutilek apenas dakiten adin horretan diskurtsoa egituratzen. Inork ez du, komunikaziorako estrategia ñimiñoenik ere, esaterako, testua partikularretik orokorrera atontzerakoan, edo alderantziz egitea erabakitzerakoan. Erregistro bat eta bakarra dute, eta bakar horretan nahiko lan. Lexikoz txiro dabiltza gehienak. Konparaketa esanguratsu bakar bat ez dugu topatu. Eta baldintzak eta potentzialak, ezkutatzera doazen formak dira. Gaitzerdi ordezko zuzenik ezean, behinik behin eraginkor eta egokiak liratekeenak asmatuko balituzte! Hain txiki ez diren txikikeriei dagokienez, ehuneko hogeita hamarretik gora dira, batean ez bada bestean “ni naiz” tarteko “h” eta guzti idazten dutenak.

Ahozkoetan berriz, diskurtso bat asmatu eta esan behar dutelarik, labur geratzen dira argudioetan. Mendez mende eta kultura guztietan hain eraginkor izan den hitzontzi tranposoaren estrategia ere, esan ahala pentsatu edo pentsatu gabe esan, ez dute menperatzen. Ahots tonua beti bera eta beti apala hautatzen dute. Kontaketan ez dute estilo zuzen eta zeharkakorik nahasten... Ez daude, ez luze et ez labur inor bere nahietara hurbil dadin hitz egitera ohituak.

Hamalau-hamabost urtetako neska-mutil hauek, ziur nago, oso ongi dakite zein den Silvia, zein Ismael eta zein Mari Jose[1]. Eta bakoitzaren balentriak banan bana aletuko dituzte. Badakite Rivaldo, Del Piero edo Zidaneren[2] azken jokaldia zer-nola burutu zen. Baina zailtasun handiak dituzte gose direla adierazteko, “gosea daukat” eta “kristoren gosea daukat” baitira dauzkaten arma bakarrak.

---

[1] Artikulua idatzi zen garaian, Espainiako Telecinco telebista-katean ematen zen *Gran Hermano reality*an parte hartzen zuten hiru leihakideren izenak dituzue horiek.

[2] Futbolari atzerritar batzuen izenak.

Askotan esan dugu. Gizarte mota jakin batek ekarri gaitu honaino. Maisu-maestrei, lehen eginez gain, lan handia geratzen zaie. Eta gurasooi ere bai. Integralak edo ingelesa edozein gurasok ez baitezake irakats. Baina ahozkotasuna landu dezaten baldintza hobeak jarri bai, guraso euskaldunok bederen. Eta dena izan ez dadin ilun, zertzelada bat, esanguratsua: hegoaldeko neska-mutikoez ari nintzaizuen orain arte. Iparraldean hizkuntzak zenbaterainoko galera duen badakigu. Baina gorde den tokietan beste era batera gorde da. Iazko udan, Donibane-Garazi inguruko herrixka bateko udalekuan, haurrak ipuin kontari jartzen zituzten gauero. Hegoaldekoak hor nonbait moldatzen ziren. Iparraldekoak hor nonbaitetik gora. Bazen hamabi-hamahiru urteko Bidarraiko mutiko bat, izu-istorioak edozein helduk baino grazia eta egokitasun handiagoz kontatzen zituena. Hark, oraindik behintzat, ez ditu Bulbasur, Pikatxu eta gainerako Pokemonak[3] ezagutuko. Bedi halaxe luzaroan.

EGAÑA, Andoni: "Ezin esana", *in* Argia aldizkaria, 2000-05-21, 58. or.

2. Erabil ezazu gai honetan ikasitakoa artikulua zehaztasunez ulertzeko. Alegia, (lauetako) zein gaitasun motarekin lotzen dituzu Andoni Egañak bere tesia indartzeko ematen dituen adibideak. Bereizi adibideok komatxo artean eta idatzi bakoitzaren gainean dagokion gaitasun mota.

[3] Telebistako marrazki bizidunetako pertsonaiak.

HIZTUNON GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA ETA HIZKUNTZAREN ALDAERAK

2

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

1. Lagunen artean erabiltzen dugun euskara, idazten duguna bezalakoa da? Kalitate txarragokoa da?

2. Hizkuntza hobea non: Andoni Egañaren bertsoetan, edo idatzi dituen eleberrietan?

3. Bi esamoldeon artean, zein hobetsiko zenuke: *Aspertuta nago!* edo *Nazka-nazka eginda natxegok!*

4. Familia berean, euskara bera erabiltzen al dute aitona-amonek, gurasoek eta seme-alabek?

5. Zer da *euskara* Aiako hiztunarentzat? Barakaldon edo Tuteran euskaldundu den pertsonak zer kontzeptu du gogoan *euskara*-ri buruz hitz egiten duenean? Nolakoa da Mauleko gazte batek euskararen izaeraz duen errepresentazioa, nolakoa Sarako batena, nolakoa Leitzako biztanle batena edo Aramaioko batena?

6. Aurreko galderei erantzun ondoren, euskara nolakoa den deskriba dezakezu? Hau da, hizkuntza honek badu bere baitan zehatz daitekeen aldaera-klase desberdinik? Gainerako hizkuntzetan ere gauza bera ikus daiteke?

ARGI DEZAGUN AUZIA

Lehenbiziko lau galderei erantzutean, ohartu gara hizkuntza berean aritu arren, erabilera desberdinak egiten ditugula eta ezin ditugula erabilera horiek onak ala txarrak irizpidez sailkatu. Aitzitik, modu bakoitzak badu bere tokia, bakoitzak bere izateko arrazoia. Beraz, zer da euskara? *Euskara-non baliatzekoa* edo *euskara-zertarakoa* galdetzea zuzenagoa da?, edo, beharbada, nongo euskara den zehaztea, jatorri geografikoa aipatuz? Desberdintze horiekin aski da? Alegia, euskara aipatzen dugunean, zeri buruz ari gara zehatz?

Garbi dago euskarak ez duela izate bakarra, ezin diogula objektu uniforme gisa begiratu, eta hiztun onaren egitekoa, zuzen aritzeaz gain, egoki aukeratzean datzala: orain honela, gero bestela, egoeraren arabera, adierazi nahi duena moldatuz.

Argi izan behar genuke, bestalde, eta hori da bosgarren galderan bideratu nahi genukeen ideia, hurbileko esperientziak baldintzatzen gaituela. Ez gaitu itsutu behar, ordea. Euskarak ez du presentzia eta indar bera euskal geografian zehar, ez eta izaera bera ere. Hortaz, Aian sortutako gipuzkoarrak, adibidez, gaitasun zabala garatzeko aukera izan du txikitandik. Etxean eta herrian ikasia, baserri

giroari dagokion hizkera izan du abiapuntu, eta ez nolanahikoa: erdialdeko euskalki "osasuntsua"; batua ere eskuratu du eskolan. Barakaldoko euskaldunak edo Tuterakoak, berriz, bide urriagoetatik heldu dio euskarari: euskaraz bizitzeko eta ikasteko, eguneroko pobreagoa du. Bi kasuen artean, alde nabarmena dago, eta Aiakoak du abantaila, noski, baina bietan badago oraindik zer eginik euskara bere osoan eskuratzeko. Kontuan hartu litekeena dela Aiako hiztunak ez ulertzea mendebaleko euskalkiak, adibidez, edo zer esanik ez, Mauleko gaztearen euskara ingelesa bera baino arrotzagoa gerta dakiokeela; litekeena da, gainera, ez prestatua egotea hiri erdaldunetako euskaldun gazteen euskara aintzakotzat hartzeko; eta, beharbada, ez da gauza izango unibertsitate mailako gaietan euskaraz zehatz irakurtzeko. Alta, hori guztia ere euskara da.

Honekin guztiarekin, hizkuntzaren izate anitza azpimarratu nahi dugu, eta aldaera desberdinen balioa agertu, errealitate era askotakoei emandako erantzun baitira; baina, batez ere, horretaz jabetzean? gogo- eta jarrera-zabaltasuna eragin nahi genuke. Euskara ez baita norberak ezagutzen duena soilik; anitzez gehiago da.

Irakasle gisa, euskararen aldaera guztiak zein diren jakin behar dugu, estimatu, bultzatu, ezjakintasun eta aurreiritzi negatiboen kontra. Funtzionaltasunaren alde jokatu behar dugu. Ikasgai honetan, horrenbestez, euskararen deskribapen zabal horren beharra justifikatuko dugu, horrek gaitasun soziolinguistikoaren izaerarekin duen lotura eginez.

IKAS DEZAGUN

Eskolan hizkuntza irakasten da. Eskolaren helburutako bat da ikasleak hizkuntzan gaitzea. Aurreko gaian ikusitakoa aplikatuz, beste era batera aurkez daiteke ideia hori: hizkuntza irakasteko, komunikazio-gaitasuna eta, zehatzago, Canale eta Swainek aipatutako gaitasun horiek oro garatuko dituen irakaskuntza bultzatu behar du eskolak. Euskaraz, ingelesez eta irakasten den hizkuntza ororekin. Metodologia ona itxuratzeko orduan, hortaz, lau galdera hauek egin beharko genituzke: nola garatu ikasleon gaitasun linguistikoa?; nola garatzen da ikasleon gaitasun soziolinguistikoa?; nola, gaitasun diskurtsiboa?; nola, gaitasun estrategikoa? Alegia, zer proposamen, zer erabaki didaktiko hartu behar da, ikasleak horietan oro trebatzeko?

Hizkuntzaren didaktika arloan argitu eta erantzun behar dira galdera horiek. Haatik, ez da zaila ohartzea ikasleen gaitasun linguistikoa izan dela orain gutxi arte hizkuntzen irakaskuntzaren arreta-gune (ia bakarra. Gainerako hizkuntzen irakaskuntzan bezala, hastapenean, euskara irakasteak ere gaitasun linguistikoaren ia garatze huts besterik ez da izan. Gaur, berriz, dakigularik hiztunaren gaitasuna era zabalagoan bultzatu behar dugula, ezinbestekoa zaigu gogoeta sakona eragitea, zer esanik ez, eskola-irakasle baldin bagara.

Ikasgai honetan, Canalek eta Swainek itxuratu zuten bigarren gaitasuna edo gaitasun soziolinguistikoa hartuko dugu abiapuntu. Nolakoa izan daiteke euskaldun baten gaitasun soziolinguistikoa? Horretarako, nolako gizarte-erabilerak egiten ditu euskaldunak euskaraz?

Galdera horiek erantzun beharrekoak dira edozein hizkuntza irakasteko eta eginkizun horretan, hizkuntza garatuek badute nondik abiatu, gizarte-bizitza oso baten esperientzia luze-zabalak argi baitezake haien erantzuna: ingeles hiztunek badute beren hizkuntzaren gizarte-erabileraren zentzua. Normalizatu gabe bizi izan den hizkuntza baten hiztunek, berriz, zer oinarri dute egiten diren erabilerak epaitzeko? Esparru gehienetan sarrerarik izan ez duen hizkuntzak, zer tradizio izan dezake

gizarte-erabilera zabalera iristen denean? Nola mintzatu behar du mediku euskaldunak medikuntzaz, nola yuppie euskaldunak bere bizipenez? Zer baliabide eskaintzen du euskarak formaltasuna markatzeko, edo alderantziz, baztertuen argota gauzatzeko? Zer da egokia, zer desegokia? *Izorratu* hitza erregistro arruntekoa al da? Eta *niezazukeen* aditz-forma? *Zahar* esan dakioke adin batetik aurrerako emakumeari edo *adineko andrea* esatea hobe?; eta *atsoa*, zergatik ez? Hitanoa modu berean ikusten al dute Ondarroako euskaldunak eta Idiazabalgoak? Hizkuntza-jarduna testuinguruaren arabera moldatu nahi dugunean, zein aldaera mota eskaintzen digu euskarak? Euskalkiak deitzen diren mintzatzeko era desberdin horiek zer baliagarritasun dute hiztunentzat? Aberasgarri dira ala oztopo? Zer kontsiderazio, zer estimu du euskara batuak Oñatin? Eta Atharratzen?

Galdera horiek ikusita, irakasleon eginkizunaz galda dezagun: euskara edo euskaraz irakasten duen irakaslea euskararen gizarte-erabilerari buruz aski ikasia al da, aski gogoeta egin al du ikasleon gaitasun soziolinguistikoaren garapena sustatzeko? Ezagutzen al ditu euskararen aldaera desberdinak? Ba al daki zein tradizio eta zein baliotan oinarritzen diren euskararen gizarte-arauak? Zein irizpide erabiliko du ikasleek hizkuntza egoki edo desegoki darabiltela argitzeko?

Tamalez, norberak bere bizi-eremuan garatu ohi du euskararen esperientzia, frankotan modu estuan, gainerako esparru euskaldunak ia ezagutu gabe. Ez dira gutxi eremu erdaldunetan euskaldundu diren euskaldun berriak, gaur egun irakasle direnak. Gehienek harreman urria izan dute tradizioarekin. Eta badira, bestalde, herri euskaldun batean sortu eta hantxe bizi eta hezitakoak, gerora irakasle bihurtu eta askotan harro dabiltzanak, kalitatearen labela dutelakoan. Alta, ikusi behar dugu bakoitzarena baino gehiago dela euskara: oraingoa baina lehenagotik datorkiguna, bidean asko galdutakoa eta etorkizunean egiteko handia duena; gaur egun, den horretan ere, erabilpen-ohitura ugari eta ezberdinak dituena. Horregatik, ezinbestekoa da euskararen eremu zabalean egiten diren erabilera era askotarikoak ezagutzea eta haiei buruzko gogoeta bultzatzea. Bide horrek erakutsiko digu argien zein diren oinarriak ikasleen gaitasun soziolinguistikoa garatzeko.

Hizkuntzaren erabilerak hitz egiteko edo idazteko era diferenteak sorrarazten ditu hiztunengan. Denborarekin edo ohiturarekin, hainbat ezaugarri sendotzen eta sustraitzen dira hizkuntzan, hainbesteraino non erran baitaiteke aldaera batzuk finkatzen direla hizkuntza beraren barnean. Ikasgai honetan, lau aldaera mota nagusi bereiziko ditugu hizkuntzaren deskribapena egin ahal izateko: aldaera geografikoak, aldaera estandarra, gizarte-aldaerak eta kontestu-aldaerak.

- **Aldaera geografikoak:** tokian-tokian garatu ohi da hizkuntza eremu geografiko bera duten hiztun multzo baten ahotan. Dialektoa deitu izan zaio aldaera mota honi, eta euskararen dialektoei, euskalki.

- **Aldaera estandarra: hiztunek,** jatorri geografiko bereko kideekin ez ezik, gizarte-esparru zabalagoetan ere baliatu behar dute hizkuntza. Horretarako eratzen da aldaera estandarra: guztion komunikazio ona ahalbidetuko duen tresna komun gisa. Euskara batua da euskararen aldaera estandarra.

- **Gizarte-aldaerak:** esparru geografiko jakin batean ez ezik, hiztuna gizartean bizi da. Gure ahalmen ekonomikoak, lanbideak edo adinak giza multzo baten partaide bilakatzen gaitu. Kidetasun horretan garatzen dugun aldaerari gizarte-aldaera deitu dakioke. Jasandako bazterketa soziala dela eta, euskarak ez ditu oraindik gizarte-aldaerak biziki finkatu..

- **Kontestu-aldaerak:** eguneroko erabilpenean hiztunak bere hitz egiteko modua moldatzen du, adibidez, aurrean duen solaskidearen arabera, helburuaren edo beste faktore batzuen arabera. Halako moldaketen ondorioz itxuratzen dira kontestu-aldaera deitutako kodeak. **Erregistro** eta **estilo** ere deitzen zaie aldaera hauei.

Lau aldaera nagusitan deskriba daitekeen hizkuntzaren ikuspegiak aberastasuna ekartzen dio hizkuntza horren irakaskuntzari. Bai eta buru-zabaltasuna eta irekitasuna ere. Hizkuntza monolitikoaren kontzepzioaren aurka, hizkuntza-aldagarritasuna justifikatzen du. Aldaeren izaera eta historia ulertu behar luke irakasle orok, eta elkarbizitzarako hartu beharreko jarrerak erraztu: aldaerak indartu eta errespetuz jokatu haien erabileran, egokitasunaren irizpidea jarraiturik. Hori da hiztun guztion gaitasun soziolinguistikoa garatzeko bidetako bat.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

1. Irakur ezazu Michael Stubbsen pasarte hau. Ondoren, jaso ezazu ongi ulertu edo zure arreta bereziki bildu duen ideia bat, idatziz eta euskaraturik.

Jasotako ideien iruzkina egingo da guztion artean.

VARIEDADES DEL LENGUAJE

El lenguaje cambia según las situaciones, por lo que podemos decir que una lengua no es un objeto uniforme. Un principio básico de la sociolingüística es el de que no hay hablantes con un estilo único (Labov, 1970). Es decir, todo el mundo es multidialectal o multiestilista, en el sentido de que adapta su estilo de habla a la situación social en que se encuentra. Está claro, por simple intuición que, por ejemplo, un muchacho no habla del mismo modo con sus profesores, sus padres, su novia o sus compañeros de juego. Imaginemos las desastrosas consecuencias que se producirían si lo hiciera. Su manera de hablar con el profesor también cambiará de acuerdo con el tema: responder preguntas en clase, o bien organizar las actividades deportivas del colegio. La gente adapta su lenguaje de acuerdo con la persona con la que habla y la intención profunda de la conversación. Estas son limitaciones más sociales que puramente lingüísticas.

Como ejemplo más general de lo que entiendo por variedades lingüísticas, tomemos en consideración la siguiente muestra de distintas variedades de estilo del inglés hablado y escrito: ingles de la BBC, *cockney*, el lenguaje legal, el periodístico, el de conferencias y homilías. Estas variedades lingüísticas se diferencian en varios aspectos, principalmente el regional/geográfico, clase social y funcional/contextual. Pero su descripción comprende preguntas del mismo orden: quién dice qué, a quién, cuándo, dónde, por qué y cómo. Por otra parte, más de un aspecto está típicamente implicado en cualquiera de las variedades. Por ejemplo, “inglés de la BBC” implica no sólo que el hablante viene probablemente de una determinada región, el Sur de Inglaterra, y pertenece a una determinada clase social (clase media educada), sino que también implica una situación social relativamente formal (probablemente una conversación cotidiana en una cafetería). Varía de las que yo he catalogado como variedades lingüísticas, y podría pensarse que son más bien situaciones de habla; pero habla y situación no se pueden separar totalmente de esta forma. Por ejemplo, no se trata simplemente de que ciertas situaciones sociales exijan que un profesor “eche a un

alumno un rapapolvo". "Echándole a un alumno un rapapolvo" el profesor puede crear cierta situación social.

Advirtamos la importancia del concepto de variación lingüística cuando se debate el lenguaje de los niños. Un profesor puede tender a pensar en el lenguaje de un niño de una forma estereotipada, como si el niño fuese un hablante con una variedad única. Pero es típico que el profesor vea al niño nada más que en una gama reducida de situaciones sociales en las aulas, con lo que puede olvidar que el niño también controla otras variedades lingüísticas. En otras palabras, muchos profesores no son conscientes de que todas las comunidades lingüísticas emplean gamas de distintas variantes lingüísticas en distintos contextos sociales; sin embargo, este hecho sociolingüístico es elemental. Por el contrario, muchos profesores mantienen la creencia de que sólo hay una lengua "óptima" para todos los propósitos, y que ésta es la única lengua adecuada en la clase. Sin embargo, un momento de pensamiento o de observación convencería a cualquier profesor de que ellos mismos son los primeros en utilizar muchas variantes lingüísticas a lo largo del día, dependiente del propósito o contexto de la comunicación. Esto no es reprensible, ni implica una variabilidad camaleónica, sino que es un rasgo sociolingüístico básico de uso del lenguaje en todo el mundo.

STUBBS, Michael: *Lenguaje y escuela*, Análisis sociolingüístico de la enseñanza, Ed. Cincel S.A., Madrid, 1984, 35-36

2. Ondoko testua ahoz egindako inkesta baten pasartea da: Madalen (**M**) eta Joxe (**J**) izeneko lekuko bik erantzun diote (Donostiako hiztun adinekoak) Inkestagileari (**I**).

Lekuko horien erantzunok hiztunon gaitasun soziolinguistikoaren adibidetzat erabil daitezke: esplika ezazu hori.

HIKA

I: Hika, ea, hika hori. Hori norekin erabiltzen zen eta da orain? Madalen, zuk zerbait esan duzu.

M: Bai, gu, bueno, gaztea ginela gu, fabrikan hasi nintzanean, hamalau urterekin hasi nintzan. Eta han, pues klaro! Lagunarekin pues erdaraz hasi ginen, euskalduna... euskara dena ahaztu zitzaidan niri, e? Baina han tartean, tartean bat edo beste baziren hika esaten zuena eta gu, klaro!, etxera etorri eta gu ere asko ginen, eta senide artean pues "aizan, hi" eta ez dakit zer ... Bueno gure amak hika aditzen zuenean, hari ez zitzaion gustatzen, hark esaten zuen ijito hitza zela hori. Hari ez zitzaion gustatzen hori. Eta gero ia orduan, pues, zuka hasten ginen berriz ere. Gaizki ez dugu bilatzen baina, hika.

J: Ba, "hi" esaten da, ba, zera, konfiantza edo nola esaten da, ezagutze...

M: Ez, baina konfiantza baino okerragoa edo... ez dakit.

I: Zuek, Joxe Mari, nola?

J: Gu beti hola konfiantza edo... bueno, gu etxean da beti "zu", e? Orain lagunei eta "aizak, hi, nora hoa" edo... " Joango al gaituk? Edo, e?

I: Hori zergatik erabiltzen zenuten?

J: Hori, ba nik zer esango dizut. Nik ez dakit ba “hi” hori, “hi” ez baitakit nik ordea zer den. Lehen esan duguna, konfiantza edo... e? Ezagutzen ez den bati behin ere ez diot esan nik “hi”, ezagutzen ez den bati; ezagutzen denari. Baina lehendabizi, behinik behin, baina ez baduzu ezagutzen..., behin ere ez baduzu ikusi edo hitz egin bati, “zu” esaten diozu. Gero konfiantza hartzen ari zaren bezala, “aizak, hi”. Gero “hi” ateratzen da, baina lehenbizi “zu”

ZENBAITEN ARTEAN: *Euskal herriko Hizkuntza Atlasa, Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia,* Euskaltzaindia, Bilbo, 1999, 75. or.

3. Lehen bi ikasgaietan landutakoa oinarritzat hartuz, *EGOKITASUNA*-ren definizio labur eta **zehatza**, adostuko dugu. Hasteko, eman zurea.

Behin betiko definizioa guztion artean erabakiko dugu.

EUSKARAREN ALDAERA GEOGRAFIKOAK: EUSKALKIAK (I)

Euskalkien jatorria eta haien sailkapena

3

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

1. Nolakoa da hizkuntzen berezko bilakaera: aldatu egiten dira eta zatikatu edo haien ezaugarriak finkatu eta segitzen dute aitzina, gero eta batuagoak? Aipa ezazu dakizuna, latinaren gainean ikasi duzuna gogoratuz, adibidez.

2. Euskararen kasuan, nolakoa izan da bilakaera: *lehenago batua, gero zatikatuagoa,* edo *lehenik zatikatua, ondoren batuagoa*? Aldi gehiago deskriba daitezke? Zer uste duzu?

   ("Bizkaia aldean, *gura*; Gipuzkoan, *nahi*". Horrela da? Horrela izan da beti? Bestalde, *logura* eta *hazkura* ditugu: bi hitz horiei begiratu ondoren, ausartu zaitez aurreko galderarekin lotura egiten eta azalpena ematen.)

3. Oñati Gipuzkoan izan arren, diotenez, *bizkaieraz hitz egiten dute oñatiarrek*. Gisa berean, nafarrak izan arren, Aranoko biztanleek gipuzkeraz egiten omen dute. Ikusten al duzu hori argitzeko modurik?

ARGI DEZAGUN AUZIA

Latinaren bilakaera aski ezaguna denez, adibide ona da ikusteko nolakoa izan daitekeen hizkuntzen joera . Latina Kristo aurreko 1000 urte lehenago agertu zen Italiaren erdialdean, Latium izeneko eskualdean, hain zuzen. Hasierako latin horren barnean hainbat aldaera zeuden, baina Erromako aldaera nagusitu zen guztien artean. Aldaera nagusi hura, latin erromatarra, alegia, hedatuz eta indartuz joan zen, lehenik Italia osoan, eta laster, Erromaren inperialismoarekin batera, Mediterraneo bazterretako herrietan eta Europa erdian, Britainiar irletatik hasi eta Errumaniaraino. Aurrerago, latin mintzatua edo latin arrunta sortu zen, latin klasikoaren oso bestelakoa. Ondoren, latin arrunta desberdinduz joan zen eta tokian tokiko aldaerak eratzen hasi, eta horrela sortu ziren enbor beretik hizkuntza erromantzeak Iberiar penintsulan, Frantzia aldean, Italia aldean eta Europako ekialdean. Hizkuntza erromantze horien ondorio dira gaur egungo hizkuntza hauek: gaztelania, portugesa, frantsesa, italiera, errumaniera, galegoa, katalana, okzitaniera, sardiniera eta erretroerromanera. Hortxe, beraz, hizkuntzaren bilakaeraren adibide bat.

Euskarari gagozkiolarik (dela hizkuntza zatikaturik egotea, dela bat bakarra izatea), bigarren galderan eta parentesi artean dagoen adibide sinpleak zerbait asmatzera lagun gaitzake. Adibide horretan, *gura* bizkaieraren formatzat jotzen da, eta *nahi* forma, berriz, gipuzkerako formatzat. Bizkitartean, *gura* izenaren bidez osatutako *logura* eta *hazkura* hitzak Gipuzkoan ere erabiltzen dira. Hortaz, ondoriozta dezakegu *gura* forma, noizbait, eskualde horretan ere erabili zela. Hauxe izan daiteke bilakaera: *nahi* eta *gura,* forma biak erabili ziren gipuzkeraz sinonimo gisa; gero, formatako bat besteari gailendu

zitzaion, eta *nahi*-k iraun zuen, eta *gura* galdu, konposatuetan izan ezik. Alegia, adibide horren bitartez irudika dezakegu beste garai bat non euskara batuagoa baitzegoen; irudika dezakegu, halaber, nola hasi zen haren zatitze-prozesua eta nola sortu ziren tokian tokiko aldaerak, latinari gertatu bezala.

Azken galderari erantzun nahian, aitor dezagun gipuzkoar batzuek (oñatiarrak, adibidez) *bizkaieraz* jarduteak edo nafar batzuk (aranoarrak, adibidez) *gipuzkeraz* mintzatzeak galderak sorrarazten dituela. Izan ere, kasu horietan, euskalkiaren izenak eta gaurko eremu geografiko-administratiboen izenak ez datoz bat. Kontraesan hori aspaldikoa da eta hipotesiak sorrarazi ditu euskararen historia aztertu dutenen artean. Ikasgai honetan auzi hori argitzen saiatuko gara.

IKAS DEZAGUN

Bere kasa utziz gero, hizkuntzak ez du modu berean irauten, askotan zatikatzen da. Zergatik?

Hiztunek hizkuntza biziarazten dute, aldaketak eragin eta itsasten dizkiote, nahitaez forma batzuk hobesten dituztelako, beste zenbait baztertzen, eta berriak ere sortzen dituztelako. Bestelakotuz doa hizkuntza hiztunen eskutik, eta talde desberdinen artean harremanak urrituz baldin badoaz, enbor beretik adar berriak gorpuztu daitezke. Bereziki hizkuntza mintzatuaren berezko joeratzat hartu behar da desberdintze hori.

Biziraun duten hizkuntza gehienen historian, ordea, zatitze horren beste aldera, izan dira gizarte-gertakariak hizkuntza biziarazi eta hiztun askotarikoen arteko komunikazio ona mantentzea ahalbidetu dutenak: salerosketa-harremanak, adibidez, edo egin diren mota guztietako jende-bilkurak, izan ofiziokideen artekoak, zein erlijioaren edo kulturaren karietara egin direnak. Horiek guztiak hizkuntzaren batasunaren aldeko indarrak izan dira. Euskal Herrian, adibidez, XX. mendearen hasieran, mendiak eta estatu-mugak bereizirik izanagatik ere, Berako biztanleek harreman ugari zituzten Donibane Lohitzune, Urruña, edo Azkainekoekin: erosketak egiteko edo saltzeko, kontrabandorako, sasoi-lanak egiteko, bai eta festa egiteko ere. Horri esker, eremu horretan aski bateraturik irauten zuen euskarak. Arrazoi horietaz gain, nahita ere eragin dira indar bateratzaileak, dibertsifikazio gehiegizkoa eragozteko: hizkuntza zaindu nahi izan dutenek, adibidez, hizkuntzaren batasuna bultzatu dute, hiztunen arteko komunikazioa mantendu eta hizkuntza bera egoera onean atxiki nahi zutelako. Halaber, erresuma baten kontrola nahi zuten gehienek ere, hizkuntza bakarra eta batua bultzatzea izan dute helburu.

Har dezagun duela berrogei urteko euskara, batasun-prozesu formala abiatu baino lehenagokoa: nolakoa zen egoera? Hizkuntza zatikatua zen, hainbesteraino non euskaldun askoren arteko komunikazioa ez zatekeen batere erraza. Orduko Euskal Herriko eskualdeen arabera ez ezik, hurbileko herrien artean ere baziren baitezpadako aldeak. Gaur egun ere, eta ondoko erdarekin konparatzen badugu gure hizkuntza, haiek baino zatikatuagoa agertzen zaigu. Ez da hau, baina, euskara berezia delako. Erran dugu jadanik berezko legea dela bilakaera hau. Hain zuzen ere, luzaz bere gisa utzia izan den hizkuntza baten egoera dugu hori. Izan ere, historian barna, Euskal Herriak erabateko zatiketa administratiboa jasan du; oro har, lurralde batekoek harreman gutxi izan dute gaineratekoekin. Lurralde bakoitzean, berriz, ofizialtasun mailarik ez zuenez, esparru itxi eta mugatuetan egin du aurrera hizkuntzak. Irakaskuntzatik eta kanal idatzietatik kanpo zegoen euskara. Orokortzerik ez zen, arautzerik ez, lantzerik ez. Idazle zenbaiten kezkak kendurik, inon eta inor ez zegoen hizkuntza hori zainduko zuenik, beste hizkuntza askotan bezala, batze-prozesua abiatuko zuenik. Noizbait, hala ere, batasun-bidea hartu zen: 1968an onartu ziren euskara batuaren oinarriak. Hortaz, batasun-prozesua

berankorra izan da, eta hor dugu beste arrazoi bat azaltzen duena zergatik izan den aldaera kopurua hain handia euskararen baitan.

Zer zen euskalkiak baino lehenago?

Hizkuntzaren bilakaeraren joerei eusten badiegu, euskalkien bidez irudikatzen dugun zatikatze horren lehenagokoa ere kontsideratu behar dugu, egiaren erdiarekin jokatzea bailitzateke euskararen hastapena euskalkien aroan kokatzea. Euskara batu, enbor bakarretik abiatu dira euskalkiak. A. Villasantek euskalkiak aztergai hartuta zioenez *axaleko zenbait aldakuntza gora-behera, muin handi bat dute orokorra dena, guztiotan bat bera eta berdina den muina.* Protoeuskara edo *antzineuskara* deitu zaio hastapeneko euskara batu horri, gerora euskalkiak eman zituenari. Hona Miren Pagolaren baieztapena:

> *Dena dela, suposa daiteke betiere dialektoak aldakien urrunketatik eta etenketatik sortu direla, baina aldaki hauek elementu bakar batetik sortu eta askatu dira, beste testigantzarik utzi ez digun batasun linguistiko batetik, "protoeuskara" edo antzineuskara" deitu izan zaion hizkuntza batu batetik.*

Gaia hobeki ulertarazteko, irudi hau erabili zuen Aita Villasantek, bai eta zenbait adibide sinple eman ere, bere ustea hobeki onar dezagun: Mareagora denean, itsasoak hondartza-eremu zabala estaltzen du. Behera erretiratzean, lehenago estalitako eremu handia urik gabe uzten du, baina tarteka itsasoko urez beteriko putzu bakanak ikus daitezke. Seinale, guztian egon dela, hain aspaldi ez dela, itsasoa.

Adibideen artean, *zuhandor* hitza (frantsesez *cornouiller*, espainolez *cornejo*) aipatu zigun A. Villasantek, euskararen eremu gehienetan arroztua, omen, baina Arantzazuko baserritarren artean erabiltzen zena. Azkueren eta Lhanderen hiztegietan ere ikusi zuen hitz horren testigantza, Lapurdin eta Zuberoan ezaguna zuten lekuko; euskararen esparru gehienean galdua, hortaz, baina tarteka, segida logikorik gabe, punta batean eta bestean ageri zen hitza. Horiek dira, Villasantek azaldu moduan, *itsaso*-antzinako euskara bat-bera hark utzitako *putzu* edo frogatako batzuk.

Eta noizkoak dira euskalkiak? Aldaera geografiko horien oinarrian, zer dago?

Duela gutxi arte, euskalkitan gauzatutako zatiketa aspaldikoa zela defenditu da, eta hala agertzen da oraino eskola-liburuetan. Haatik, horren kontrako argudioak indartzen hasi dira, eta, hortaz, gaurdaino nagusi zen hipotesia aipatu ondoren, oraintsu kontrajarri zaiona ere aurreratuko dugu:

A. Gaurdaino nagusi zen hipotesia

Erromatarren garaiko geografoek Espainia eta Frantziako biztanle taldeak deskribatu zituztelarik, zenbait tribu kokatu zituzten gaurko Euskal Herriaren eremuetan: akitaniarrak, autrigoiak, baskoiak, barduliarrak eta karistiarrak, besteak beste. Hizkuntzaz desberdinak omen ziren. Leinu horiek okupatzen zituzten lurren mugei begiratuz gero, berriz, kasu batzuetan badirudi eremuok eta oraintsu arte deskribatu diren euskalkien mugek zerikusi handia zutela. Adibidez:

- Erromatarrek Aragoin eta Errioxaren parte batean baina batez ere gaur egungo Nafarroaren mugen barnean kokatu zuten baskoien eremua. Gaurko Gipuzkoako ipar-ekialdeko eskualdekoak ere baskoiak omen ziren: Oiartzun, Hondarribia eta Irun hain zuzen ere. Nafarreratzat hartu izan da horko euskara ere.

- Barduliarrak egungo Errioxatik hasi eta behetik gora, kostalderainoko lekuan bizi omen ziren, Donostia eta Debaren artean. Eremu horretan egin den euskara gipuzkeratzat hartu izan da.

- Karistiarrak Arabako iparra, Gipuzkoako mendebaldea eta gehienbat Bizkaian kokatzen ziren, Deba ibaitik Nerbioi ibairaino. Gaur egun hor mintzatzen da tradizionalki bizkaiera deitutako euskalkia.

Bateratasun horietan elikatu da euskalkien jatorriari buruzko hipotesirik oraintsu arteko hedatuena, alegia, eremu osokoa zen hizkuntza emeki-emeki aldatuz joan zela, tokian tokiko tribu bakoitzak moldaturik, eta aldaera geografikoak sortu zirela. Horrela uler zitekeen tribu haien egoitza-esparruek eta finkatu ahal izan diren euskalkien mugek bat egitea.

> *Horregatik, area dialektalak eta dialektoak mugatzeko izan daitezkeen eragozpenak eragozpen, esan daiteke ondorioz euskararen sailkapen dialektala erromatarren garaiko zatiketa tribalean oinarria hartuta egin daitekeela, ordutiko berezitasunek, geroztiko zatiketa administratibo berrien gainetik, gaur arte iraun dutelarik (edonola ere ez daiteke ahantz iraganeko bi mila urteren buruan ari garela hitz egiten).* [4]

B. Egun argudiatzen den hipotesia

Aurreko hipotesia kolokan jarri zuen Koldo Mitxelenak 1981ean, eta haren esanari jarraiki, argudio garrantzitsuak plazaratu berri ditu Koldo Zuazo filologo eta euskaltzainak.[5] Hauxe dugu jarraitu duen irizpide nagusia: zenbat eta ugariagoak eta garrantzitsuagoak izan dialektoetan agertzen diren alda-kuntzak, orduan eta zaharragoak dira dialekto horiek. Aitzitik, berrikuntzak gutxi eta txikiak badira, dialektoak aski berriak direla esan nahiko du horrek. Irizpide horri eutsiz eta dialektologia-ikerketen ekarpenak kontuan hartuta, euskalkiak uste baino askoz ere berriagoak direla baiezta daiteke: erdiko euskalkiek antz handia dute beren artean, eta hori ez litzateke posible izango euskalkiak horren zaharrak balira (askoz ere desberdintasun handiagoak ikusiko genituzke); bazterrekoak, aldiz, bestelakoak dira (hain zuzen, mendebaleko euskara eta zuberera).

Erdi Aroan kokatu du Koldo Zuazok euskalkien hasiera, eta euskaran sortu diren berrikuntzak aztertuz, haren ondorioa da orduko aldaketek bi abiapuntu izan zituztela:

- **Iruñea**: garatutako berrikuntzak sorburu horretatik hedatu bide ziren Nafarroa Garaira, Lapurdira, Nafarroa Beherera, Gipuzkoa gehienera eta Arabako ekialdera.

[4] PAGOLA, Miren: *Dialektologiaren atarian*, Ed. Mensajero-Gero, Bilbo, 1991, 82. or.

[5] ZUAZO, Koldo: "Euskalkien jatorriaz eta bilakaeraz" *in* Berria, 2007-12-09.

ZUAZO, Koldo: *Euskalkiak, Euskararen dialektoak*, Elkar, Donostia, 2008.

- **Gasteiz**: horko aldaketak Arabako gainerakora, Bizkaira, Deba ibarrera, Errioxara, Urolaldera, Goierrira eta Nafarroako Burundara, Amezkoa eta Lana haranetara hedatu bide ziren.

Kontuan hartu behar da Iruñeko mendebaldera zabaltzen zen eragin-eremuak eta Gasteizko ekialdera zegoenak bat egiten zutela parte batean: bertoko hiztunek bi aldeetako berrikuntzen lekuko izatea da horren ondorioa. Hain zuzen ere, Burundan egiten ari diren ikerketak halako zerbait erakustekotan dira: tarteko euskalkitzat jotzen da horko euskara.

Koldo Zuazoren iritziz, berriagoak dira eta ez aspaldikoak bestelako hizkuntza-berrikuntzak sorrarazi dituzten beste hiru eragin-guneak:

- Maule da bat
- Donostia, Hernani, Andoain eta Tolosa hiriguneak, bestea
- Mungia, Busturia, Txorierri eta Arratia eskualdeak hirugarrena

Azkenik, esan behar dugu tesi hau euskarritzen dutela bai historian egindako ikerkuntzek, bai literaturan gertatu diren azken aurkikuntzek (Lazarragaren testuak, adibidez), eta baita dialektologian egiten ari diren lan ugariek ere.

Zehaztu dezagun orain zenbat diren euskalkiak. Non hasten da bakoitzaren eremua, non bukatzen?

Arnaud Oihenartek aurkeztu zituen lehen aldiz euskalkiak XVII. mendean.

XIX. mendean, Aita Larramendi saiatu zen euskalkiak sailkatzen: literatura-lanak erabili zituen horretarako, eta bertan aurkitzen zituen ezaugarri bereizleak jaso zituen.

Geroxeago, Bonaparte printzeak heldu zion euskalkien bereizteari, eta harena da euskara ezagutzeko erabili den oinarrizko sailkapena. Aho-hizkuntzan oinarritu zen euskalkien banaketa egiteko. Garaiko baliabideak kontuan hartuta, lan sakon eta zabala egin zuen: Ingalaterran bizi zen, baina Euskal Herri osoko laguntzaileak bildu zituen bere zerbitzuko. Bakoitzari Biblia edo Kristau Doktrina bat bere euskalkira itzultzea eskatzen zion, eta lanak konparatuz identifikatu zituen euskararen aldaera nagusiak, aldaera geografikoak. Zortzi euskalki mintzatu bereizi zituen ordukoz, lau hegoaldean eta beste lau iparraldean: bizkaiera, gipuzkera, hego goi-nafarrera, ipar goi-nafarrera, ekialdeko behe-nafarrera, mendebaldeko behe-nafarrera, lapurtera, eta zuberera. Horien barnean azpieuskalki franko.

1997an lehenik, eta 2008an bigarrenik, Koldo Zuazok aurkeztu ditu euskalkien sailkapen gaurkotuak. Zinez aldea bada aurrekoetatik oraingo hauetara, eta hori azaltzeko, arrazoiak eman ditu egileak. Arrazoi nagusia da euskararen egoera arin aldatu dela azken 40 urteetan eta euskalkien mugak eztitu egin direla; izan ere, batetik, bizimodu-aldaketak komunikazio molde desberdinak ekarri ditu euskaldunen artean eta, bestetik, euskara batua sortu da eta toki publikoetan ere erabiltzen hasi da. Bestalde, denbora berean dialektologia-ikerketak biziki ugaldu dira eta informazio zehatzagoa lortu ahal izan da. Ondorioz, bi aldaketa nagusi nabarmen daitezke mapa berrietan: bata da euskalkien kopurua behera joan dela,, eta bestea, euskalkien izen zenbait ere aldatu direla.

1997an, zortzitik seira murriztu zituen Koldo Zuazok euskalkiak: zuberera eta nafar-lapurtera kokatu zituen iparraldean; hegoaldean, berriz, mendebaleko euskara, erdialdekoa, nafarrera eta ekialdeko nafarrera. Azken mapan, 2008koan, bost euskalki baizik ez ditu sailkatu; izan ere, ekialdeko nafarrera desagertu da, azken hiztunak zendu direlako.

Baina zergatik izen berri horiek, alegia, *mendebalekoa, erdialdekoa,* eta *nafar-lapurtera?*

Jakina da Bizkaia ez diren toki batzuetan ere egiten dela *Bizkaiko euskara*: Gipuzkoako Deba arroan eta Araban. Aitzina, euskara hori zen bai Araba gehienean, bai Burgos eta Errioxa aldean egiten zena. Lekuari erreparatuz, beraz, zuzenagoa dirudi *mendebaleko euskara* izendatzea.

Gisa bertsuan, Gipuzkoan ez diren toki batzuetan ere egiten da *Gipuzkoako euskara*: Nafarroako Basaburuan, Larraunen eta Imotzen, adibidez. Nafarroako Arano, Areso eta Araitzen *gipuzkera* hutsez egiten dute. Horregatik zuzenagoa bide da *erdialdeko euskara* deitzea euskalki horri.

Nafar-lapurtera izenak berak adierazten du bi euskalkiak bat egiten ari direla. Ez omen da garbi ikusten gaur Lapurdiko kostatik hasi eta Zuberoa mugaraino ebakidura garbirik. Hortik dator izen berria.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

1. Koldo Zuazok 1997an idatzitako "Euskararen kolore zaharrak XXI. Mendean" artikulua irakurri ondoren, jaso itzazu zehaztasunez galdera hauen erantzunak:

a. Zergatik gaurkotu behar izan da Bonaparteren euskalki-sailkapena?

b. Euskalkien arteko hurbiltzea euskalki guztien artean gertatzen ari da?

c. Zenbat euskalki zehaztu zituen K. Zuazok artikulu horretan? Zein dira? Ba al dakizu zenbat zehazten dituen gaur egun?

d. Zergatik izen berri hauek: mendebalekoa, Erdialdekoa, nafar-lapurtera?

EUSKARAREN KOLORE ZAHARRAK XXI. MENDEAN

Bonaparte printzeak euskalkiez egindako sailkapena, urte luzez erabili duguna, 1860-70 hamarkadakoa da eta euskararen egoera eta izaera erabat aldatu da ordutik hona. Beraz, Bonaparteren euskalki sailkapena gaurkotu beharra dago, arrazoi askorengatik. Hasteko, bizimodua errotik aldatu da. Jendea orduan baino sarriago eta eremu zabalagoetan ibiltzen da orain eta, oro har, euskaldunok eta euskara batuago gaude, nahiz eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga eten garbia izan, Bonaparteren garaian baino garbiagoa beharbada.

Bestalde, 1968az gero euskara batua dago eta euskalkien arteko aldeak gutxitu egin dira batu horren eraginez.

Euskararen normalizazioari begira ere egin dira urrats zenbait. Bai irakaskuntzan eta bai hedabideetan euskarak badu gaur egun bere lekua eta administrazioan ere aurreratu da zer edo zer. Euskalkien aldeak txikitzea ekarri du honek ere.

Gainera, dialektologia ikerketek goraka egin dute batez ere azken hamarkadan. Gorakada hau, baina, Hegoaldean baizik ez da gertatu. Iparraldean orduan bezain "gorri" gaude gaur egun ere.

Amaitzeko, ez da pentsatu behar Bonapartek erabat asmatu zuenik, gizaki ere ez baitzen izango bestela. Euskalkien mugak ezartzea lan samurra da batzuetan. Hiztun arruntak ere ikusten du non egon daitekeen bizkaieraren eta zubereraren muga; nortzuk diren "giputz" eta nortzuk "manex" galdetu besterik ez dago horretarako. Beste batzuetan, ostera, zailagoa da lana eta Bonapartek ez zuen horrelakoetan behar bezain zorrotz jokatu. Nafarroako Araitz, Larraun eta Basaburuko euskara sailkatzeko, esate baterako, hiru irizpide (hiru besterik ez!) kontuan hartzeko eskatu zion laguntzaile zuen Etxenikeri:

a) *zare/zara*, *gare/gara*, *zarete/zarate*, *dire* esaten ote zen Baztanen eta Lapurdin bezala ala *zera*, *gera*, *zerate*, *dira* Gipuzkoan bezala.

b) *dut*, *duzu*, *dugu*, *duzue/duzute* ala *det*, *dezu*, *degu*, *dezue/dezute*.

c) *zeren ona baita* ala *zeren ona den*. Jakina, hiru irizpide horiek ez dira hizkera bat sailkatzeko arrazoi nahikoa.

Euskalkiak bateratuz joan dira, beraz, azken urteotan. Bonaparteren garaiko zortzi euskalkiak seira ekar daitezkeela uste dut eta bost baizik ez dira izango hemendik lasterrera. Iparraldean eremu nagusi bi nabari dira eta lau Hegoaldean: zuberera, nafar-lapurtera, mendebalekoa, erdialdekoa, nafarrera, ekialdeko nafarrera.

SAILKAPEN BERRIA. Iparraldeari dagokionez, ez dela ia ikerketarik egin esan dut arestian. Zubereraren izaera bereziaz ez dago inolako zalantzarik, baina, ostera, guztiz behin-behinekoa da nafar-lapurtera horren sailkapena. Sakon eta lehenbailehen ikertu behar da Iparralde osoa, baina ikusi dudanaren arabera, Lapurdiko itsasaldetik Zuberoako mugaraino ez dut eten garbirik inon sumatu. Ertz batetik bestera alde handia dago, jakina –Bizkaiko Getxotik Gipuzkoako Bergarara dagoen bezala- baina mailaz mailakoa iruditu zait aldaketa hori- Getxotik Bergararakoa bezala-.

Hegoaldeari dagokionez, hemen ere ez dago mendebaleko euskararen izaera bereziaz inolako zalantzarik. Izena aldatu diot soilik eta bizkaiera deitu ordez "mendebaleko euskara" deitu. Gipuzkoako Deba arroan eta Arabako alderdi baten ere egiten den hizkerari bizkaiera deitzea ez zait zuzena iruditu. Historian atzera eginez, gainera, Araba gehienean ere euskara mota hau egiten zela frogatu uste dut laster argitaratuko den ikerlan baten eta litekeena da aspaldi Burgosen eta Errioxa aldean egiten zena ere tankera honetakoa izana. Bego, beraz, "mendebala" deitura.

Euskara bateratuaz joan dela esan dut eta Nafarroako mendebaleko hizkerek Gipuzkoa aldera izan duten isuria da horren adibide. Batez ere Hego Euskal Herrian euskara giputza izan da aspaldi luze honetan prestigiodun hizkera eta hala Tolosa nola Beterri (Donostia eta Hernani aldea) industriagune eta merkatugune izan dira, gainera. Nafarroako mendebalean, alegia, Basaburuan, Larraunen eta Imotzen agerian dago euskara giputzarekiko hurbiltasuna eta "hurbiltasuna" baino areago "berdintasuna" ere deituko nioke Arano, Areso eta Araizko hizkerek dutenari.

Euskalki honen deitura dela-eta sortzen dira arazoak atzera berriro. Nola deitu "gipuzkera" Nafarroan ere mintzatzen denari? Bizkaierari "mendebalekoa" deitu diodanez, honi "erdialdekoa "deitzea erabaki dut. Nafarroako eremu zabalean egiten denari "nafarrera" deitzea zen erosoena eta halaxe egin dut. Arazoak, baina, euskalki honetako zenbait hizkera sailkatzeko orduan etorri dira. Bortzirietan, Malerrekan eta Sakanan nabarmena da erdialdeko euskalkiaren hurbiltasuna, baina gauzak bere osotasunean hartuta, nafarrerari eranstea erabaki dut. Edozelan ere "tarteko hizkerak" dira hauek. Ikerketa sakonagoek eta batez ere, hizkera hauek datozen urteetan egin dezaketen bilakaerak erabakiko dute auzia.

Sakana barruan leku berezia dauka Burundakoak, hots, Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaikukoak. Tarteko hizkera da hau ere, baina ez erdialdekoaren eta nafarreraren tartekoa bakarrik, mendebalekoarekin ere egiten duelako honek lotura. Arabako ekialdean aspaldi egiten zen hizkeraren jarraipena da, nonbait, gaurko Burundakoa.

Nafarroako sortaldeko ertzean, azkenik, Zaraitzu eta Erronkari daude. Erronkarin galdu berri dago euskara eta galzorian Zaraitzun. Horrexegatik esan dut arestian, sei gabe bost izango direla laster euskalkiak eta praktikan hala dira dagoeneko. Dena dela, dialektologia historikoari begira, multzo berean sartuko nituzke nortasun handiko hizkera bi hauek eta "ekialdeko nafarrera deitu, beste ezer baino lehen nafarrak direlako eta ez zubereraren eta behenafarreraren atal, Bonapartek esan zuen bezala.

(...)

ZUAZO, Koldo: "Euskararen kolore zaharrak XXI mendean" *in* Argia aldizkaria, 1997-12-28, 23-27 or.

2. Gaur egun, Euskal Herriko kaleetan maiz entzun daiteke arabieraz hitz egiten. Hala ere, arabiar guztiek hizkuntza bera eginik ere, elkar ulertzen al dute? Elkar ulertzen al dute, adibidez, etorkin marokoarrak eta Somaliatik etorritakoak?

Interesgarria litzateke emigratze-mugimenduengatik gero eta hurbilago dugun arabiar-hizkuntzaren nondik-norakoak pixka bat ezagutzea. Beraz, horri buruzko informazioa lortzea proposatzen dizugu. Zuri bururatuko zaizkizun iturriez gain, bi bide proposatzen dizkizugu: Saharako Lagunen GKEan dabilen jendearekin harremanetan jartzea bata, eta bestea, Entziklopedietara jotzea eta arabierari buruz azaltzen dena irakurtzea.

Ariketa honek hizkuntzen bilakaeren dinamika ulertzen lagun diezazuke.

EUSKARAREN ALDAERA GEOGRAFIKOAK: EUSKALKIAK (II)

Euskalkien garapena eta hiztunen jarrerak

4

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

1. Zer da aurreiritzi bat?
2. Ezagutzen al dituzu hizkuntzei buruzko aurreiritziak? Euskalkiei buruzkoak? Adieraz itzazu batzuk: ezagunak, noizbait entzunak, edo zuk asmatuak. Zure ikuspuntuaz gain, irudika ezazu zer pentsatzen duten zure ingurukoek: familiakoek, lagunek, zure ikaskideek.
3. Zer eragin izan dezakete aurreiritzi horiek hiztunen jarreretan?
4. Zer egon daiteke aurreiritzi eta jarrera horien oinarrian, zergatik sortu dira?

ARGI DEZAGUN AUZIA

Behar bezalako ezagutzarik gabe, frogarik edo oinarri seriorik gabe ematen den epaiari edo iritziari deitzen zaio aurreiritzi. Gisa horretakoak izaten dira maiz hizkuntzei buruz eta batez ere horien erabilpenari buruz serioski funtsatuak ez diren uste eta iritziak. Gizarte-irizpideen, balio sozialen arabera moldatzen dira aurreiritziak; emozioek ere eraginak izan daitezke, baina ez irizpide linguistikoek.

Duela berrogei urte inguru, adibidez, biziki hedatua zen Euskal Herriko hegoaldean euskaraz zekitenen artean, bai eta ez zekitenen artean ere, honela adierazten zen aurreiritzia: *Euskararik onena, Tolosakoa.* Zergatik ematen zitzaion balio gehiago Tolosako aldaerari? Ez al ziren onak gainerako aldaerak, haien bitartez hiztunak ongi komunikatzen baldin baziren?

Euskalduntze-alfabetatze hastapenetan, berriz, euskara ama-hizkuntza zuten askok honela zuzendu ohi zitzaizkien euskaltegietan ikasten ari zirenei: *Zuek bai ongi hitz egiten duzuela!* Hau da, euskara batua eta *liburuetako euskara* inportantzia hartzen ari zen neurrian, euskaraz eskolatu gabeko hiztun horiek pentsatzen zuten berena bigarren mailakoa zela. Alta, hiztun jatorrak ziren, ahozko erregistroan guztiz trebatuak, euskaltegietako ikasle askoren maila gainditzen zutenak.

Euskararen historiari gagozkiolarik beti, aipa daitekeen hirugarren adibide bat da hikako aditz erregistroaren inguruan toki askotan zabaldurik egon den ustea: alegia, hikaz hitz egitea itsusia zela, gaitzestekoa.

Aurreiritzi horiek jarrera negatiboak eragin ohi dituzte hiztunengan: gutxietsia dena, gaizki ikusia dena, baztertzen da. Hiztuna lotsatzen da, kikiltzen, konfiantza galtzen du eta bere hizkuntza edo aldaera-rekiko izan dezakeen fideltasuna galtzen du. Dudarik ez dago, hortaz, hizkuntzaren inguruko aurreiritziez jabetu beharra dagoela, batetik hiztunaren jarrera egokia bermatzeko, eta bestetik, hizkuntzaren erabilpena indartzeko.

Aurreiritzien kausetara jo behar baldin badugu, euskararen aldaera geografikoen historian aurkituko dugu esplikazioaren parte bat bederen. Horretan ere, Koldo Zuazori zor diogu gai hori argitu izana hainbat artikulu eta liburutan, *Euskararen sendabelarrak* liburuaren lehen atalean, *adibidez:* XVI. mendetik haste, euskalkien historia eta ospea loturik agertu ditu hor. Aurreiritzi zenbait argitzeko modua denez, hari horri lotuko gatzaizkio ikasgai honetan.

IKAS DEZAGUN

Euskalkiez aritzean, orain artekoan euskalki mintzatuez aritu gara, ahoz erabili diren aldaerez. Izan dira, ordea, mintzatuez gain, euskalki idatziak ere, euskalki literarioak, hain zuzen. Izenak dioen bezala, literatura-euskalkia literaturan erabili den euskalkia da: ahozko hizkera huts izatetik maila idatzira pasatua. Ez da nolanahikoa urrats hori ematearen garrantzia, funtzio-aldatze horretan aldaera hori bereziki trebatzen baita, garatzen baita, tresna kamustua zorrozten den bezala zehaztasun eta eragin-kortasun hobea lortzeko. Idazleek egin dute lan hori, eta erabili duten euskalkia poliki-poliki ondu eta osatu da. Gisa horretan sortu da kode idatzia. Geroago, euskaraz idazten hasi behar zutenek euskalki literarioari begiratzen zioten, hura bilakatzen zuten eredu.

Haatik, aldaketa kualitatibo hori ez zen euskalki guztiekin gertatu, eta gertatutakoetan ere, ez guzti-etan indar berarekin. Ikus dezagun zergatik. Lehenik, ohar gaitezen 8 euskalki nagusi aipatzen ziren garaian 4 euskalki baizik ez zirela literaturara pasa, 2 iparraldean eta beste 2 hegoaldean:

- Lapurtera da literaturara iragan zen lehen euskalkia: XVI. mendean hasi (Etxepare, Leizarraga) eta XVII. mendean sendotu zen tradizio idatzi hori Axularren eta Sarako eskolakoen lanei esker. Idatzirako lehen eredu bihurtu zen orduan lapurtera, eta gaurdaino iraun du bere eraginak.

- Zuberera izan da denboran bigarren euskalki literarioa: XVII. eta XVIII. mendeetan, hain zuzen.

- Gipuzkera da denboran hirugarrena, XVIII. mendean. Berant izanagatik ere, esan dezagun produkzio literario handia egin zela euskalki horretan. Aita Larramendi izan zen denen aitzin-dari, berak sustatu zuen idazle multzo polit baten lana. Hauei esker indarra hartu zuen gipuzkera literarioak.

- Bizkaiera da literaturara pasatu den azkena, XIX. mendearen hastapenean, hain zuzen. Kontuan hartzeko xehetasuna da horixe.

Esana dugu jadanik literaturak garapena ematen ziola euskalkiari eta eredu bihurrarazten zuela. Horrekin batera, prestigioa ere irabazten zuen maila horretan landu zen aldaerak. Aitzitik, prestigio gutxikoa izan da alor horretan atzean gelditu den euskalkia: literaturan erabili ez dena edo hara berandu iritsi-takoa. Honela, bada, fenomeno honek desorekak ekarri ditu euskalkien estimuan.

Zer iritzi eta jarrera sortu da, bada, gure historian, euskalkien inguruan?

Lehenik eta behin, aipagarria da idazleek berek, ageri-agerian, bi euskalki hobesten zituztela besteen gainetik: lapurtera eta gipuzkera. Koldo Zuazok jasoak dira adibidetzat emanen ditugun pentsamolde eta jokabide hauek:

- Aita Larramendi gipuzkoar idazleak aitortzen zuenez, lapurtera zen euskalki idatzi landuena, baina gipuzkera iruditzen zitzaion euskalkirik onena. Duvoisin kapitainak, lapurtarra izanagatik ere, antzeko iritzia zuen.
- Bonapartek euskalki guztiak ezagutzen zituen, baina ez zuen dudarik mailarik gorena gipuzkerak zuela aldarrikatzeko.
- Idazle batzuek beren euskalkia erabiltzeko partez beste bat erabili zuten, hain zuzen gehienek hobesten zuten euskalkia: Mogelek, adibidez, gipuzkeraz idatzi zuen maiz, baina berez bizkaitarra zen.

Hainbat ondoriorengatik, zinez kontsideratzekoa da prestigio kontu hau. Aipa dezagun, adibidez, euskara batu behar zela pentsatzen hasi zenean ere, bi euskalki ospetsu horiek oinarritzat hartzearen alde agertu zirela idazle eta euskaltzainak. Batzuek gipuzkeraren alde jokatu zuten, besteak beste, bizkaitarrek; beste batzuek lapurtera zuten hobesten; eta baziren batua euskalki bi horietarik abiaturik osatu nahi zutenak ere.

Euskalki baten barnean ere ohikoa zen jendeak azpieuskalki bat gorestea. Badirudi lapurteraren barnean kostako lapurtera izan zela denetan miretsiena. Gipuzkeraren barnean, Beterri aldekoa zen estimatuena; Bizkaieraren kasura begiratuz gero, esan daiteke hastapenean Markinako aldaera izan zela ospetsuena; Arratiako euskara goratu zen geroxeago, eta ondoren lehian ezarri zituzten biak, idazle eta gramatikariek.

Prestigioak badu bere prezioa, ordea, bere alde ona eta horren ifrentzua. Zenbaiten onura, gainerakoen kaltea, nolabait. Horrela, hiztun ikasiek euskalki prestigiodunetara jo dute adierazpide hobea eta ederragoa eskaintzen dielakoan. Erabilera handiagoa eman diete eta hiztun arruntentzat eredu bilakatu dituzte euskalki horiek. Azkenean, euskalki prestigiodunak *euskaldunen topaleku* bilakatu direla dio Koldo Zuazok. Baina hortik gainerako euskalkiei balioa eta tokia kentzera, urrats bat besterik ez dago: gainerako euskalkiek erabilera urriagoa izan dute, edo funtzio apalagoetan ezkutatu dira. Izan ere, kikildu ohi dira mirespenik erdiesten ez duten aldaera baten hiztunak, besteen aldean gutxiago direlakoan edo. Horrelako aurreiritzi negatiboak ekarri ditu prestigioak, eta ondorio baitezpadakoak erabilpenari dagokionez.

Munduan gaindi, hizkuntza bat baino gehiago edo hizkuntza-aldaera bat baino gehiago bizi den tokietan, hizkuntzen arteko ukipen-egoeretan, hain zuzen, desoreka sortu ohi da ematen zaien kontsiderazioan, eta erabilpenean. Desoreka handia denean, *diglosia* izena erabiltzen da hori izendatzeko. Azalpen sinple bat emateko, esan dezagun bi aldaeren artean usu gertatzen dela batak besteari gaina hartzea: A aldaera da gaineko hori, komunitate baten hiztunek gizarte-funtzio guztietan edo garrantzitsuenetan erabili ohi dutena, aldaerarik indartuena, gaituena eta prestigiodunena. Horren azpian, B aldaera dago, komunitate horretan gizarte-funtzio gutxi edo funtziorik apalenak baizik bete ez ditzakeenak, prestigio gutxikoa dena hain zuzen:

· $\frac{\text{A aldaera}}{\text{B aldaera}}$

Hierarkia mota horrek sentimendu eta jarrera bereziak eragiten ditu hiztunen artean. Ez du bere hizkera begi onez ikusten hierarkia azpian den hiztunak; hierarkia gainean denak, aldiz, seguru darabil berea. Soziolinguistikak eskaini du hori deskribatzeko moldea, eta horixe erabiliko dugu euskaldunek beren euskalkien balioaren pertzepzioa nolakoa izan den hobeki ulertzeko:

1. ***A aldaera*** duten hiztunak harro dira beren hizkuntzaz, konfiantza dute beren buruengan, gizarteak hura babestu, bultzatu eta balioz janzten duelako.

   Besteekiko komunikazioan ez dute haien hizkera egokitzeko beharrik sentitzen; arazorik sortzen bada, besteak molda daitezela espero dute.

2. ***B aldaera*** duten hiztunek ez dute beren buruengan konfiantzarik, beren hizkuntzaz lotsatzeraino batzuetan. Zakarra, zaila edo ulergaitza iruditzen ahal zaie. Auto-gorrotoa deitzen zaio jarrera mota honi soziolinguistikan, hizkuntza ez ezik norbere kultura edo izatea gorrotatzeraino hel baitaiteke sakonean halako hiztuna. Horregatik hiztun batzuek beren aldaera baztertzen dute, ez dute agertu nahi. Berena utzi eta aldaera prestigioduna hartzeko mugimendua egin ohi dute.

Euskalki literarioen garaira itzultzen bagara, badakigu Euskal Herriko gizartean frantsesa eta gaztelania zirela A aldaera, bata iparraldean, bestea hegoaldean. B aldaera, bi eremuetan, euskara. Honelako diglosia-egoerak genituen, beraz:

· Iparraldean : $\frac{\text{frantsesa}}{\text{euskara}}$

· Hegoaldean : $\frac{\text{gaztelania}}{\text{euskara}}$

Hortxe dugu arrazoietariko bat azaltzeko zergatik jo duten euskaldunek frantsesera edo gaztelaniara beren artean hitz egiteko, baita behar-beharrezkoa ez zenean ere.

Ikusirik, ordea, euskalkien artean ere nagusitasunak garatu zirela, gehitu behar da ez zela hori euskal gizartean zegoen diglosia mota bakarra. Bada hor ere egoera hori hobeki azaltzeko beste diglosia mota bat ikusi duenik. Demagun euskararen barnean A motako aldaera izatera hurbildu zirela poliki-poliki gipuzkera eta lapurtera. Bata, iparraldean, bestea hegoaldean. Arrazoi nagusia lehenago azaldutakoa da, alegia, literaturak emandako bultzada. Eta hauen barnean ere, ez dezagun ahantz bereziki bi azpieuskalki igo zirela A aldaera izatera. Honela:

· Iparraldean : $\frac{\text{lapurtera (kostakoa)}}{\text{kostakoa ez zen lapurtera, behe nafarrera, zuberera}}$

· Hegoaldean : $\frac{\text{gipuzkera (Beterrikoa)}}{\text{Beterrikoa ez zen gipuzkera, nafarrera, bizkaiera}}$

Azalpen honek bide ematen digu, dudarik gabe, zenbait euskaldunek beren euskalkiarekiko izan duten atxikimendua eta, alderantziz, beste hainbaten atxikimendu eza ulertzeko; bide ematen digu, halaber, norberearen aldaerarekiko arbuiatze joerak eta jarrera txaubinistak edo gainerako aldaerenganako irekitasuna ala itxitasuna antzemateko eta interpretatzeko. Eta, bereziki, hizkuntza estandarra osatzeko orduan gertatu zena konprenitzeko. Guztiek izan dute eta badute oraino eragina euskararen iraupenean.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

1. Bakarka erantzun hemengo galderak. Ondoren, guztion erantzunak entzun eta iritziak trukatuko ditugu. Elkarrizketa eta eztabaidaren bitartez, euskarari buruz ditugun aurreiritzi eta jarrerak zertan diren azalaraziko dugu.

Pentsatu eta idatzi:

- zure iritziz euskara ederra duen pertsona baten izena (pertsonaia publikoa edo ezaguna hobe)
- urruna edo arrotz egiten zaizun euskara mota bat edo hiztun mota bat

Pentsatu eta erantzun: (a ala b, zure egoera zein den)

a. Ikasi duzun euskara, batua baldin bada:

- Atsegin duzu norbait euskalki batean hitz egiten entzutea? Ala ez duzu gogoko?
- Gustatuko litzaizuke euskalki batean trebe izatea? Zeinetan? Zergatik horretan?
- Euskalki batean hitz egiten entzutea noizbait barregarria egin zaizu?
- Ez al zaizu iruditzen harroegi dabiltzala euskalki batean ari diren gazteak?
- Errazagoa egingo litzaizuke euskaraz egin beharrean zenbaitekin gaztelaniaz egitea?

b. Euskalki bat erabiltzen baduzu:

- Non erabiltzen duzu? Noiz edo norekin?
- Harro sentitu zara horregatik batzuetan? Lotsatu zara inoiz, deseroso sentitu? Zein egoeratan: beste euskalki baten aurrean, batuaren aurrean, gaztelaniaren aurrean? Zergatik dela uste duzu?
- Entzun duzu inoiz zuberotar bat hizketan? Zer eragiten dizu horrek?
- Iruditu al zaizu inoiz norbait kikildu dela zure euskaragatik?
- Batuaz hitz egiten al duzu? Norekin? Zergatik? Eta idatzi?

2. Interneten den Wikipedia entziklopedian jasoa da *Dialecto andaluz* izenburupean aurkezten zaizun testua (2006). Hor aurkituko duzu, ondo azaldurik, dialekto horri buruzko hainbat aurreiritzi

Adieraz ezazu, idatzirik, testutik eratortzen duzuna:

- zure ustez aurreiritzi horiek nola adierazten dituen jendeak, esaldi batzuk asmatuz
- aurreiritzi horien oinarriak (kausak)
- zientifikoki zein arrazoi kontrajar dakiekeen
- aurreiritzi horiek hiztunengan eragindako jarrera

El **andaluz** (también denominado *modalidad lingüística andaluza* o *dialecto andaluz*) es un dialecto del español hablado principalmente en Andalucía (España), Ceuta y Melilla y zonas del sur de Extremadura. El andaluz se define habitualmente como dialecto de la lengua histórica castellana (variedad primigenia del idioma) o del sistema lingüístico español (conjunto de variedades que conforman la lengua española). Su consideración dialectal se justifica fundamentalmente en la fuerte diferenciación que *históricamente* ha poseído. Su conexión con la lengua histórica castellana se justifica a su vez, en su relación diacrónica con las variantes que han surgido en mayor o menor medida del castellano antiguo y su descendencia genética del propio castellano primitivo.

En su relación sincrónica, la diferenciación del andaluz es enorme con respecto al castellano actual (conglomerado dialectal de la España norteña) o el español normativo (que toma como base fundamental a la variedad castellana). Su elevado número de hablantes hace que sea el segundo dialecto más hablado de la lengua española en el territorio español después del castellano estandar.

La relación del andaluz con los dialectos y variedades hispanoamericanos, también es de dependencia y de variabilidad (en este caso de todas estas variedades respecto a las norteñas de España). El canario, el rioplatense o el español caribeño, poseen como características fundamentales algunos de los rasgos diferenciadores principales del andaluz, surgidos en la Baja Edad Media, como evolución divergente respecto al castellano norteño. Otras variedades americanas como el mexicano central, aún acercándose bastante mas al español norteño, poseen asimismo numerosos rasgos de origen andaluz o compartidos con éste como el seseo, el uso exclusivo de *ustedes* o un numeroso léxico común.

Consideración social del andaluz

El andaluz ha tenido tradicionalmente una visión muy negativa por parte de los hablantes de otras variedades lingüísticas de España (existen referencias que desprecian, rechazan o condenan al andaluz desde principios del siglo XVI). Tal concepción se apoyaba (y aún lo hace entre la minoría de hablantes de español norteño que rechaza el andaluz) en dos fundamentos: El primero era la idea extralingüística (esto era comprensible para el siglo XVI, pero algo menos para el XXI) consistente en la supuesta "deformación" que supone del español "correcto", que tomaría como modelo al castellano, al que algunos pretendían único heredero legítimo del antiguo castellano, por haber sido Castilla el origen del idioma. El segundo pilar, algo más reciente, del rechazo social del andaluz, es la identificación falaz de lo hablado en Andalucía con la miseria, ignorancia y atraso social. La mencionada identificación pretendidamente lógica, defendía que el

principal factor creador de la diferencia lingüística andaluza, era la propia ignorancia y atraso de los andaluces (debido a la situación de pobreza extrema y crisis que ha sufrido Andalucia desde el siglo XVII hasta hace unas décadas, especialmente dura en los dos últimos siglos), lo que les haría pronunciar incorrectamente. Esta caracterización obviaba dos hechos fundamentales, la antigüedad de los rasgos andaluces, muy anteriores a la crisis y el hecho de que al andaluz no lo caractericen sólo sus rasgos fonéticos, sino que posee un abundante léxico propio y cierta variedad de rasgos morfosintácticos peculiares.

Esta idea negativa del andaluz en la conciencia colectiva de los hablantes españoles de otras variedades, sumada a la existencia de un pequeño pero influyente grupo de andaluces que a lo largo de la historia han rechazado el andaluz, intentando adaptarse voluntariamente a la variedad prestigiada norteña, ha hecho que se desarrolle en los andaluces un fuerte complejo de inferioridad lingüístico.

En la actualidad, aunque en un proceso de liberación de complejos y prejuicios seculares, se perciben los rastros de tal concepción negativa de lo hablado por los propios andaluces, en hechos como la casi inexistencia de locutores en la radio y televisión públicas andaluzas que hablen de manera natural sus variedades del dialecto, sustituyéndolo comúnmente por el castellano norteño o la artificiosa variedad del "andaluz estándar" anteriormente mencionada (a diferencia de los medios de comunicación de cualquier país hispanoamericano o sin necesidad de acudir a estados soberanos, los medios de comunicación canarios, que respetan su modalidad lingüística en grado sumo), la vergüenza visible en muchos andaluces a utilizar su variedad ante un auditorio no andaluz o la insistencia en tópicos insultantes, como la caracterización de los hablantes de andaluz como ignorantes, miserables e iletrados que se jactan de serlo.

Un caso especial dentro de las particularidades del andaluz es el del ceceo. Pese a que esta característica es una de las más definitorias del andaluz, su aceptación social ha sido tradicionalmente muy negativa, sobre todo entre los no ceceantes, pero también entre los que tenían al ceceo como variedad materna. Así encontramos el ejemplo de un actor malagueño de éxito mundial como Antonio Banderas, ceceante, el cual sólo habla en su variedad ceceante materna en contextos muy relajados o cuando se encuentra en su ciudad (es decir en entorno mayoritariamente ceceante).

3. *ASJU, XXI-3* aldizkarian (*Anuario del Seminario de Filología de Filología Vasca Julio de Urquijo* aldizkariaren 21. alean), argitaratu zuen Koldo Zuazok “Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez” izenburupeko artikulu interesgarria. Honako lekukotasun hau hari hartutako pasartez osatua da. Besterik gabe, irakur itzazu.

Aita Uriartek, 1859an, Bonaparteri idatzitako gutun batean:

(...) En Elgóibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azkoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.

Sucede en todas estas poblaciones que miran con desdén el bascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto del Beterri: los sermones y pláticas se predican en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido “guipuzcoanizar” al vulgo.

XX. mendean, S. Altubek Azkueri, gertatutakoa aipatuz. (Azkue) *Arrasatera deitua izan omen zen, herriko jaiak zirela eta, Meza nagusia esatera eta, bertan, bere predikuari bizkaieraz ekin bazion ere gipuzkerara aldatu behar izan omen zuen:*

> *Hacia la mitad de la peroración, cayó en cuenta de lo que creyó imperdonable distracción, por lo que, interrumpiendo el sermón por un momento, se disculpó ante los oyentes y prosiguió su labor en el "lenguaje oficial", en puro guipuzcoano.*

Aita Villasantek, Oñatiko euskara aztertzen duelarik, hiztunen lotsa sentimendua azaltzean idatzitakoa:

> *Beste arrazoi bat ere bada, nire ustez, txar konpleju ori esplikatzeko. "Euskera ona, Tolosa aldekua. Kiputz-aldekua". Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzaldi eta liburuetako beti euskera ori erabiltzen da. Eta hori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute. (...)*

Aita C. Izagirrek:

> *Oiñatiarrak beren izkerakin lotsatu egiten dira: beren ustez Tolosa-aldekoa da ederrena, ta kanpo-koakin itz egiterakoan berena aldatzera egiten dute.*

1920an, Oskillasok:

> *(...) Bizkaitarrak lotsatu egiten dira euren euskaraz Bizkaitik irteteko gauza eztala ikusirik eta erderaruntz bultzatuak sentitzen dira. (...)*

4. 1985ean ospatu ziren Eibarko udaletxean "Euskara eta euskalkiak" jardunaldiak. Adolfo Arejitak eman zuen mintzaldiaren zati bat irakurriko duzu. Adierazpen horiek zehatz ulertzea eskatzen zaizu, eta horretarako lotu egin beharko dituzu zati horren pasarteak ikasgai honetan eman ditugun azalpenekin. Zer ondorio atera duzu?

Adolfo Arejita Morgan jaio zen 1953an; filologoa da, irakaslea, eta Euskaltzaina.

(…)

1.4 Bizkaiera dala-ta jarrerak

Bizkaieraren barrenean, beharbada beste eredu batzuetan baino nabarmenago, halako jarrera batzuk igarten dira, ondoren zehaztuko ditugunak.

a. euskaldun arrunten artean, norbere euskeraren eretxi txar bat nabari da. Euskeraz dakien jente horrek bere hizkerabidearen harrotasunik ez dau sentizen. Prestigio falta horrek ondorio izugarriak ditu hizkeraren transmisioan: etxea, orain artean euskeraren bizirako hain indar handiko izan dan giroune hori elementu pasibo bihurtzen doalako. Gurasoek uste dabe eurek txarto berba egiten dabela, eta ardura gitxi ipinten dabe umeek etxeko euskera ikasi dagien.

Eskolan eta beste leku batzuetan euskera irakasten dala-ta, ardura hori "gizartearen eskuetan" izaten dabe, segurtaturik, eta askozaz hobeto balego legez.

b. Bestea da euskera hobea. Eritxi hau zaharra da. Lehen be Markinakoa, Tolosakoa… ziran euskera onak. Orain be, "mutatis mutandis", ikastolakoa, telebistakoa, irratikoa da euskera ona.

Baina oraingo euskera on horrek zerikusi gutxi dauka, herritarrarentzat, berak egiten dauanarekin: baturako eredua arrotz gertatzen jakolako. Lehen behintzat baegoan antzeko euskera apain bat. Gaur, maila ofizialetan entzuten dana, ez da hori, beste bat baino.

c. Norbere euskerea, mesederako barik, kaltegarri bihur daiteke "euskera ona" ikasteko. Hoba da norbere hori bertanbehera baztertu, ta ezerezetik hasi batua ikasten, bigarren hizkuntza balitz legez.

Joera hau irakaskuntza zentro batzuetaik be bultzatu izan da, bide errentagarriago ta onurakorragotzat.

d. Irakaskuntza edo gizarte planteamentuei begira, badira, alde batetik, prestigiozko hizkeratzat batu hutsa proposatzen dabenak, bizkaiera erabilera arruntera mugaturik. Badira, baita, beste ertzean, batuaren kontrako erreazinoz edo, euskalkia bakarrik gura leukienak. Eta azkenez, badago multzo bat, bizkaieratik abiaturik, batuaren ezaguera osora joko leukienak.

(…)

AREJITA, Adolfo: "Euskera batua eta euskalkien arazoa hezkuntzan" *in* Euskara euskalkiak*, Eibar 85,* Eibarko udala, Eibar, 1986.

5. Atal hau bukatzeko, Gotzon Garateren artikulutxo bat irakurri beharko duzu: mendebaleko euskalkiari buruzko iritzi bat da, berriz ere, baina ikuspuntu desberdinez argitua. Ulertu, eta iradokitzen dizuna adieraz ezazu.

BIZKAIERA

Euskal Herriko zazpi probintzietako 22 baserritan nabil 27 urte honetan, hitzak, esamoldeak eta atsotitzak biltzen. Zuberoako Larrainetik hasi eta Bizkaiko Zeanuriraino. Bai zoragarria eguzkiz eguzki beti euskaraz egiten duten baserritarren euskara! Ez dago inongo euskara guttiesterik.

Halere, euskal egiturari begira (alderdi fonikoak eta lexikoak ez dute horrenbesteko inportantziarik) euskararik onena bizkaieraz egiten dela esan behar da. Batez ere Mondragoi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio, Oñati eta herri horien inguruetan.

Horko euskarak baditu bizkaieraren alderdi on guztiak eta horien gainetik beste batzuk. Beraxe da guttien erromanizatua den euskara.

Bizkaierak gipuzkerak baino askoz hobeto bereizten ditu:

Erreflexiboak (*neure, zeure...*), intensiboak (*neu, zeu...*), erakusleak (*adiskide maiteok*), konpletibak *-na / -la* (*etorri dana badaki/etorri dala esan du*), eta *–la/-nik* (*etorri dala usten dot/ Ez dot usten etorri danik*).

Konjuntzioak oso ederki ipintzen dira bizkaieraz azkenean:"*Nik ori ekarri arren*", "*Nik esan nion baña*", "*Nik esan nion barren!*" (= bai arren). "*Nahiz hori ekarri*" askoz erdaldunago da.

Bizkaieraz oso ederki bereizten dira *inor/beste*. *Inor* besteak orokorki da. Beste jazargoan erabiltzen da: "*Ori iñoren lepotik bizitzeko ona!*". "*Batzuk onak dira, besteak txarrak*".

Oso diferente dira bizkaieraz "*Etxe baten egon naz*" eta "*Etxe batean ondo eta bestean txarto*".

Bizkaieraz biziki ongi bereizten dira *bere/bera(re)n*. "*Amak bere umia maite dau. Bera(re)n aiztak ez*". Latinez ere horrela: "*Mater filium suut amat; illius soror non amat eum*".

Bizkaiera honen berezitasunak

Eta zer du Mondragoi-Oñati inguruetako euskarak beste tokietako bizkaierak, Markiñakoak, adibidez, ez duena?

Etengabe erabiltzen dituzten aditz-sustantibo moldeak. Moldeok antxinateko euskararen usain ona dute eta beste euskalki guztietan galdu egin dira.

"*Adiketan dot*", "*pentsaketan debe*", "*zainketan dogu*", "*ifinitzu esna beroketan*", "*alabetan dozu*", "*batonbatek bere burua abonetan badau*", "*asko kostetan dau*", "*gomutetan naz*" "*preguntien joaten da Erromara*" eta horien antzeko moldeak sustantibo moldeak dira. Beste tokitan "*aditzen dut*", "*pentsatzen dut*" "*asko kostatzen da*", "*preguntatuz*" esaten dugu. Gure moldeok erromanizatuago dira.

Sustantibo molde zahar horietatik guri banaka batzuk bakarrik gelditu zaizkigu: "*Urketan da*", "*Orrazketan dihardu*" eta abar.

Gauza bera esan liteke "*illunkeran*", "*ezkondukeran*", "*jokeran*" eta horien antzeko moldeez. Guk "*iluntzean*", "*jotzean*"... erabiltzen ditugu, molde erromanizatuagoak.

Mondragoi-Oñati inguruetako euskarak, beraz, Gipuzkoako alderdi onak, Bizkaiko molde paregabeak eta horietaz gainera eskualde horretan bakarrik aurkitzen diren berezitasun aberasgarriak ditu. Antzinateko euskara bikaina, zinez!

Batzuei belarrietarako azkar eta basati idurituko zaie. Amazonasko oihanak ere baratzetxo ongi zainduak baino zakarrago eta basago dira. Bai eta askoz zoragarriago ere.

GARATE, Gotzon: "Bizkaiera", *in* Euskaldunon Egunkaria, 1994-11-4.

EUSKARAREN ALDAERA ESTANDARRA: EUSKARA BATUA

Batuaren zergatikoak, zertarakoak, nolakoa

5

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

1. Gogora ezazu euskara batuari buruz dakizuna, adibidez:
   - Nork bultzatu zuen batua egitea eta zergatik?, noiz onartu zen?, non?
   - Batuaren auzian, euskara desberdina al da beste hizkuntzetatik?
2. Aldaera bat den aldetik, nola definitu zenuke batua eta haren corpusa? Galdetuko balizute ea batua ba ote datorren euskalki guztien nahastetik, zer erantzungo zenuke?
3. Corpusaren aldetik, zer eskasia izan dezake euskarak gaur egun?, zer da duen arazorik handiena?
4. Hitz hauen artean, zein hitz erabiliko zenuke euskara batuan, zein bultzatuko: *plaza* ala *enparantza*?; *kantu, eresi* ala *abesti*?; *akeita* ala *kafea*? Eman arrazoiak.
5. Ibon Sarasolak emandako adibide bat: “Udaletxe edo bankuetan, batean “bigarren solairuan” jartzen du, bestean, “bigarren oinean” edo “bigarren estaian” edo “bigarren bizitzan”, eta beste nonbait ikus daiteke, bestalde, “bigarren mailan” edo “zoruan” edo “bigarren pisuan”.

   Toki berean, zer jarriko luke gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez? Konpara ezazu euskararekin. Sinonimia ez al da ona?

ARGI DEZAGUN AUZIA

Hizkuntza bat sobera desberdintzen den unetik, hau da, zatikatze gehiegizkoa gertatzen baldin bada bere baitan, erabiltzaileek komunikatzeko oztopoak izaten dituzte. Hori dela eta, komunikazioaz kezkatzen direnak (arrazoi bat edo beste dela kausa) hizkuntza bateratuago baten beharra sentitu ohi dute. Sentitze horren ondorioz hasten dira komunzki hizkuntza batuago bat eragiteko saioak

Euskal Herrian, hasiera-hasieratik, euskal idazleak ohartu ziren beren ezintasunaz eta batuaren beharraz. Hain zuzen, literatura egiterakoan irakurleak gogoan zituztelako, beren idatziak hedatu nahi zituztelako, bazekiten norberaren euskalkian idazten zutena nekez egingo zitzaiela ulergarri beste euskalkietako irakurleei. Horren kariaz aipatu ohi da idazle bizkaitarrak besteak baino sutsuago jarri zirela forma idatzi bateratu bat onartzearen alde. Alabaina, bazekiten mendebaleko euskaraz idazteak ulermen eta komunikazio-arazo handia sortzen zuela, beren euskalkia aski desberdindua ikusten baitzuten beste euskaltietatik, eta pentsatzen zuten hala jarraituz gero haien obrak eremu txiki batean baizik ez zirela irakurriko. Horixe dugu, bidenabar, idazle bizkaitarrak bereziki euskara batuaren alde egon izanaren arrazoia.

Gerora, XX. mendearen erdialdetik aurrera, literaturan ez ezik, gainerako alorretan ere sortu zen aldaera bateratu baten beharra. Hegoaldean, euskararen erabilera gero eta eskasagoa zen, hiztun kopurua behera etorria zen, eta horren aurrean, hizkuntza salbatzeko ekimenak hasi ziren: eskolan, hedabideetan eta administrazioan sarrarazi nahi zen euskara, haren erabilera bultzatu eta normalizatu. Gogoan hartu garai hartan hasi zela euskaldun berrien oldea, eta haiek eskolatu behar zirela. Hortaz, zer euskara mota behar zen erabili, zein bultzatu, zein irakatsi? Arlo guztietan, betebehar berriei erantzun behar zien aldaera baten beharra ernatu zen.

Premia horren ondorioz, 1968an, Euskaltzaindia ofizialki deklaratu zen batasunaren alde, eta Arantzazun egin zen erabakia finkatzeko biltzarra. Harez geroztik, toki eta data horiek erreferentzia garrantzitsuak dira gure hizkuntzaren historian. .

Ikasgai honetan, batua egiteko arrazoiak argi uzteaz gain, beste hizkuntzetako estandarrekin konparatuko dugu euskara batua, zein eredu bultzatu zen eta nondik hasi zen corpusa batzen ere azalduko dugu.

Bestalde, euskara batuaren hiztegiaren inguruan dauden kezkak aipatuko ditugu. Hain zuzen, hasiera-hasieratik hiztegiaren auziari buruz pentsa dezazun ekarri ditugu *plaza*, *kantu* eta *kafe* hitzen adibidea; horien ordez, *enparantza*, *abesti,* eta *akeita* bultzatu izan du zenbaitek. Besteak beste, Larramendi, Azkue eta Sabino Arana aipatzen dira hitz horien eta beste hainbaten jatorria azaltzerakoan. Aita Villasantek ondo argitu duenez, ordea, gainerako irizpideen gainetik, batez ere *euskara anti-erdara*[6] bat lehenetsi eta egin nahi izan zen garai hartan, eta irizpide horren izenean oker asko egin zen. Joera hori zuzendurik dago gaur egun, baina baditugu beste oztopo batzuk: zer dela-eta gainerako hizkuntzetan hitz bakar batez izendatzen den tokia (gaztelaniaz *primera planta*, frantsesez *premier étage* edo ingelesez *first floor*) hainbeste hitzez izendatzea euskaraz? Gaur egun, euskara batuak hiztegi arloan du seguruenez premiarik handiena; hala adierazi du Ibon Sarasolak:

> *… baina hizkuntza bizi gisa duen etorkizuna alde batera utzirik, aipatu berri dudan* ***euskararen eguneratze eta gaitze hori da euskaldunok esku artean dugun arazorik larriena…*** *une honetan, batasun prozesuaren ildoan ortografia eta morfologia aski finkatuak ditugunean, eta gramatika arloan lan erabakigarria egiten ari garenean, beharrezkoa du Euskaltzaindiak euskal hiztegiari buruz ditugun ikuspuntu, jokaera eta jarrera kontrajarriei buruz gogoetan sakona egitea. Izan ere, hiztegiaren aldetik nahaste eta sakabanatze izugarria nabari daiteke nonahi…*[7]

Bereziki landuko dugu azken gai hori.

[6] VILLASANTE, Luis*: Euskararen auziaz*. " Luis Eleizalde" saila euskara idatziaren batasunaz 9. liburukia, Estella , 1988, 67.or.

[7] SARASOLA, Ibon: *Euskara Batuaren ajeak*, Alberdania, Irun, 1997, 184-185 or.

IKAS DEZAGUN

Batua egiteko arrazoiak

Euskararen orduko egoerari erantzunez (1968aren inguruan) azaldu ziren euskara batua osatzen hasteko arrazoiak:

- Bateratzen ez den hizkuntza, desagertzera kondenatua delako:

> *Ezinbestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea.*[8]

Arantzazuko batzarrean irakurritako txostenean, argudio horixe erabili zen lehen-lehenik erakusteko Euskaltzaindiaren erabakiak garrantzi gorenekoa zuela eta bateratzeko erabaki horrek ezin zuela atzerabiderik izan, euskara biziko bazen

Hizkuntza irakasteko kode eta eredu bakarra beharrezkoak direlako:

> *Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea.*[9]

Garai hartan hazi zen ikastolen kopurua, eta gero eta ikasketa-maila altuagoak ematen hasi ziren euskaraz. Eskola-materialen beharra zekarren horrek, eta material horiek euskaraz egin behar ziren hain zuzen ere.

- Zientziaren ekarria nonbait txertatzekotan, eredu batua behar delako garatu.

Pentsa dezagun 70. hamarkadan bizimoldea arras aldatzen ari zela. Euskara baserri-munduan erabili zen gehienbat ordura arte, baina hiztunak industrializazioan eta hiriko bizimoduan sartzen hasi zirelako, irautekotan, hizkuntzak modernizatu behar zuen. Ez zirudien oso praktikoa terminologia berria euskalkietan txertatzea; eredu batuan txertatzea errazagoa eta funtzionalagoa zen, bistan denez.

Euskara batua osatzeko arrazoi nagusiak zehaztearekin batera,, behin eta berriz azpimarratu behar dugu hizkuntzaren batasunaz kezkatu eta arduratu zirenek **hizkuntza idatzia** zutela helburu:

[8] MITXELENA, Koldo: *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Mensajero, Bilbao, 1972, 95. or.

[9] MITXELENA, Koldo: *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, *Mensajero,* Bilbao, 1972, 95.or.

Hizkuntza batuaren eredu hori izkribuz erabiltzeko da, noski, gero aho-hizkuntza bihur baledi ere.

Badirudi, batzuentzat, guk zera bilatzen dugula: halako hizkera apain eta goitar bat, goi mailako gauzak idatzi behar direnerako. Eta ez. Askoz ere apalagoa eta arruntagoa da gure zeregina. Hizkera standard eta arrunt bat, akordioz eta konbentzioz bateratua eta berdina bihurtua, batez ere irakaskuntzan eta idatzizko zereginetan erabiltzeko: horra zer nahi dugun. Euskara hizkuntzak, alegia, eduki dezala forma bat bateratua, irakaskuntza eta idatzizko zereginetan batez ere erabilia izateko. [10]

Berebiziko garrantzia du ideia hori ongi ulertzeak, alegia, batua osatzeko egindako ahaleginek hizkuntza idatzia osatzea zutela helburu. Nehola ez, euskal hiztunen ahozkoa beste kode batez ordezkatzea. Batua funtzio idatzirako sortu zen. Hala ere, euskararik ez zen tokietan, hau da, euskara galdutako eremuetan, mintzatzeko eredu ere bihurtu zen batua. Gasteizen, Tuteran edo Bilbon, adibidez, euskalkirik ez zuten haur eta helduentzat, euskara batuak ezinbestean bi funtzio bete ditu, beraz, idatzia eta ahozkoa. Egun ere bai. Gisa horretan *batu mintzatuaz* ere hitz egin behar genuke.

Estandarra eta beste hizkuntzen adibideak

Aldaera estandarra da komunitate bateko hiztun guztiek haien artean komunikatzeko erabil dezaketen kode komuna, hiztun bakoitzak izan ditzakeen beste aldaeren gainetik. Garai batean, besterik ezean, literatura-aldaerak hartzen ziren estandar gisa.

Gaur egun, aldaera estandarra eskolan eta erabilpen publiko zabaletan erabili ohi da gehienbat, gizarte-funtzio komun eta formaltasun-egoera altuetan. Nazioarteko harremanetarako ere aldaera hori erabiltzen da; berea ez den beste hizkuntza bat ikasi nahi duenak ere, komunzki, estandarra ikasiko du. Argi dago, euskaraz, batuak betetzen duela hizkuntza estandarraren funtzioa..

Gurean bezala eta gurean baino lehenago, beste hizkuntzetan ere bada funtzio-banaketa hori. Txinan, adibidez, eskualdeen arteko desberdintasun handiak dira hizkuntzan. Hain eremu zabala izanik, badirudi iparraldeko txinatarrek eta hegoaldekoek ez dutela mintzatuan elkar ulertzen. Hala ere, badute aspaldian funtzio estandarra betetzen duen hizkera batua, *mandarina* deitzen dena. Eskolan irakasten dute mandarina, eta hari esker ahalbidetzen da eskolatu guztiek elkar ulertzea. Txinera ikasi nahi duenak ere, mandarina ikasiko du komunzki. Beste hainbeste esan daiteke arabieraz ere. Arabiera hain dago zabaldua eta zatikatua, ezen arabiarrek haien artean komunikatzeko estandarrari heltzen diote, arabiera literalari alegia.

Hori, ordea, ez da hizkuntza-erresuma zabaletan bakarrik gertatzen. Alemana bezalako kasuan, adibidez, aldaera geografiko asko bizi dira ahozkoan, baina eskolan, hedabideetan eta administrazioan aleman batua erabiltzen da.

Jabe gaitezen, hortaz, euskara estandar baten sortzea ez dela batere gauza berezia izan, ezpada gainerako hizkuntza normalizatuen parean jartzeko urratsa.

[10] VILLASANTE, Luis: Euskaltzaindiaren Biltzarra, Bergara, 1978.

Zer eredu hartu euskara batua egiteko?

Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinarritzat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko [11] esan zuen Koldo Mitxelenak batua egiteko erabakia hartu zenean. Esaldi horretan oinarrituz, pentsa liteke aldaera geografikoak izan behar dutela estandarraren oinarri. Eta bat aukeratu beharra dagoela. Baina, zergatik? Bide bakarra ote da hori?

Beste hizkuntza batzuetan ere, estandarraren auzia erabakitzeko, nonbaitetik abiatu behar hori trenkatu behar izan dute lehen-lehenik. Bi jokamolde nabarmendu dira gainerako hizkuntzetan:

Bata, hiriburuaren aldaera mintzatua hautatzea forma estandar gisa. Adibidez, hainbeste zabaldu zen latina, funtsean, Erromako hizkera mintzatua besterik ez zen. Aldaera hori igaro zen idatzira eta hori zuten irakasten. Jarrera bera nagusitu zen Frantzian: Pariseko hizkera mintzatua da frantses estandarra. Katalan estandarrak ere Bartzelonako hizkera du oinarrian. Gaztelaniaren kasuan antzeko jarrera hartu da, hiriburuaren ordez, eskualde bateko hizkera bultzatu baita: Gaztelakoa, zuen prestigioagatik.

Bestea, literatura-ereduak jarraitzea estandarra finkatzeko. Italierak, adibidez, Toscana eskualdeko mintzaira du oinarrian, baina XIV. mendeko idazleek ospea eman ziotelako aldaera horri. Alemanian, Luterok itzulitako Biblia da estandarraren oinarria, hau da, XV-XVI. mendeetako literatura-eredu bat. Antzera gertatu da arabieran, Mahomaren Korana hartu baitzuten idatzirako eredutzat.

Eta, euskaraz? Gainerako hizkuntzetan hartutako bideek ez zuten bete-betean soluzio egokirik eskaintzen. Euskal Herrian ez zen osorik euskalduna zen hiribururik; alderantziz, euskarak bizitza ahula zuen hirietan. Euskalki literarioei begira, berriz, baziren idazle handiei jarraituz lapurtera klasikoaren alde egiten zutenak, baina gipuzkera osotuaren aldeko proposamenak ere baziren. Horregatik, Euskaltzaindiak egokiago ikusi zuen faktore gehiago kontuan hartzea: literaturari begiratzeaz gainera, euskal gizartean hizkuntzak non zuen indarra ere begiratu zuen. Euskararen erabilera, hiztunen kopurua eta literatura izan ziren, hortaz, aukeraren eragile nagusiak. Ondorioz hartutako erabakia hauxe izan zen: batuak gipuzkera-nafarrera ereduen erdibide antzekoa izan beharko zuen, lapurteraren kutsuarekin.

Nondik hasi eta zer finkatu euskara batua egiteko?

Arantzazun hasi eta hamar urte beranduago ospatu zen Bergarako Biltzarraren tarte horretan ekin zion Euskaltzaindiak hizkuntzaren batasun lanari Ez zen eginkizun erraza suertatu; eztabaida gogor eta istiluak erruz gertatu ziren, honoko edo halako erabakia ez baitzuen jende guztiak begi onez ikusten. Hala ere, Arantzazun egindako proposamenak berretsi ziren Bergaran, hamar urteko ibilbidean sortutako jarrera positiboak onetsarazi baitzuen Euskaltzaindiak itxuratutako euskararen batasuna.

Ortografiaren batasuna egin zen lehen-lehenik. Hizkuntza guztietan hortik hasten da batasun prozesua, idatzirako ezinbestekoa delako eta errazena ere badelako. H letra zela eta, buruhauste asko sortu ziren. Hegoaldean ahoskatzen ez zen aspirazioa, iparraldean bizi-bizirik zegoen, hasierako eta bokale arteko h hutsak ez ezik, baita kontsonante leherkarien ondotik ere, *ph*, *th*, eta *kh* ahoskatzen baitziren. Bustiduraren kontuarena ere ez zen aise erabaki, hau da, idatzian markatu behar zen ala ez.

[11] MITXELENA, Koldo: *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Mensajero, Bilbao, 1972, 96. or.

Gramatika alorrean deklinabidea eta aditza izan ziren batasunaren bi zutabeak. Gipuzkeraren indarrak (hiztunen kopuruak eta literaturaren erabilerak) biziki eragin zuen bereziki erdialdeko aditz laguntzailearen sistema hautatzeko. Beharrezkoa zen aukeratzea, baina aitortu behar da aditz-eredu hori urruna zela mendebaleko hiztunentzat.

Hiztegiari dagokionez, oso interesgarria da konturatzea ez zela erabaki finkorik hartu, baina bai garaiko joera desegoki batzuk mugatu. Batetik, garbizalekeriari aurre egin nahi zitzaion, eta bestetik, erdararen eraginez nolanahi sartzen ziren hitz berri horiei arrasta jarri. Hori dela eta, euskararen hitzak egiazki zein ziren bereizi nahi izan zuen Euskaltzaindiak, hiru irizpide bultzatuz:

1. Garbizalekeriaz sortutako hitz berriak baztertu
2. Tradiziorik ez zuten hitzak eta euskara ulergaitza bihurtzen zutenak baztertu
3. Euskarazko hitza zegoen tokian, kanpoko hitza ez sartu.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

Euskara batua eratzeak hainbat kezka eta eztabaida eragin du bere sorreratik geroz. Gaur egun hasierako abiapuntua neurri handi batean onartu da, baina batua oraindik egiten ari denez, irizpideak zorroztu behar dira aldaera egokia osatu nahi bada. Ardura hori gogoan idatzi du Ibon Sarasolak *Euskara Batuaren ajeak*, eta liburu hori hartuko dugu oraingoan langaitzat.

Hasteko, liburuaren tituluan arreta jarriko duzu eta hitzaurrea irakurriko.

Liburuan den “Erdararen erasoa euskal kazetagintzan” (1990) artikulua ere irakurri beharko duzu, eta laburtu.

Aipaturiko bi irakurketa horiei buruzko galderak erantzun beharko dituzu gero, liburuaren funtsa ondo ezagutzeko eta ulertzeko gisan.

Azkenean, I. Sarasolak egindako hitz-proposamen zehatzei helduko diegu, ariketa batzuen bitartez.

Hona, guztia, puntuz puntu:

1. Zer esan nahi du liburuaren tituluak?

2. *Liburu hau irakurri nahi duenak irakurri behar duen HITZAURREA* ulertu ondoren esan:

- Zer lortu nahi du Ibon Sarasolak liburuaren bidez?
- Zer falta zaio liburuaren tituluari zuzenagoa izateko?
- Zer esan nahi du *euskarak bi euskalki ditu*ela?
- Liburuan egingo diren hitz-proposamenak, non erabili behar dira?; noiznahi erabili behar dira?

3. “Erdararen erasoa euskal kazetagintzan” artikuluaren arabera:

- Zein mailatakoak dira, Ibon Sarasolaren iritziz, egiten diren erdarakadarik larrienak?
- Erdararen erasoa bi aldetatik omen da kaltegarria. Azaldu labur.

- *Loterian irabaziz gero, txalet bat erosiko nuke Bizkaiko kostaldean*. Ba al dago arrazoirik *txalet* hitza ez dela egokia esateko?
- *Matrimonioa kontsumatzetik matrimonioa kontsumitzera, urte eta erdi eskas joan zen*. Ibon Sarasolak gaitzesten duen ipuin baten sarrera da hori, alta, idazle ezagun batek idatzia: haren iritziz, *eskualde-literatura ("regionala"), ez nazionala* omen da. Zergatik?
- Espainolaren erasoa gainditzeko bideak, zein izan daitezke? Nork egin behar luke horri buruzko plangintza?

4. ARIKETA:

Idatziz, zein hitz erabiliko zenuke? Ondoan, gaztelaniazko hitza idatz ezazu. Ondoren esan nola justifikatzen duen Ibon Sarasolak kasu bakoitzean egiten duen aukera ?

- *aldaki* ala *aldaera*
- *amankomunean* ala *komunean*
- *angustia* ala *larrimina*
- *janari azkarra* ala *lasterra*
- *bileran dago* ala *bilduta dago*
- *biolin* ala *bibolin*
- *inguramen* ala *ingurugiro*
- *kirofanoa* ala *ebakuntza gela*
- *rugby* ala *errugbi*
- *zaletu* ala *zale*

Honako hitz hauen inguruan, berriz, zer dio? Zer proposatzen du?

- *bonboi*
- *futbolin*
- *jakitera eman*
- *klabikula*
- *luzemetrai*
- *magisteritza*
- *manilar*
- *marko*
- *motxila*
- *noski baietz*
- *tindategi*
- *txikle*

Ariketa bukaeran, hitz bat ala bestearen artean aukeratzeko agertu diren irizpide guztiak ondorioztatuko dituzu eta horien zerrenda idatziz jarriko.

EUSKARAREN ALDAERA ESTANDARRA: EUSKARA BATUA (II)

Batuaren ibilbidea, batua eta euskalkiak irakaskuntzan

6

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

1. Demagun irakasle-lanpostua Ondarroan ematen zaizula; edo Lesakan; edo Barakaldon. Aukera ezazu. Irudika itzazu, gainera, eskola-maila bateko ikasleak, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan. Zehaztu maila.

   Hizkuntza-aldaerei dagokienez, tokian-tokian moldatuz jokatuko zenuke ala denetan jarrera finko bera hartuko zenuke? Zehaztu, batetik, zein izango litzatekeen zuk erabiliko zenukeen hizkuntza-aldaera, eta, bestetik, zer jokaera izango zenukeen ikasleen aldaerari buruz.

2. Ados al zaude baieztapen honekin?

> *Euskara batuaren izaerara bagatoz, ulergaitza da "Berbaz hasi ziren" euskalkikotzat jotzea eta baturako "Hizketan hasi ziren" ipintzea.*[12]

Aurkeztu ezazu oinarri bat zure ikuspuntua defendatzeko.

ARGI DEZAGUN AUZIA

Euskaraz formatu den irakasleak euskaraz lan egiteko prestatua behar du. Gaur egun, irakasle-tituluaz gain, EGA izatea eskatzen zaio, eta horixe da lan-merkatuan sartzeko baldintza. Aipatutako bi titulu horien jabe izanez gero, irakasle berriak berdin lortuko du lana eremu euskalduneko eskualde batean, zein erdal eremuko eskoletan: Ondarroan, Lesakan, zein Barakaldon, beraz. Euskararen errealitatea ezagutzen dugunez, ordea, badakigu batetik bestera alde handiak direla; hala ere, lana ematean, ez da lanpostuari dagokion errealitate soziolinguistikoa bereizten.

Irakasle berriak hartzen dituen ikasleak erdal jatorrikoak izan daitezke; euskaldunak badira, berriz, euskararen aldaera desberdinen jabe izan daitezke . Euskara batu eraginkor baten jabe, edo ez. Euskalki bat hitz egiten den eremuetan, baliteke euskalki hori batutik hurbila izatea, baliteke diferentea izatea. Baliteke gehiengo baten euskalki indartsua izatea ikasleen euskalkia, baliteke hain

[12] GOIKOETXEA, Juan Luis: "Euskal diglosia irazia eta irakaskuntza esanguratsua euskalkia eskolaratzeko" *in* ASKOREN ARTEAN: *Euskalkia eta Hezkuntza*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 2001, 164. or.

erabilia ez izatea. Eta baliteke, bestalde, irakaslearen aldaerak eta laneko tokikoak diferenteak izatea. Faktore horiek kontuan hartuta, nola jokatu behar du irakasleak? Nola antolatu eskolan euskalkien eta batuaren erabilera eta irakaskuntza?

Onenean, baliteke ikastetxean erabakita izatea zein jokabide hartu behar duten irakasleek ikasleen aldaerei begira. Hala bada, hobe; tamalez, gehienetan, errealitate hori ez da ia aipatzen, irakasle bakoitzaren uste eta intuizioen menpe utzi ohi da. Hala ere, Euskaltzaindiak plazaratua ditu hainbat irizpide eta gomendio orokor, batuaren eta euskalkien erabileraz. Hona horietako bat:

> *Umeei dagokienez, Euskal Herriko haurren jatorrizko hizkuntza aintzat hartuta -betiere helburua euskaldun osoak sortzea izanik-, metodoaren aldetik, hots, ikasgela eta ikas-multzo berean jardunik, guztiz mesedegarria da haurren hizkuntza-gaitasunaren araberako jardunbideak lantzea.*[13]

Auzia, beraz, euskararen errealitate era askotarikoari lotua da, eta errealitate bakoitzak soluzio egokitua behar luke. Irizpide orokorrak aski ez, eta badira gaur egun irakaskuntzan euskararen aldaeren lekua zehatzago definitzeaz kezkatzen direnak. Horiei jarraikiz eztabaidatu eta erabaki behar lukete ikastetxeek eta irakasleek zer irizpide eta jokabide hartu, eta toki bakoitzean adostu eta planifikatu nola erabili batua eta euskalkiak irakaskuntzan. Horixe duzu 6. atal honen lehen gai garrantzitsua.

Bestalde, jarri dugun bigarren puntuan, Jose Luis Goikoetxeak *berbaz* eta *hizketan* alderatzen ditu; ez dago ados bata euskalkitzat jotzeko eta bestea batutzat. Egia da *berbaz* mendebaleko euskararekin lotu ohi dugula; egia ere bada, ez dugula *hizketan* euskalki zehatz batekin lotzen. Haatik, hortik euskalkia/batua bereizketa horrela eratzera, bada urrats sakon bat, ezen, uste horren arabera, *hizketan* bai, baina *berbaz* ez litzateke batua; hori da Juan Luis Goikoetxeak salatzen duena. Kontura gaitezen, bada, batuaren hiztegiaren ulertze-modua dagoela hor jokoan: zein hitz da euskalkikoa, zein da euskara batukoa? Zer oinarri dugu baieztapen mota horiek egiteko? Ez al zuen Euskaltzaindiak zerbait erabaki horren inguruan? Horren arabera jokatzen al dugu idaztean, izan hiztun soil, edo idazle, edo irakasle? Zer jotzen dugu batutzat, zer ez?

Juan Luis Goikoetxeak emandako adibide bertsuak agertzen dituzte beste askok ere gaur egun; seinale, ondo trenkatu gabeko zerbaitekin egiten dela topo praktikara jotzean, eta komeni da, beraz, euskara batuaren izaeraren puntu hori berrartzea. Irakaslea izanik, zer esanik ez.

IKAS DEZAGUN

Batuaren tokia eta erabilera: estandarraren hastapena

Badakigu euskara estandarraren aurretik hiztunek berek, modu naturalez, funtzio komun hori betetzeko, euskalki prestigiodunak erabiltzeko joera zutela: apaizek predikua egiteko, adibidez, edo garaiko

[13] EUSKALTZAINDIA: *Adierazpena. Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan.*Euskaltzaindia.net. 2004/03/26

kazeta edo aldizkari bakanetan idazteko. Batuaren sorrerarekin, hortaz, eta denbora berean euskarak eskolan eta hedabideetan tokia hartzean, ezinbestez berregituratu ziren euskararen aldaeren funtzioak; batuak estandarrarena betetzera jo zuen.

Ez dira, ordea, gauzak hain sinpleak, eta gaizki ulertua sortu zen euskara batuak hartu behar zuen tokiaz. Hasteko, askok ez zuen ulertu batua idatzirako apailatzen ari zela. Aitzitik, euskararen aldaera berri hau eredu bakar gisa hartu zen, idatzirako zein ahozkorako ere, euskaldun berri zein euskaldun zaharrek erabili beharrekoa, baldin eta euskara *salbatu* nahi bazen. Joera hori ulertzeko, orduko giroari begiratuko diogu.

Hasteko, Euskaltzaindiak eta bere laguntzaileek kemen handiz ekin zioten batuaren eginkizunari, gramatika-proposamenak eta lehen erabakiak zabalduz. Orduko kezka nagusia zelako, euskaltzale eta euskararen profesional askok batua euskara bakartzat bultzatu behar zela uste zuten.

Bestetik, esparru pribatuetatik esparru publikora pasatzean, prestigioa irabazten hasi zen euskara euskaldunen begietara: euskara batua, noski. Hedabideek, hain zuzen estandarra baitzuten beharrezko, batua aupatzen zuten. ETBren eskutik prestigioz jantzi zen euskara batua, eta euskalkiak itzalean gelditu. Eta horrek ere eragin zuen jende arruntaren uste eta jarreretan.

Azkenik, eskolak ere eragin zuen gaitz-ulertu horretan. Eskolak bazuen estandarraren beharra, eta ulergarria zen batuari toki egitea. Hala ere, ez zen hizkuntzaren funtzioez behar bezalako gogoeta egin, eta hor ere, joera makurrak bizkortu ziren. Gehiago oraindik, esan liteke eskolak bereziki indartu zituela euskaldun arruntek maiz zituzten iritzi okerrak. Hona nola:

- Garai hartan jende ez-ikasi eta ikasien artean ere, uste zabaldua zen ahozko hizkuntza ez zela ona (*gaizki hitz egiten da)*. Funtsean, eskolak ere ideia bera helarazten zuen: orduko hizkuntzalaritzan hizkuntza idatzia zen kontsidera zitekeen bakarra, irakats zitekeena, estatus osoa zuena, eta ahozkoa haren desbideraketatzat jotzen zen eta bazterrean utzi. Ez ziren ahozko didaktika eta idatziarena bereizten. Idatzia zen eredua. Horrek nekez lagun zezakeen euskara batua behar zen lekuan kokatzen, idatzizko erregistroan alegia, eta bizirik zen euskarari ahozkorako tokia uzten. Gaur egun, hizkuntza irakastean, biak hartu nahi dira aintzakotzat, bakoitzak bere funtzioa duela.

- Guraso euskaldunentzat, berez eskolako hizkuntza etxekoa baino hobea zen. Eskolak, berriz ere, uste hori indartu zuen: eskola-ereduak agindu behar zuen eta maiz *euskara bizia* saihesten zen. Euskaldun berriei begira, gainera, eredu sinplea behar zen, ikasteko erraza. Irakasle asko deseroso sentitzen zen euskalkia zerabiltenekin, euskalkia eskolatik kanpo utzi ohi zen. Euskara batua bihurtzen zen eskolako aldaera bakarra, eta euskara eskolan irakasten zenez, guraso askok ez zuen arreta berezirik jartzen etxeko euskaran: hizkuntza-transmisioa ahultzen zen ondorioz.

- Alfabetatu gabe zeuden euskaldunak, jakitate faltan, uzkur ziren beste euskalki baten edo batuaren desberdintasunen aurrean. Alderik txikienak ere komunikazio-arazo bihurtzerainoko sentsazioa eragiten zuen halako hiztunengan; norberarena ez zen hizkera iluna, urruna eta ezin ulertua bilakatzen zitzaion hiztunari. Euskal Telebistako euskarak, adibidez, saminak eta suminak eragin zituen betiko euskaldun zahar askorengan. Eskolak ez zuen hori arindu, alderantziz baizik: zubiak egin beharrean, muturreko joerak hartu ziren hainbatean. Ikastetxe batzuek, aurretik aipatu dugun bezala, batuaren izenean etxekoa

baztertzen zuten; beste batzuek, alderantziz, jarrera txaubinistak hartu zituzten, batuaren kontra eta tokiko euskalkia bakarrik indartu nahiz, ahozkoan eta idatzian.

Jadanik ikusi dugunez, euskara batuaren aurretik baziren euskararen erabilera kaltetu zuten prestigio kontuak. Euskalki guztiak ez ziren berdin estimatuak. Orain azaldu bezala, gainera, batuaren agerpenarekin ez zen egoera hori konpondu, ez zen arazoa onera ekarri. Esparru nagusietan, batua bihurtu zen prestigio guztiaren jabe. Hori dela eta, desoreka areagotu zela esan daiteke, batez ere aldaera batzuen kaltetan. Mendebaleko euskalkiena izan zen kasurik mingarriena, eta hori ulertzeko, bi garaiotako arrazoiak gehitu behar ditugu:

1. Euskalki literarioen garaian, antolatutako hierarkiaren azpian kokatua zen mendebaleko euskara.

2. Estandarra osatzeko garaian, bazter utzia bezala izan da mendebaleko euskara. Izan ere, baturako onartu zen ereduari begiratuz gero, alegia, gipuzkera-nafarrera lapurteraren kutsuarekin, ikusten da estandarra eredu urruna zela mendebaleko hiztunentzat. Gainera, euskara estandarraren hasiera beretik, Gipuzkoan izan da indarrik gehiena (ikastolen kopuru handia, euskal liburuen zabalpen handia, gipuzkoar asko hedabideetako protagonista), eta erabileraren poderioz, gainerako euskalkienak baino gehiago, euskalki horren ezaugarriak txertatu dira euskara batuan.

Historian bigarren aldikoz, hortaz, prestigio gabe edo prestigiotik urrun kokatu zen mendebaleko hiztunen euskalkia. Hori dela eta, aise uler daiteke oztopo eta aurreiritzi desegoki ugari egotea euskararen zenbait eremutan. Eta horrekin, lotsa edo gutxiagotasun konplexuak.

Aldaera estandarra eskolan: gaur eta etorkizunari begira

Gaur egun, ibilbide luze samarra egina du euskararen aldaera estandarrak. Hasierako asmoak hobeki ulertu dira, eta estandarraren corpusa ere osatuz joan da. Aipatutako jarrera txarrak eta desegokitasunak gertatu arren, baiezta daiteke onuragarria izan dela euskara batuaren sortzea euskararen bizitzarako. Hari esker ahalbidetu da hiztun guztien arteko komunikazio errazagoa, eta maila formal eta publikoan jarduteko tresna sendoa lortu da. Horiek ziren, hain zuzen, euskararen estandarra sortzean jarri ziren helburuak. Batuari esker, euskarak baliagarritasuna eta duintasuna eskuratu ditu.

Ez dezagun ahantz, hala ere, euskara oraino normalizatze bidean dela. Horregatik, sendotze ahaleginetan ez ezik, oreka bila ere jarraitzen du estandarrak. Batzuen iritziz, euskara batua goi-mailako eredu bakarra behar luke eta euskalkiak maila apalagoko aldaerak lirateke, haren aitzinean makurtu eta poliki-poliki amore eman behar luketenak. Iritzi horren beste aldera, euskalkiaren aldeko mugimendu batzuk piztu dira gaur, ahozkoan ez ezik, euskalkia osorik indartu nahi luketenak, bai eta maila idatzirako prestatu ere. Artean, tarteko jarrerak, batuaren eta gainerako aldaeren arteko harreman orekatuaren alde.

Ez da txikia eskolak duen ardura auzi horretan, eta hasierako jarrera ez-egokiak gainditzeko bidean, irakasleek bereganatu behar lituzkete kezka horiek, eginbeharretan lagundu. Ikastetxeetan hainbat gairen gainean eztabaidatu eta gogoeta egiten den bezala, beste hainbeste merezi du hizkuntzak ere, estandarrak eta euskalkiek irakaskuntzan duten tokiaz eta markatu beharreko ildoez.

Eskola-proiektuak eta plangintzetarako oinarriak Euskaltzaindiak jarritako helburuak eta bideak kontuan ditugula finkatu behar lirateke, eta gaurko egunean gai hori jorratzen dutenen ideiez aberastu ikus-

moldea. Gainera, ez dezagun ahantz hizkuntzaren didaktikak dioenarekin uztartu beharra dagoela hori guztia.

Batua eta euskalkiak irakaskuntzan: proposamenak

Euskara batua, Euskaltzaindiak adierazi zuen moduan, zeregin komunetarako eta batez ere idatzirako sortu zen. Ez luke zertan, hortaz, euskara bizirik den tokietan, ahozko euskara ordezkatu. Oinarrizko printzipio hau irakaskuntza-praktikara daramagunean, hala ere, bideak ez dira hain agerikoak. Ezen eta ahozkoa diogunean, zer toki du ahozkoak eskolan, zer balio ematen zaio? Euskara bizi hori, non eta noiz landu daiteke eskolan? Bestalde, batua deitzen dugunaren barnean, idatzi gisa landu beharreko horretan, zer sartzen den, zer ez, argitu behar dugu. Batua beti bera eta bakarra al da leku guztietan? Hala erabaki al du Euskaltzaindiak? Edo zilegi da pentsatzea ez direla Donapaleuko ikaslearen batua, batu idatzia, eta baztandar batena guztiz bat? Nolako batuaz idatziko du Gasteizko ikasleak, nolako batua erabiliko du Gernikakoak edo Doneztebekoak?

Azken urte hauetan modu horretako arrangurak azaleratu dira. Kexuak, erantzunak eta proposamenak erdiko euskaretatik urrun diren euskaldunengandik edo prestigio falta pairatu duten eskualdeetatik etorri dira gehienik. Alabaina, Zuberoako ikastola txiki bateko irakasleak, demagun, litekeen *Euskaltzaindia-zale* zintzoena izanda ere, begien bistako du haur zuberotarrek etxetik dakarten euskara eta euskal hedabide edo testu-liburu orokorretarik heltzen zaien euskara batua arras diferenteak direla. Nola irakatsi batu hori, etxeko aldaerarekiko leialtasuna atxikiz? Zein hitz aukeratu? Kontraesan berberak etortzen zaizkio Bizkaiko kostan lan egiten duen irakasleari. Zer egin orduan?

Zentzu onez joka daiteke beti, baina harago joan eta ez litzateke gaizki tarte hori gainditzeko estrategia ongi funtsatuak, guztiontzat baliagarriak, itxuratzea. Arras interesgarriak dira gaur egun horren kariaz abiatuak diren taldeen eta bakarkakoen gogoetak, esperientzia eta proposamen teorikoak. Aipa ditzagun, besteak beste, Mendebalde Elkartearen lana eta Julian Maiaren tesi-lana (*Eskolako hizkera ereduaz*) irakaskuntzari lotutako proposamenetan, eta Koldo Zuazoren ekarriak, orokorragoak.

Suertez, gainera, azken urteotako hizkuntza zientziek, Euskal Herriko hegoaldean burutu den Irakaskuntza Erreformak eta horretarako prestatu diren hizkuntza-curriculum berriek izugarri eragin dute hizkuntzaren didaktika hobeki argitzen. Teorian, hizkuntza-aldaerak hobeki desberdintzen dira dagoeneko, eta aintzakotzat hartzen. Bestalde, ikaskuntza-mekanismoak, bai eta hizkuntzaren jabekuntza-prozesuak ere, ezagunagoak dira gaur. Programa eleanitz egokiak diseinatzeko gauza ere bagara. Ezagupen hauek guztiak tresna onak dira euskalkien eta euskara batuaren arteko harreman orekatsua bideratu nahi duten irakasleentzat.

LEHEN PROPOSAMEN ILDOA

Haur Hezkuntzan, ama-hizkuntza euskalkia denean: ahozko hizkuntza, atxikitze-programen printzipioa, ikaste esanguratsua eta hizkuntzaren jabekuntzarako estrategiak

Haurraren hizkuntza-aldaera euskalki bat denean, askoren ustez, irakaskuntzak ere euskalki horretatik abiatu behar du, hura aintzat hartu eta bultzatu, aldaera batua irakatsi baino lehen. Ikuspuntu askotarik egin da erabaki horren aldeko argudiatzea:

a. Lehen-lehenik, gogoratuz idatzirako osatu zela batua. Baina aitzina ez bezala, gaur gazte-gazterik hasten da eskolatze formala. Irakurketa eta idazketa ikasi aitzin irakasten eta lantzen da hizkuntza eskolan, ahoz hain zuzen ere. **Ahozko jarduna** da ikasgeletan nagusi lehenbiziko urteetan, ez idatzia; zer esanik ez, ikasgelaz kanpoko egoeretan, izan atseden-ordu, jolas, kirol eta kultura-orduetan. Ahozko tradizioa bizi-bizia den tokietan, zergatik ukatu dagoena, zergatik baztertu tokiko euskara mintzatua, batua idatzirako irakatsiko bada? Zertarako, besterik gabe, euskalkian hitz egiten duten haurrak batuaz mintzarazi? Non dago onura?

b. Haur Hezkuntzan (0-6 urte) murgiltze-programan ikasten duen haur erdaldunak (gaur D eredua) bigarren hizkuntza gisa eskuratzen du euskara; aldaera batua izan ohi da hizkuntza-eredua. Haur euskaldunari, berriz, bere ama-hizkuntzan ikastea komeni zaio. **Mantentze-programa** edo **atxikitze-programa** deitzen zaio programa mota horri, programa elebidunetan; bigarren hizkuntza (hegoaldean gaztelania eta iparraldean frantsesa) geroago agertuko da curriculumean. Mantentze-programak gizarte elebidunetako hizkuntza gutxituetako haurrei zuzenduak dira, gizartean gutxiagotua den hizkuntzari babesa eta dedikazio berezia eman behar baitio eskolak, hizkuntza hori atxiki nahi bada. Haurrak, bestela, bere ama-hizkuntzaren balioa ikusi gabe, hartaz lotsatu eta lehenbailehen hizkuntza indartsuena eta prestigioduna hartzeko mugimendua egingo luke. Berea dena ukatuz jabetuko litzateke besteenaz. **Ordezkatze**-prozesu bat litzateke hori, eta, ikerketek erakusten dutenez, kaltegarria da ondorioei dagokienez. Horregatik, hizkuntza gutxitua duen haurrak etxeko hizkuntza atxiki eta indartu behar du eskolan: hortik dator *atxikitze-programa* deitzea. Programa mota hori, berriz, onuragarria izan ohi da, onura linguistikoak ez ezik, kognitiboak ere ekartzen baititu: **elebitasun gehigarria** dugu hori.

Horregatik, euskara batuak hartu duen balioa ikusirik, bai eta duen prestigioa ere, kontuan hartuz gainera euskalki batzuen eta euskara batuaren artean dagoen alde nabarmena, zentzuzkoa dirudi eskolak, mantentze-programa elebidunetan bezala, euskararen aldaera *ahula* bere gerizan hartzea eta sendotzea lehenik, aldaera indartsuenera pasa aitzin. Eta, beraz, lehen urteetan behintzat, etxeko euskalkia landu behar litzateke, haurraren segurtasun linguistikoa bermatzeko gisan, konplexurik gabe eta probetxu osoz eskolako aldaera nagusia ikasi ahal izateko. Hala egingo ez balitz, kaltetuko litzateke haurraren autoestimu linguistikoa eta haren hizkuntza-erabilera, eta, bestalde, euskara beraren osasun eta biziraupena ahulduko.

c. Eskola-porrotaren eragiletzat jotzen da aspaldian etxeko aldaeraren eta eskolakoaren arteko tarte edo urruntasun handiegia izatea. Gainerako hizkuntzetan ere, irakasleen hizkera haurren ezaugarrietara egokitzen da hastapenean, eredu estandarrerako zubia luzatuz edo. Zubi-lan horren beharra modu askotara defenda daiteke, psikologia oinarri harturik.

Zentzu horretan, edozein ikaskuntzaren oinarri beharrezkotzat bihurtu da **Ikaste esanguratsua**[14] deitutako psikologia-printzipioa. Haren arabera, besteak beste, ikasleak dakienaren gainean txertatu behar ditu eduki berriak. Ezin hutsetik abiatu, ezin ezezagunaren gainean eraiki ikaskuntza onik; aitzitik, ikasleak ezagutzen duenaren gainean ainguratu behar da ikasi beharrekoa. Zer makurrago, hortaz, hizkuntza ikasteko, euskara bat eta bakarra balitz bezala, bazterretako euskalki batean mintzo den ikaslearekin hizkuntza estandar hutsa irakatsi nahi duen irakaslearen jarduna baino?

[14] Ikus Ausubel-en *Ikaste esanguratsuaren teoria*

Psikolinguistikak azaltzen digu, zentzu berean, dakizkigun hizkuntzekin dugun esperientzia baliatzen dugula edozein kode berritan jarduteko. **Gaitasun estrategikoar**en parte bat litzateke hori, eta estrategia motak aztertuak dira dagoeneko. Adibidez, lehen hizkuntzan menperatzen ditugun arauak aplikatzen ditugu bigarrenean, orokortzen ditugu, analogiak egiten,. Horien ondorioak ez dira beti zuzenak, baina garbi ikusten da hizkuntza batetik besterako transferentzia aktibatzea ona dela ikasteko. Euskalkia eta estandarra hizkuntza bera izanik, gainera, zergatik ukatu lehena, bigarrenaz jabetzeko. Arras zuzena da eta egokia lehena finkatzea, bigarrena hobeki ikasteko. Horregatik ere, hautu zuzena litzateke eskolako lehen urratsak behintzat euskalkian gauzatzea, aldaera estandarraren ezagupenera emeki-emeki iragateko. Zenbait proposamenetan zehazten denez, mendebaleko kasua bereziki jorratuz, batutik urrun diren euskalkietan haien aldaera literarioa landu behar litzateke eskolan, aldaera hori etxekoaren eta batuaren artean kokatzen baita, eta horrek gauza lezake zinez bien artean beharrezkoa ikusten den zubia.

BIGARREN PROPOSAMEN ILDOA

Euskara idatzi behar denean: batuaren kontzepzioa

Uste hedatua da, gazteen artean batez ere, euskara batua hizkera geza, indarrik gabea dela, eta uniformeegia. Eta iritzi horrek izan dezakeen karga subjektiboa alde batera utzirik, funtsa ere aurki dakioke, horrelako zerbait antzematen baita, hain zuzen, eskolan ekoizten den hizkuntza idatzian.

Laura Uruburu pedagogia teknikariak jasotako datua da, adibidez, honako hau: 10-11 urteko ikasle bizkaitar batzuei egindako froga idatzietan, *bultzatu*, *erori*, eta *esnatu* hitzak erabili zituzten ikasle ia guztiek; bizkitartean, Lea Artibaikoak ziren ikasle horiek *sakatu*, *jausi*, eta *ixartu* hitzak ikasi eta erabili ohi zituzten etxean.[15] Batuaren aitzakian, badirudi ikasleak autozentsuratzen direla idazteko, irudikatu duten batu estu eta murritz baten arabera, dudarik gabe. Hitzak aukeratzean, behinik behin, denek hiztegi bera erabiltzeko joera dute, ez berena, beste euskalki batekoa baizik, gainera. Ikerketek erakusten dute, bestalde, euskara batua bultzatzearren, irakasleen aldetik ere badela tokiko hitz eta egitura franko isiltzeko joera. Julian Maiak erakutsi duen bezala, "ikastetxeetan irizpide murrizgarri samarra erabiltzen da inguruko forma linguistiko ugariren artean".[16]

Koldo Zuazok, berriz, hauxe dio *Euskararen Sendabelarrak* liburuan: *Askok eta askok uste dute "Korrika" dela Euskara Batua eta ez, esate baterako, "lasterka" edo "arineketan", eta hori ez da egia* dio. Eta oraino: ... *"maindire" bezain Euskara Batu dira "izara" eta "mihise", "lapurtu" bezain Euskara Batu "ostu" eta "ebatsi", "lotsa" bezain euskara batu "ahalge"*[17]*. Ez da beraz egia "begitandu" Euskara Batuan "iruditu" dela, edo eta " jin" Euskara Batuan "etorri" dela.* Uste makur hori litzateke eskolako euskara idatzian hezurmamiturik aurkitu dena.

Adibide horiek baliaturik, Koldo Zuazok ere garbi utzi du baturako kontzepzio zabal eta irekia bultzatzen duela, zeinean bakoitzak dagoen tokitik osatuko lukeen euskara batu egokitu bat, *tokiko batu* moduko bat, alegia. Baina proposamen hori zabalegi hartuko balitz, euskara batuaren funtzioa bera mehatxatuko litzatekeela pentsa daiteke. Hortik dator zenbaitek eszeptizismoa agertzea eta

[15] URUBURU, Laura: "Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan" in *Bizkaieraren lekua gaur,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 52. or.

[16] MAIA, Julian: "Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan" in *Tantak* 26, 2002, 98. or.

[17] ZUAZO, Koldo: *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun, 2000, 167. or.

aitzakiak jartzea pentsamolde horren aurrean. Garrantzitsua da, hortaz, batuaren kontzepzioa argitzea, aldaera horri dagokion funtzioa eta baita aldaera horrek euskalkiekin behar duen harremana ere orekan atxikitzeko: euskara batuak euskaldun guztien arteko komunikazioa errazten jarraitu behar du, batetik, baina bestetik, eta denbora berean, euskara batuak euskalkietatik datorkiokeen bizitasun eta aberastasunetik elikatu behar du.

Non dira mugak, beraz?

Sintaxia ez da hain erraza mugatzen, baina hiztegiari dagokionez, aspaldian eskaini zuen Euskal Akademiak euskararen hitzen jatortasuna neurtzeko abiapuntu argia. Eta oinarri berberari eutsi dio geroztik ere Hiztegi Batua egiterakoan. Hiru irizpide seinalatu zituen Euskaltzaindiak euskararen barnean sar zitezkeen hitzen onargarritasuna erabakitzeko: fidagarriak dira antzinatasuna duten hitzak, heda-dura zabala dutenak eta literatura-tradizioan lekukotasuna dutenak. Bestela adierazi nahi bada, euskara batuan onartua izateko, lehenik, hitzak aspaldikoa behar du izan, bigarrenik, literaturan erabilia izanak ematen dio garantia, baina, gainera, eremu handi batean behar du izan ezaguna, gisa horretan segurtatzen baita haren ulergarritasuna.

Hirugarren irizpide horrekin bereziki, zentzuz jokatu behar da, baita ausardiaz ere, baina muturretara joan gabe. Bistan da ez dela herri txiki bateko auzo are txikiagoan erabilitako hitza eskualde oso batean erabilitakoa bezain gomendagarria batuan sartzeko. Euskara ilun dezake halako joera neurrigabeak. *Korrika* hitza denok ezagutzen dugu; *lasterka*, *arineketan* eta *antxitxiketan* ere aski hedatuak dira. *Karran* eta *galapan* sinonimoak, ordea, eremu urrian erabiltzen dira eta gutxik ulertzen dituzte. Horrenbestez, lehen saileko hitz guztiak batuan erabilgarri direla esan genezake, nork beretik hartuta. Ezin indar hori jarri azken biak bultzatzeko orduan.

Oinarri horren arabera, hitz ugarik du bere lekua batuan, eta hala erabilita erregistro idatzia aberastea lor daiteke. Haatik, bakoitzak bere euskalkitik abiatu behar du, eta ez maizegi gertatu den bezala —-norberarena gutxiesteagatik edo, alderantziz, aberastasuna eman nahian—, besteen hitzak erabili. Uniformetasunerantz garamatza horrek, euskalki erabilienetako edo prestigiodunetako hitzak erabiltzera jotzen baitugu maiz. Tokian tokiko euskalkitik abiatuz, ordea, sinonimoen sare zabala eratzeko bidean jartzen gara, eta hizkuntza aberastekoan. Horrela, ikasleek batua senti dezakete; eskurakoago zaie, nahi eta ahal duten kolorea eta indarra eransteko.

Atal honetan azaldutako guztiak euskalkien eta batuaren arteko harremana hobetzeko argigarria behar luke izan. Gogoeta eta jarrera mota bat ere sustatzen da , baina erran gabe doa ñabardurak eta zehaztasunak falta direla. Adibidez, Koldo Zuazok argi utzi du, euskalkietatik bultza daitekeen sinonimia ez dela berez beti ona euskararako. Hizkuntza teknikoan kaltegarria da, zehaztasun eta funtzionaltasun maila handiko testuetan oztopo baitira sinonimoak, traba dira. Ikus bestela hurbileko hizkuntzetan nola jokatzen duten. Irakasleak jakin behar du hori. Halaber jarraitu behar lirateke euskara batu ezberdinen mailaketa bultzatzen duten proposamenak: eskualdeko batua edo herrialdeko batuaren beharra ikusten du zenbaitek euskalkiaren eta batu nazionalaren arteko zubi egokiagoa egiteko.

Euskalkien eta batuaren arteko auzian sakontzen jarraitu behar dugu, baina oro har une honetan erabateko garrantzia du irakasleek batuaren kontzepzio zabal horren alde joka dezaten, irekitasunez, han-hemengo ikasleak akuilatuz beren euskalkietako hitzen jarioa erregistro idatzian txerta ditzaten.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

1. Ikasgai honen bibliografian aipatzen da *Bizkaieraren lekua gaur* liburua, "*Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan*" artikuluarengatik. Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeetako adibideak ekartzen dituenez testura, hona hemen, jakin dezazun, zer herri hartzen duten bi eskualde horiek:

- Busturialdea

  Arangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika, Ibarrangelu, Kortezubi, Mundaka, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta

- Lea Artibai

  Etxebarria, Berriatua, Amoroto, Ispaster, Lekeitio, Markina, Mendexa, Ondarroa

Artikulu hori irakurriko duzu, xeheki ulertuko, eta ideia nagusiak jasoko. Zein da Laura Uruburuk azaltzen duen arazoa eta zer proposatzen du?

2. Irakur ezazu Koldo Zuazoren testua. Ulertu ondoren, jaso itzazu ideia nagusiak: seigarren ikasgai honetan ikasi duzunaren osagarri izango dira.

(...)

ETORKIZUNARI BEGIRA OHAR BATZUK

Gaur egungo ikuspegitik begiratuta, harritzekoa ere bada euskalkien arteko aldeak hain handiak izan, eta euskara batua zabaltzeko inolako plangintzarik tajutu ez izana. Horrek, jakina, badu bere arrazoia. Ez dugu ahaztu behar 1968an aurkeztu zela euskara batua, bete-betean Francoren diktadura garaian. Euskaltzaindia zen orduan euskara garatzeko eta bultzatzeko erakunde bakarra: bitartekoetan urri eta ahalmenetan mugatu zen Euskaltzaindia. Ahal bezala egin ziren gauzak orduan, eta ahal bezala egin dira gauzak gero. Baina, joanak joan, etorkizunari begira jarri behar dugu, eta nahiz eta berandu gabiltzan, oraindik ere ez dago dena galduta.

Helburua behinik behin argia da: euskararen osasuna hobetu behar da, eta horretarako hiztunak beraren euskaran konfiantza osoa izan behar du. Eta beraren euskara erdialdeko euskalkia ez bada, batuarekin batera eta batuaz gainera, beste horiek ere erabili egin beharko dira. Euskalkiak erabiltzeko, berriz, lau arlo ikusten ditut:

- Aisialdia.
- Irakaskuntza.
- Herri hedabideak.
- Administrazioa, batez ere udal eta foru esparruetakoa.

Izango da arloz arlo gauzak hobeto zehazteko aukera, baina ohar orokor batzuk egingo ditut behinik behin.

Aisialdia. Alor honexeri deritzot euskalkiak lantzeko bitartekorik egokiena. Neska-mutilek eskola orduetatik kanpo egin ohi dituzten kirol saioak, ikastaroak (pintura, musika, argazkigintza, zeramika, bideogintza...), ibilaldiak, kanpaldiak... sartzen dira sail honetan. Ekintza hauetan guztiotan ahozko hizkuntza erabili ohi da

gehienbat, nekez hizkuntza idatzia. Esparru hau “zeharo eta erabat” dagokio, nire ustez, euskalkiari.

Irakaskuntza. Irakaskuntzan badirudi mailaz mailakoa izan beharko lukeela euskalkitik baturako bidea. Esango nuke, Europako beste herrialde batzuetan bezala, lehen mailetako irakasleak haurraren euskalki berekoak izan beharko luketela. Ez da nahikoa irakasleak euskaraz jakite hutsa; haurraren euskalkia ere jakin egin behar du. Ondorengo mailetan, berriz, irakurmenaren eta idazmenaren bidez landu liteke euskara batua, eta mintzamena bertako euskalkian egin.

Irakaskuntzaren barruan leku esanguratsua dute euskaltegiek, eta arlo honetan ere gauzak zeharo beste era batera egin beharko liratekeela iruditzen zait. Inguruko jardunean erabilienak diren hitzak eta egiturak irakatsi beharko litzaizkioke lehenengo eta behin ikasleari. Horrela egitera, eskolan ikasitakoa berehala baliatu ahalko luke eskolatik kanpo ere. Baina, ostera, bertako hizkerarekin zerikusirik ez daukan bat irakasten bazaio, “Kutxidazu bidea, Ixabel” kontakizuneko protagonistari bezala, suahiliera begitanduko zaio autoktonoek darabiltena eta hauek, berriz, amaigabeko eztabaidetan galduko dira euskaltegiko ikaslearen euskalkia Bonaparteren mapan kokatu ezinda.

Herri hedabideak. Ez dago zalantzarik ETBko, Euskadi Irratiko, “Euskaldunon Egunkaria”ko, Argia aldizkariko hizkuntza euskara batua izan behar duela. Euskal Herri osoko hedabideak direnez, bidezkoa da Euskal Herri osoko hizkuntza erabiltzea. Baina bidezkoa da, era berean, esparru murritzagoko hedabideetan esparru horietako entzule, ikusle eta irakurleei gertuagokoa zaien hizkera erabiltzea. Horixe da, esate baterako, Bizkaia Irratiak , Eibarko Arrate Irratiak eta “Eta kitto!” aldizkariak egin duten aukera, eta aukera hori egin izatean dago, besteak beste, hedabideok lortu duten arrakasta.

Herri hazietan –aipatu berri den Eibar bera, esate baterako- bidezkoa da euskalkiarekin batera euskara batua ere erabiltzea, asko direlako halako herrietan euskara batua besterik ez dakitenak. Baina estandarra erabili arren, lexikoan eta sintaxian bertakoari eman beharko litzaioke erabateko nagusitasuna.

Hedabideen artean, gainera, ahoz eta idatziz dihardutenak bereizi behar dira. Batez ere ahozko hizkuntza lantzen duten herri irrati eta telebistetan erabili beharko litzateke euskalkia.

Administrazioa. Nahitaezkoa da herritarrekin hartu-emanetan jardun behar duenak herritarren hizkera jakitea. Hizkuntza nolakoa den, halakoa izango da herritarren eta Administrazioko ordezkarien arteko hartu-emana. Eta hurbileko hartu-emana nahi bada, hurbilekoa izan beharko da hizkuntza.

Dena dela, administrazio mota asko dira, eta bakoitzean erabili beharreko hizkera motak ere desberdinak izango dira, EAE osokoa den “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria”-n (alegia, boletin ofizialean), esate baterako, euskara batua erabiltzea da zentzuzkoa. Ostera, Nafarroako Malerreka eskualde euskaldunean pediatra lanetan diharduenak bertako euskara erabiltzea litzateke zentzuzkoa. Orobat Bizkaiko Lea-Artibai eskualde euskaldunean basozain lanetan diharduenak.

Etorkizunari begira, beraz, artikuluan zehar aipatu diren lau arlo hauetako bakoitzean bertako egoera aztertu eta plangintza zehatz bat tajutu beharko litzatekeela uste dut. Ezinbestekoa iruditzen zait, bestalde, lau arlo hauetako ordezkarien elkarlana, eta ezinbestekoa, era berean, Euskaltzaindiaren esku hartzea. Euskaltzaindia bera izan liteke, gainera, egitasmoaren gidaria.

ZUAZO, Koldo: “Batua versus euskalkia?” *in* Argia aldizkaria, 1999-08-01, 21-22 or.

3. Hirunaka jarrita, taldeka egiteko lana duzu hau. Eskola-orduan aurkeztuko da eta proposamenaren egokitasuna eta bideragarritasuna eztabaidatuko dira.

Demagun euskalkien eta batuaren arteko harremana orekatu nahiz ari zaretela ikastetxean. Ikasgai honetan iradokitakoa aplikatuz, proposamen bat egingo duzue idatziz, ondoko zehaztasunak emanez:

- Norako ari zareten: irakaskuntza-tokia (leku geografikoa) eta ikastetxea.
- Zein ikas-mailatan ari zareten eta, hortaz, zein den ikasleen adina.
- Zer egin dezakeen irakasle bakoitzak maila indibidualean (alegia, zer dagoen irakasle bakoitzaren esku)
- Zer egin dezakeen ikastetxeak maila orokorragoan.. Zerbait planifikatu daiteke?
- Besterik?

Proposamenarekin batera, arrazoiak ere azaldu beharko dituzue.

GIZARTE-ALDAERAK 7

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

1. Eleberri bateko elkarrizketa duzu hau:

   - *Bueno, nenas –dijo Coco, rodeando con su brazo los hombros de su chica–, ¿nos abrimos? Tú, Pepe, ¿qué, te esperamos?*
   - *No tío, yo me voy a casa a sobarla, que no puedo con mi alma.*
   - *Nosotros deberíamos hacer lo propio –dijo Coco–. Con la llegada de esta señorita hoy casi no hemos dormido. ¿Cogemos un tequi?*
   - *Fijo –dijo Mónica, y acto seguido apuró su cerveza de un trago, para dar a entender que ya estaba cansada–.*[18]

   Saia zaitez testua euskaratzen.

   Zer oztopo sortzen da? Zergatik?

   Nor dira hiztunak, nongoak; zer adin dute? Nola antzeman duzu hori? Zein dira haien hizkeraren ezaugarriak?

2. Egizu gogoeta euskaraz diren honako hiru testu zati hauei buruz.

   Testu bakoitza hartuta, esan:

   Nor da hiztuna, nongoa; zer adin du? Nola antzeman duzu hori?

   Zein dira agertzen diren hizkera horien ezaugarriak?

   - **Lehena:**

     (…) Diabruan abokatua izango naiz, gaur.

     Ba dago jente "alternatibo-buenrollista-txurrero" bat, askotan gaztetxe eta gune okupatuetan zihar ibiltzen dana. Ni halako leku eta orbita zalia naiz, eta estimatzen dittudazelako hain zuzen be, ibiltzen naiz jentian jarrerei erreparatzen. Eta halan, aprobetxategixak eta parasituak bereiztia gustatzen jataz.

[18] ETXEBARRIA, Lucía: *Beatriz y los cuerpos celestes*, Ediciones Destino, Barcelona, 1998, 79. or.

Ba da ekimen bat, munduan nahikua zabalduta, denda aberatsetan lapurtziana. Bere filosofixia dauka, eta koherentia begittantzen jata. Ondo eresten detzat, azken fiñian. Baiña, ekimen laudagarrixen arrimura askotan egitten dan modura, ba dago jarrera salagarririk:

Ezagutzen dot jentia, supermerkatura sartzen dan bakoitzian zeozer etaratzen dabela besapian. "¿Eta hori zetako?" galderiari, "¿Hau? Ba... ¡hartziarren! Hohohoho...". Hau konsumismuan kalko alternatibo bat da, kapitalismuan alde txarretako bat bereganatu dau "buenrollista" horrek. [19] *(…)*

- **Bigarrena:**

Bikote berri bat sortu da Oiartzunen!!!

Eneldori perrixila aurkeztu yogu ta maitemindu in dia. Ze sortuko ote da bikote hortatik… Ezkontza igandin izango da, Oiartzunen, 3. gunin, eguardiko ordubitan. Elepante Gorriya bertan izango da ta monjuk rebai. Bazkaya Zeledonen etxe berriko balkoyin izango da. (Gañea, lehengo platera batxuizopa omen da, biño… shhhhhh, ez esan iñorrei!)

Bertan ikusko galakun, muxu bat! [20]

- **Hirugarrena:**

  - *Joder tío! –hasi zen esaten-, Malagak la hostia izan behar du neska kontuetan!*
  - *Zer ba? –galdetu genion.*
  - *Ez duzue sinetsiko lagunak kontatu didana.*
  - *Kontatu, kontatu!*
  - *Dirudienez, Malaga kriston txoiloa da ligatzeko. Tipo hori gure modukoa da, ez pentsa. Hemen, behintzat, ez zuen ni hostias ligatzen eta hara joan eta lehenengo egunean, rrra!*
  - *Lehenengo egunean?*
  - *Bai. Esan didanez, autobusetik jaitsi eta…*[21]

ARGI DEZAGUN AUZIA

Har dezagun lehen ariketako testua, gaztelaniaz idatzitakoa. Pasarte labur horretan pertsonaiak nor eta non izan daitezkeen antzeman daiteke neurri bateraino: batetik, esaten dutenagatik, hau da kontakizunak adierazten duen egoeragatik (taberna-giroa da, neska-mutilak dira, etxeratzeko ordua da), baina, bestetik, baita esateko moduagatik ere, alegia, erabiltzen duten hizkeragatik ere bai. *Nenas, nos abrimos, sobarla, un tequi, fijo* bezalako hitzak ez dira arruntak, hizkera berezia osatzen dute, markatua, alternatiboa, kale-hizkera mota bat, nolabait esateko. Hizkeraren ezaugarri horiek pertsona gazteak direla pentsarazten digute. Nongoak diren ez da bereziki antzematen.

[19] Oier Gorosabelen blogetik hartua, *Garagoittiko orakulua*, http://www.eibar.org/blogak/orakulua

[20] Kilometroak, ikastolen festa zela eta, Interneten argitaratutako mezu bat duzu hori.

[21] Zer gertatu zen jakin nahi baduzu, Jon Arretxeren *Ostegunak* liburura jo beharko duzu, 47. orrira, hain zuzen.

Pasartea euskaratzean, berriz, aipatutako hitz horiek sorrarazten dituzte oztoporik handienak. Baliokide zuzenik nekez aurkituko dugu, eta bestela ere, hizkerak duen kutsu *kaletar-alternatibo* hori euskaraz nola eman asmatzea zaila egingo zaigu. Seinale, beharbada, gainditu beharreko *hizkuntza-koska* bat dugula arlo horretan, euskaraz.

Har dezagun bigarren ariketa. Euskaraz ditugun hiru testuetako hiztunak gazteak direla pentsa dezakegu. Hasteko, erabilitako gaiengatik. Hizkerari begira, hainbat arrazoi ditugu hori baieztatzeko.

Lehenengo bietan, gazte-hizkera dela dirudi, baina ez bakarrik lehen ariketan ikusitako hiztegi alternatibo horren antzeko kutsua agertzen delako; dialektoa da nabarmena , euskalkia, eta horrekin sortzen den jolasa. Gaztelaniazko adibide hartan, batez ere hitzen bitartez apurtzen zen arruntasuna; euskarazko horietan, berriz, batez ere fonetikarekin jolastu da, ortografiarekin, euskalkian mintzatuz bezala idatzi da. Lehen ariketako testuan bezala, gazteen ikur den hizkera arau-hauslea dugu hau, baina ortografiaren eta euskalkiaren bidez batez ere. Gaztetasuna ez ezik, lehen adibideko hiztunak mendebaleko jatorria erakusten du bere hizkerarekin, bigarren adibidekoak erdialdeko hiztuna dela erakusten du.

Hirugarren testuan, berriz, gaztelaniazkoan izan den joera berbera ikusi dugu, hitzek salatzen dute pertsonaien jatorri soziala, gazte izatearena, gutxienez: hor ditugu *joder, tío, lahostia, kriston txoiloa, nihostias*, eta *ligatzen* hitzak. Kontura gaitezen, bestalde, euskaraz jardun arren, gaztelania dela hizkera alternatibo horren jatorria. Beste xehetasun bat, hortaz, gai hau ulertu edo argitzeko orduan.

IKAS DEZAGUN

Zer izan daitekeen gizarte-aldaera

Greziarrek ikusi zuten lehen-lehenik hizkuntza beraren baitan bazirela aldaera diferenteak. Dialekto deitu zituzten aldaera horiek, eta geroztik, emeki-emeki hastapenean, baina indarra hartuz XIX. mendean, garatu da dialektologia. Geografiaren arabera sorturiko aldaera horiek izan dira mendeetan dialektologiaren aztergai. Gure hizkuntzari dagokionez, euskalkiak sailkatu dira eta aztertu. Aise berriagoa da, ordea, hiri-dialektologia deitutakoa, laburra da gizarte-aldagarritasuna jomugatzat duen azterketaren historia.

Gogora dezagun aldaera geografikoa dela espazio geografikoaren leku batean moldatu eta garatu, dena besteengandik desberdinduz. Paralelismoa eginez, berriz, gizarte-aldaera gizarte-esparruko leku batean moldatzen eta garatzen dela esango dugu, gizatalde jakin batek gainerakoek ez bezala darabilelako hizkuntza. *Soziolekto* eta *errepertorio* hitzak ere baliatzen dira aldaera horiek izendatzeko.

William Labovek sorrarazi zuen gizarte-aldaerekiko? interesa, Pennsylvaniako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza, Psikologia eta Hiri Etnografia sailean irakasle zela. 1960-1970 urteetan, New Yorkeko klase sozial apaletako mintzaira aztertu zuen eta aldagarritasun mota horren nondik norakoak finkatu zituen. Nagusiki, beltz amerikarren dialektoa deskribatu zuen bere lanetan: horrekin frogatu nahi zuen Estatu Batuetako hiri handietan, hala nola New Yorken, Bostonen, Detroiten, Filadelfian, Washingtonen eta abarretan, bazter-auzoetan, kalean bizi ziren gazte beltzek (8-19 urte) arras osatua zutela amerikar estandarretik desberdintzen zen ingelesaren dialekto bat. Ikusi zen hizkera horrek bazuela bere batasuna, aldaketak erregulartasunez agertzen baitziren, eta estandarrekiko

diferentziak gramatika arlo guztietan gertatzen baitziren: fonetikan bezala, morfologian, joskeran eta lexikoan ere bai.

Horixe genuke, beraz, gizarte-aldaerez serioski aztertu den adibide lehena eta nagusia. Kontuan hartu, noski, ingelesa izan dela aztergai, hots, hizkuntza indartsua, oso, eta Ameriketako hiriburuetako gizataldeak behatu direla, alegia, gizarte hiritarra, ezin neurri handienean.

Zein dira hiri-dialektologiaren ekarpen nagusiak?

Labovek eta haren jarraitzaileek gaurdaino egindako lanek ondorio orokor batzuk ekarri dituzte, besteak beste:

- **Lehena:** baiezta daiteke klase sozialak, edo besterik gabe ingurumari sozialak, komunitate baten hizkera determinatzen duela. Halaber, esan daiteke gizartearen toki batean egindako hizkuntza-erabilpenak gramatikaren edozein arlotan edo guztietan izan dezakeela eragina.

- **Bigarrena:** jatorri soziala irizpide geografikoa baino eraginkorragoa da mintzatzeko molde-arekiko. Gaur egun, munduan barna, iduri luke dialekto geografikoak hurbilduz eta berdinduz doazela eta, alderantziz, gizarte-aldaerak areagotzen ari direla. Zenbat eta hiritarragoa izan gizartea, orduan eta gizarte-aldaera gehiago pizten da; denbora berean, aldaera geografikoak ahultzen dira, ordea.

- **Hirugarrena:** lanbidearen araberako gizataldeekin lotu ohi da nagusiki aldagarritasun soziala, baina lanbidea ez da determinatzaile bakarra. Horren alboan, honako hauek ere sorrarazten dituzte talde- eta hizkuntza-aldaera desberdinak:

  - belaunaldi-desberdintasunek: gazteen aldaera / jende zaharrena
  - klase-desberdintasunek: klase apalekoen aldaera / klase altukoena
  - mendekotasun-harremanek: ikasleen aldaera/irakasleena, langileen aldaera / nagusiena
  - kultura-formazio mailako desberdintasunek: ikasien aldaera / ez ikasiena, adituen aldaera / ez adituena
  - sexu-desberdintasunek: gizonezkoen aldaera edo *maskulinolektoa* / emakumezkoena edo *feminolektoa*, *sexolektoak* biak

Alde askotarik dira aztergai aldaera horiek guztiak, ez soilik duten interes linguistikoagatik. Sexolektoek, adibidez, agerian uzten dute sexu-rolak ere eragiten duela hizkuntzaren erabileran. Zentzu horretan, antropologiarako eta hezkidetzarako ere gai erakargarria da sexolektoena. Gizarte gehienetan ikus daiteke badela gizonezkoarengan bideratu den jokabide linguistiko mota bat eta beste bat dela emakumezkoari *eskatu* zaiona. Jarrera horiek gizartean bizi diren balioek eraginak dira, onartzen diren jokabide-arau inplizitoen arabera. M.J. Buxó etnologiako irakasleak gehitzen duen legez, gaur arte emakumeek gehiago jasan izan dute jarrera egoki hori hartzeko presioa gure gizartean; sozialki elkar eragiten duten guztietan, adibidez, umiltasuna eta goxotasun kutsua duten aldaera fonologikoak erabili ohi dituzte, edo kortesia eta errespetua adierazten duen hiztegia eta dependentzia markatzen duten aldaera sintaktikoak. Emakumeek, jeneralean, iritziak eman beharrean, iradoki egiten dituzte, sentimenduak adierazten dituzte, solaskidearen tokian jarri ohi dira eta ulerkorrak dira.

Gizonezkoen jokabide linguistikoan, ordea, maskulinolektoan beraz, komunikatzeko estilo erasokorragoa edo agintzaileagoa antzematen da. Gizonen adierazpenak lehiatsuagoak izan ohi dira solaskidea emakumea delarik, inibitzaileak izateraino. Hizkuntza erabiltzeko maneran ere nabari daiteke gaur zenbait emakumek eta neska gaztek ez duela onartzen gizarteak egokitutako sexuaren araberako ezaugarri banaketa hori; gisa horretan maskulinolektoa imitatzeko jarrera hartzen dute, batzuetan hitz gordin edo biraoak ugari erabiliz edo adierazpen erasokorrak eginez. Alderantzizkoa ere ikus daiteke, bistan da.

Euskaraz ba al da gizarte-aldaerarik?

Gizarte-aldaeren presentzia Ameriketako hiri handietako ingelesean antzeman da; ikerketa gehienak horren gainean egin dira. Ordea, bistakoa da aldagarritasun mota horren garapena ezin daitekeela bertsua izan euskararen barnean; hain zuzen, euskara ez baita sekulan hiri-hizkuntza izan, oraino ere ez da hala, eta gizarte-aldagarritasuna hiri-gizartearekin lotzen dela ikusi dugu.

Aitzitik, baserri- eta arrantza-mundura mugatua izan da euskara arras berriki arte, hiritartzea euskara kanpo utzirik egin baita Euskal Herrian. Euskara ez da gizarte-esparru desberdinetara heldu. Ezin izan da, beraz, euskararen gizarte-aldaerarik deskribatu, ez bada baserriko aldaerak edo arrantzaleek darabiltzatenak bereiziz. Ez da benetan errepertoriorik garatu, edo izan dena, ez da aski izan nabarmentzeko.

Hala ere, hezkuntza-sisteman sartu delako eta bizi publikoan hasteko urratsak eman dituelako, euskara gizarte-eremu desberdinetara heltzeko bidean ari da gaur. Pentsa daiteke euskararen dibertsifikatze soziala hastapenetan dagoela eta geroan izan daitezkeen soziolektoak ernatze-aroan direla. Gizarte-aldaerak izateko, osorik kaletartu edo hiritartu beharko du euskarak; alegia, profesionalek hura erabili beharko dute, medikuek eta eriek euskaraz jardun beharko dute, nagusiek eta langileek euskaraz jakin eta haien artean erabili. Haurrek, gazteek, eta zaharrek ere, bakoitzak bere giroan. Dendetako salerosketak, zein Burtsakoak, euskaraz egingo diren neurrian osatuko da euskaraz ere aldagarritasun mota hau.

Bien bitartean, gizarte euskaldunean ez da egiaztatzen Labovek eta haren jarraitzaileek plazaraturiko ondorio garrantzitsu hau, alegia, jatorri sozialak jatorri geografikoak baino gehiago markatzen dituela hiztunak. Aitzitik, gaur, oraino ere, irizpide geografikoaren zigilua darama euskaldunaren hizkerak: euskalkiarengatik bereizten ditugu Donostiako mediku euskalduna eta arrantzale lekeitiarraren solasa, ez gizarte-talde desberdinetako aldaerek salatzen dutelako haien jatorri soziala.

Gizarte-aldaera al da argota?

Lana dela, edo aisia dela eta, batera aritzen diren jendeek estandarretik urruntzen diren hizkuntza-erabilera berezi batzuk sortu ohi dituzte talde-komunikaziorako, nahita edo nahigabe. Unibertsitate-ikasle askorentzat, adibidez, arruntagoa da *piper egitea,* eskoletara huts egitea baino, azterketa bezperan *agobiatuta* daudela esango dute, ez larrituta, eta *superondo* igarotzen dute ostegun gaua lagunekin, tabernetan *kalimotxo-katxiak* eskatzen dituzten bitartean. Gehienetan, hiztegi-mailan jokatzen dira aldaketok eta berrikuntza guztiok, eta hizkuntzaren gainerako arloak gehiegi ukitu gabe gelditzen dira. *Argota* deitzen zaio hiztegi desberdindu horri, eta lexikora mugatua den gizarte-aldaera gisa definitzen da.

Edozein taldek sor dezake bere argota, baina aldaera mota horren jatorria kontsideratzen badugu, ageri zaigu funtzio zehatzez sortu ohi den mintzaira dela: XV. mendean jadanik, Frantziako eskale- eta gaizkile-talde batzuen hizkeran suspertu zen argota, hain zuzen, taldeko mintzaira tarteko ez zen inorentzat ulertezina bilakarazteko. Alabaina, besteetarik bazter bizi ziren jende horiek egunero arazoak zituzten jende arruntarekin eta justiziarekin: argotak, taldearen barneko elkartasuna sendotzeaz gain, haien kontra zuzenduriko zapalketaz babesten zituen. Bi funtzio horiek betetzen dituzte maiz gaurko argotek ere:

- **Batetik**, taldeko ezaugarri edo ikur gisa erabiltzen da argota, kidetasuna indartuz eta gaine-rakoengandik desberdintzeko: eskoletan, gazteen artean eta, batez, ere modan jartzen diren edozein klasetako mugimenduetan, adibidez.
- **Bestetik**, norbaiten edo zerbaiten kontrako kode sekretu gisa baliatzen da, gizarte-zapalkuntza saihesteko laguntza bat izan baitaiteke. Aise da ulertzea, hortaz, zergatik bizkortzen den bereziki argota gizarte-gune baztertu, zapaldu edo pertsegituetan. Presondegietan, adibidez, drogazaleen edo delinkuenteen artean.

Era askotakoak dira argota sortzeko baliabideak: batzuetan hitz baten esanahia aldatzen da, besterik gabe, edo beste batekin trukatzen. Aurrizkiak, artizkiak edo atzizkiak errepika daitezke hitza bestela-katuz. Silaba batzuk ugaldu daitezke edo tokiz aldatu. Laburdurak ohikoak dira argotean. Maileguak ere erruz hartzen dira; gaur, ingelesetik guztien gainetik.

Euskal argotik baden edo ez den jakin nahi badugu, gizarte-aldaeren problematika orokorrera jo beharko dugu erantzun bila; alegia, euskararen presentzia sozialaren eskasiak argot eskasia ere berarekin ekarri du. Har dezagun, adibidez, hizkuntza gehienetan berez sortzen den gazteen argotaren kasua: euskararen erabilpen trinkoena egiten den tokietara jo behar genuke euskal argot horren zantzuak aurkitzeko. Gainerakoan, gaur, euskal gazteen artean, gaztelaniaz eta frantsesez hazi diren argotetara jotzen du komunzki hiztunak:

> *Tximeletak hamaika izen omen ditu euskaraz, baina ez dakigu a saco, chutarse, flipar, tener el mono , de puta madre, colocarse, kutre, forrarse, pringao, a toda hostia, chupao... erraten.*[22]

Ez da, haatik, hori beti hala izan: noizbait, XIX. Mendean, agi danean, euskal ijitoek edo buhameek azkarki garatu zuten haien argota. Jaso izan da hiztegi horren parte bat, eta argot horren lekuko ere badugu Jon Mirandek buhameen euskaraz idatzitako poema bat, *Kama Goli* du izenburutzat poema horrek, hau da, Maitasun Kanta.

Etorkizunari begira, hizkuntzaren osasun onaren marka litzateke euskal argoten sortzea eta hedatzea, gizarte-erabilera normalizatuaren seinale.

[22] URMENETA, Asisko: "Koloniala = kolokiala" *in* gazte-hizkera*, Jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak,* Urtxintxa Eskola, Donostia, 2005, 29. or.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

Gizarte-aldaerekin zerikusia duten hiru adibide mota aurkituko duzu jarraian: non kokatuko zenuke bakoitza edo zeren adibide da?

Erantzun ahal izateko, bakoitzaren inguruko informazioa bila ezazu. Ikasgelan alderatuko dira ondorioak eta gogoan hartzekoa finkatuko.

- Lehen adibidea (euskara):

  Hiretzat goli kherautzen dinat

  Erromeetako gazin mindroa

  Ene muirako mandro londoa

  Mol loloena ene khertsiman.

- Bigarren adibidea frantses hizkuntzari dagokio:

  VERLAN-a

- Adibide sorta hau gaztelania hizkuntzari dagokio:

  Emakumezkoen eta gizonezkoen HIZKUNTZA-ERABILERAk

EMAKUMEZKOEN JOERAK	GIZONEZKOEN JOERAK
Deikiak	Deikiak
elkarri zuzendutakoak *mari, cariño, vida, corazón* **gizonei zuzendutakoak** *cielín, chiquitín, oso, tigre, monstruo, cari*	**elkarri zuzendutakoak** *gachó, tronco, pichi, cheli, jefe, maestro, macho* **emakumeei zuzendutakoak** *chati, ratita, gatita, paloma, mona, cuchi-cuchi, loba, beibi, cherie* (egoera intimoetan) *titi, preciosa, muñeca, nena, bonita, guapa, graciosa* (bestelako egoeretan)

EMAKUMEZKOEN JOERAK	GIZONEZKOEN JOERAK
Aurrizkiak, atzizkiak, lexikoa	Aurrizkiak, atzizkiak, lexikoa
***super* + adjektiboa** *superactiva, superinteresante, supernatural, superenamorada, supercansada, superilusionada, supersimpática, superamarga, supersincera* ***hiper* + adjektiboa** *hipercontroladora, hiperfemenino, hipersensible, hiperexcitado* **atzizki txikigarriak** *solita, problemita, calorcillo, acomplejadilla, aceitito, vestidito, braguita* **hitz laburpenak** *gordi, chulé, guapi…* *suje, peli, pelu, cari, porfa*	***-re* eta *so* indartzaileak haserrea erakusteko eta piropoetan** *¡recristo!, ¡rehostia!, ¡rechulona!, ¡regitana!* *so ladrón, so guapa, so gachona* ***-men* edo *amen* atzizkia sexuari lotutako hiztegian** *ligamen, sobamen, braguetamen, cojonamen, culamen*
LOPEZ GARCIA, Angel; MORANT, Ricardo: *Gramática femenina,* Cátedra, Madrid, 1995, 99-104.	

KONTESTU-ALDAERAK 8

DAKIGUNETIK ABIA GAITEZEN

Hizkuntzaren eta, bereziki, euskararen aldagarritasunaren gaia parte handi batean argitu dugu dagoeneko. Izan ere, gaiez gai erakutsi dugu hizkuntza bera erabili arren, ez garela guztiak modu berean mintzatzen, ez dugula modu berean idazten, eta gure arteko diferentziek ez dutela jatorri bakarra. Horrela, beraz, hiztunek aldaera mota desberdinak erabiltzen dituztela erakutsi dugu.

Hasteko, batzuek aukera egin dezakete aldaera geografikoaren edo aldaera estandarraren artean; beste batzuek, berriz, aldaera estandarra dute beti noranahiko. Baina aldaera estandarra ere, ikusi dugunez, ez da hiztun guztientzat bat eta bakarra: tokian-tokian, bakoitzak eman diezaioke bere ukitua; areago, eman behar lioke.

Oinarrizko aukera horri hiztunaren gizarte-jatorriak eman dezakeen ñabardura mota gehitu diogu, izan lanbide-hizkerarena, adinaren araberakoa edo beste gizarte-faktoreren batena.

Azkenik, gainera, unean uneko eta ingurumari zehatz bakoitzaren arabera, hiztunak bere hizkera moldatu edo egokitu behar izaten du: horrela eratzen dira orain aurkeztuko ditugun kontestu-aldaera direlakoak.

IKAS DEZAGUN

Zeren arabera diren kontestu-aldaerak

Komunikazio-egoera bakoitzak baditu bere kontestu-osagaiak, eta horiei erreparatuz moldatu behar du hiztunak bere diskurtsoa: halatan, moldaketa horren ondorio dira kontestu-aldaerak edo erregistroak. Hiztun guztiok gara gai mota horretako aldaera bat baino gehiago erabiltzeko. Zenbat eta trebeagoa izan kontestuarekiko egokitze horretan, orduan eta gaitasun soziolinguistiko aberatsagoa erakutsiko dugu. Komunikazio-egoera desberdin bakoitzari dagozkion erregistroak darabiltzan hiztunak egoki hitz egiten du, egoki idazten, komunikazio-gaitasun aberatsa du.

Estilo hitza ere erabiltzen da *kontestu-aldaera* esateko.

Baina zein dira kontuan hartzen ditugun testuinguru-faktoreak, honelako edo halako erregistrora jotzeko? Lau bereizi ditu Isidor Marí katalanak, eta horien arabera sailkatu ditugu guk ere, hortik eratortzen diren erregistroak.

- Gaia
- Formaltasun-maila
- Komunikabide-kanala
- Komunikazioaren xedea edo helburua

Gaiaren arabera, erregistro OROKORRA edo ESPEZIALIZATUA erabiltzen dugu

Anitzetan, erabiltzen dugun gaiak berak baldintzatzen du gure erregistroa: gaia orokorra bada, aski ditugu hiztegi arrunta eta joskera sinplea. Gaia espezializatua bada, berriz, zehaztasun handiagoz jardun beharko dugu, eta arloko hiztegia, hiztegi teknikoa edo zientifikoa, eta joskera osatuagoa erabiliko dugu. Adibidez, erregistro orokorra nahikoa izango dugu ikusi dugun istripu bat lagun bati kontatzeko; baina unibertsitatean fisika nuklearraz mintzatu behar duenak erregistro espezializatura jo beharko du nahitaez.

Guztiarekin ere, gaiak ez dakar beti eta berez erregistroa; solaskideen jakitatea ere kontsideratu behar da, eta gai berbera tratatzeko, bi erregistro horien arteko egokiena aukera daiteke maizenik. Demagun psikiatra batek buru-osasuna gaitzat duen oinarrizko informazioa eman behar diela gaixoen familiei, eta, bestalde, informazio berbera jorratu behar duela bere lankideekin psikiatria-jardunaldi batzuetan. Erregistro espezializatua erabiliko du jardunaldietan, baina erregistro orokorragoa aukeratu beharko luke bere azalpenak gaixoen familiengana egoki helarazteko.

Hona, hemen, erregistro hauen adibidetzat, zenbait testu:

a. *Bi arrazoirengatik zikintzen dira urak: botatzen diren zakarrengatik eta airea kutsatua delako*

b. *Urek kutsadura bikoitza jasaten dute: gizarte hondakinek eragina batetik, bestetik, atmosferagatik.*

Bi testuetan mezu bera eman da. Lehena, edonork ulertzeko gisan moldatu da, hitzak *egunerokoak* baitira (orokorrak) eta arras joskera sinplea baliatu baita ideia azaltzeko. Bigarren testuak kutsu zientifikoagoa du, besteak beste, hiztegi zehatzagoaz hornitua baita: konparazio batera, *atmosfera*, *airea* baino zehatzagoa da, eta *zuzeneko isurkinek* adierazpideak, berriz, zakarren gaineko kontzeptualizatze-maila goragokoa inplikatzen du. Ondorioz, baiezta daiteke erregistroan datzala bi testu hauen arteko diferentzia: lehen testuan, erregistro orokorra erabili da, eta bigarrenekoan, berriz, natur zientzien arloko erregistro espezializatutzat har daitekeena, alegia, biologia edo ingurumena gaitzat duen eskola-liburu batean egokitzat jo litekeen estiloa.

Gauza bera azal genezake ondoko bi esaldiotan oinarrituz, bi erregistrotan informazio bera emana baita:

a. *Sasietako belarrek ez dute argi asko behar bizitzeko (erregistro orokorra)*

b. *Sastrakadia landare unbrofiliez osatzen da (natur-zientzien arloko erregistro espezializatua)*

Hurrengo adibidean ere mezu bakarra dugu bi esaldiotan, baina lehenean solaskide arruntari mintzo zaion mendi-ingeniariaren erregistroa agertzen da, erregistro orokorra; bigarren adibidean, aldiz, altzarigintza-ikasleei eskolak ematen ari den mendi-ingeniariaren erregistro espezializatua agertzen da.

a. *"Gaztainondoaren zurak barnean ur eduki handia du."*

b. *"Gaztainondoaren zura higroskopikotasun-maila altukoa da".*

Formaltasun-mailaren arabera, FORMALTASUN HANDIKO erregistroa, FORMALTASUN ARRUNTEKOA edo FORMALTASUN APALEKO erregistroak erabiltzen ditugu.

Komunikazio-egoera batean era askotakoa izan daiteke solaskidearekin eratzen den harreman mota. Batzuetan arras ezezaguna da entzulea edo irakurlea; beste batzuetan gizarte-hierarkian duen garrantziagatik errespetuz tratatzen da, ez dago harekiko konfiantzarik. Distantzia edo urruntasun hori hizketan ere islatzen da: formari arreta jartzen zaio, esateko modua eta hitzak neurtzen dira. Alderantziz da beste batzuetan: solaskidea ezaguna edo hurbila izanik, bien arteko tartea txikia da, eta, hortaz, hizkera laxatuagoa erabiltzen da, arreta gutxiago jartzen da formetan, hizkuntzari kasu gehiegi egin gabe mintzatzen gara.

Esplizituak izan ala ez, gizarte-arauek mugatu ohi dute ardura-neurria noiz eta nola kokatu: zein tokitan, egoeratan edo zer harremanetan eragozten den hurbiltasuna, alegia; noiz den hizkuntza jasoa eta zaindua nahitaezkoa, eta aitzitik, non eta noiz onartzen den solaskideen arteko aldea murriztea, hau da, lagun arteko fidantzian mintzatzea edo idaztea.

Horrenbestez, denok dakigu ez duela erregistro berak balio aspaldiko adiskidearekin telefonoz mintzatzeko ala eskolako irakasle bati azalpena emateko. Ez diogu erregistro berean gutuna idazten neba, anaia, ahizpa, arreba bati, ala lana eskatzeko, ikastetxe bateko zuzendariari. Eta telebistako aurkezleak ez du formaltasun-maila bereko solasa albistegietan, edo ondoren, taberna bazter batean lagunarekin hizketan ari dela.

Hiru maila bederen bereizi behar genituzke formaltasun-irizpide horren arabera sailka daitezkeen erregistroak izendatzean:

- Batetik, **formaltasun handiko erregistroa** edo **erregistro jasoa**, hainbat egoeratan **ohorezko erregistro** ere bihur daitekeena: ezaugarri markatuak ditu.
- Bigarrenik, formaltasun apalagoko erregistro bat, formala baina aski neutroa, gizarte-harreman arruntetan erabili ohi dena baita: ezaugarrietan berezitasun eskasekoa. **Erregistro formal arrunta** deituko diogu guk.
- Hirugarrenik, formaltasun apaleko erregistroa, lagunartekoa, familiarra, markatua eta besteengandik ongi bereizten dena. Ondoko erdaretan *coloquial* deitu zaion horri, **lagunarteko erregistroa** deituko diogu guk.

Hona hirurak alderatzen dituen adibide bat:[23]

a. *M.E.F.-k pozoidura etiliko larria du.*

b. *Mikelek sobera edan du eta mozkortu da.*

c. *Aizak, atxur galanta harrapatu dik Txapasek!*

[23] Katalanez jaso dugu adibidea, euskaratu eta egokitu:
a. Joan pateix una intoxikació etílica aguda. **b.** Joan té una borratxera molt forta. **c.** Joan ha agafat una merda com un piano. (MOLLÀ, Toni; PALANCA, Carles: Curs de sociolingüistica 1, Edicions Bromera, Alzira, 1987, 90.or.)

Antzeman duzue, ahaleginik gabe, festa ondoko egoera *deseroso* baten ondorio direla hiru testuok. Gertaera bakar baten berri ematen dute hirurek ere, baina formaltasun-maila diferenteak islatzen dituzten hiru erregistro nabarmen ditzakegu, esanahi berbera helarazteko.

a. Mikel E. F. izeneko mutila ospitaleratu ondoren, larrialdietako medikuari egokitu zaio txostena idaztea. Formaltasun handiko erregistroa erabili du horretarako: izen-abizenen ordez gaixoaren inizialak, eta medikuntza-arloko termino zientifikoak erabili ditu.

b. Zuhur ibili dira, berriz, Mikelen festa-lagunak, gurasoei berria ematean: formaltasunez aritu dira, baina haienean ez da medikuaren testuan adinako formaltasunik.

c. Haien artean, ordea, gertatutakoa aipatzean, aske, deplauki hitz egin dute lagunek: mozkortzeari *atxur galanta harrapatzea* iritzi diote, Mikelen ezizena erabili dute, eta hikako aditz-tratamendura pasa dira. Hiru ezaugarri horiek formaltasun-maila apaleko erregistroa erakusten dute, lagunarteko erregistroa, hain zuzen.

Agertu bezala, hainbat baliabide eskaintzen ditu hizkuntzak erregistroa formaltasunerantz bideratzeko, edo baita, alderantziz, lagunartekotasuna markatzeko ere. Orokorrenak identifikatuko ditugu:

- **Hiztegia:** erabiliaren erabiliaz eta gizartearen adostasunez finkatu da, adibidez, *izorratu* hitza lagunartekoa dela eta *hondatu*, *apurtu* edo *hautsi* baliokide jasoagoak direla; *ospa egitea* lagunartekoa dela eta *ihes egitea* formalagoa. Ikusi berri dugun bezala, ez dute formaltasun-kutsu bera *atxurrak*, *mozkorrak* eta *pozoindura etilikoak*. Hortaz, esan daiteke hiztegia baliabide dela erregistroaren formaltasun-mailak antolatzeko.

- **Aditz-erregistroak:** hiru aukera nagusi eskaintzen ditu euskal aditz-sistemak solaskide-arekiko formaltasun-tartea seinalatzeko. Batetik, *hikako* tratamendua, lagunarteko aditz-erregistrotzat darabilguna. Bestetik, *zukako* tratamendua edo errespetuzko erregistro formala, egunerokoa, arrunta. Hirugarrenik, *berorika* tratamendua, ohorezko tratamendutzat hartzen dena, arras formala.

  Halaz ere, aditz-erregistro horien baliagarritasuna kamutsa da gaur euskaraz, hain zuzen, euskararen gainbeherak galera eta desoreka ekarri baitu haien erabileran. Hikakoa toki askotan galdu da, leku batzuetan ez da behar den bezala erabiltzen, gramatika-legeak ez ezik, erregistro honen inguruko gizarte-arauak ere hausten baitira maiz. Orobat, badira oraino tratamendu mota horri gaitzesgarri deritzotenak. Zuketa arruntaren ondoan, berriz, horren aldaera diren beste bi tratamendu ere baditugu: *zuketa*, mendebaleko behe-nafarreraz eta zubereraz hedatuak, eta *xuketa*, Donibane Garazi eta Luzaide inguruan erabiliak. Bi aldaera hauek erregistro familiartzat jo daitezke: ez dira hiketa bezain ez-formalak, baina familiartekoen edo herri berekoen konplizitate giroa islatzen dute. Horiek ere galduz doaz. Berorika, berriz, galdutzat eman genezakeen, ez balitz telebistan eta literaturan erregistro hori pizteko egin diren ahaleginengatik: duela gutxi arte, askorentzat zeharo ezezaguna izan bada ere, jadanik inor ez da harritzen telesailetako herritarrak apaizari, alkateari, edo ipuin klasiko bateko laborari pobre bat Erregeri berorika zuzentzen zaizkiola ikusirik.

  Gaur egun, beraz, euskaldun askok aditz-erregistro bakarra darabilgu, zuketa arrunta, nonahi eta nornahirekin. Baina galtze-prozesu horren aurrean, konturatu behar genuke, bederen, aditz-erregistroak hizkuntza-baliabide onak direla formaltasun-mailen espektro osoa islatzeko, eta euskarak oraino, izan, badituela, baliabide horiek.

- **Esapide bereziak edo formulak:** esapide eginak dira, egoera jakinetan erabiltzekoak, eta gizartearen adostasunez finkatua da formula horien formaltasun-maila. Halatan, gutuna *Andere txit agurgarria*-z hasten duenak eta *...ulertuko duzulakoan, begirunez agurtzen zaitut* esaldiarekin bukatzen duenak ezagun du gutun jasoa idatzi nahi izan duela. Aitzitik, *Kaixo, Txipi!* dioenak hasieran eta *... bi musutxoz* amaitzen duenak lagunarteko erregistroko hasierako eta bukaerako agurrak erabili ditu.

- **Erregistro formalean aritzeko hobesten diren sintaxi- eta aditz-erabilerak:**

  · Zeharkako estiloa, estilo zuzenaren ordez: estilo zuzenarekin lotu ohi da lagunartekotasuna, eta, alderantziz, zeharkako estiloa erabiliko dugu solaskideen arteko tartea emendatu nahi dugularik.

  · Alegiazko aditz-formak, forma errealen ordez: *etorriko nintzateke* eta *eskatuko nizuke*, *etorriko naiz* eta *nahi dut* baino.

  · Subjuntiboaren erabilera, nominalizazioaren ordez: *lan egin zezan eskatu nion, lan egitea eskatu nion* baino.

  · Kausazko perpausak: *-enez*, *-ela eta*, *bait-* eta *-lako*. Lagunartekoan ez bezala, azalpen osatuak emateko joera dago erregistro formalean, eta gertakarien edo eskaeren arrazoiak ohi baino luzeago eta zabalago azaltzen dira.

- **Lagunarteko erregistroaren seinale dira:**

  · Adierazkortasuna (txikigarriak, onomatopeiak…): *etxe txikitxo bat*, *egon txintxo, kili-kolo dago.*

  · Idaztean ahozkoaren ezaugarriak erabiltzea, alegia, *hitz egiten den bezala idaztea* eta *ahoskatzen den bezala idaztea*, ahozkoaren transkribatze hutsa bihurtuz idatzia. Horrekin ortografiaren eta puntuazioaren legeak haustea. Adibidez: *nazkatua nao gauza hoiek eiteaz.*

Komunikabide-kanalaren arabera, AHOZKO erregistroa edo erregistro IDATZIA erabiltzen dugu.

Komunikabide-kanalari begira deskribatu ohi diren bi erregistroak ahozko erregistroa eta erregistro idatzia dira; izan ere, komunikatu ahal izateko, ahozko kanala eta kanal idatzia besterik ez du izan eskura gaurdaino hiztunak. Gaur egun, berriz, teknologia berriek (eskuko telefonoa, ordenagailua, eta abar) eta gizarte-arauetan gertatu diren aldaketek bestelako erabilerak bultzatu dituzte: gisa horretan, ahozko kanalak ez dakar automatikoki ahozko erregistroa erabiltzea, eta alderantzizkoa ere gertatzen da, hau da, kanal idatzian jardun daiteke ahoz egiten den modura.

Horiek horrela, hala ere, badira ahozko erregistroaren eta idatzizko erregistroaren oinarrizko ezaugarri kontsideratu behar direnak. Hona hemen:

1. KOMUNIKAZIO-EGOERAri begira, ahozko egoerek eta idatzizkoek dituzten desberdintasunak:[24]

AHOZKOAN	*IDATZIAN*
• Komunikazio arrunta aldiberekotasunari lotua da, solaskideek toki eta une berbera bizi baitute, elkar ikusiz eta buruz buru jarduten dutela.	• Osatzen den testuak beste nonbait eta beste noizbait batean izan dezake bere jatorria. Irakurleak ez du testuingurua igorlearekin partekatzen.
• Aurrekoaren ondorioz, askotan ez da hitzezko mezua zehaztasunez adierazten, ez baita beti beharrezkoa: inguruko laguntzek eta solaskidearen feedbackak egokitzen eta betetzen dute ahozko mezuaren osotasun falta hori.	• Aurrekoaren ondorioz, informazio osatua aurkitu ohi dugu erregistro honetan, baita trinkoagoa ere (gramatika-baliabide guztiak erabiliz). Izan ere, esanahi guztia hizkuntzaren bitartez eraiki behar da.
• Hizkuntzaz gain, gorputz mugimendu eta ahots modulazioek, hau da, kodigo ez berbazkoek, laguntzen dute komunikazioa ahoz eraikitzen.	• Hitzez gain, ulermenerako lagungarri izango dira paperean jarritako titulu, azpititulu, paragrafo eta idazketak dituen arau guztien erabilera, puntuazio eta guzti.

2. TESTUA edo DISKURTSOA eraikitzeko IRIZPIDEAK banan-banan hartuz gero, berriz, bi erregistroen arteko diferentzia hauek nabarmen daitezke:[25]

AHOZKOAN	*IDATZIAN*
Egokitasuna	
• Idatzian baino gehiago, hiztunaren jatorria nabarmentzeko joera (geografikoa, soziala): dialektoen erabilera eta gizarte aldaerena.	• Hiztunaren jatorriaren markak (dialektoa, gizarte-aldaerak) ezabatzeko joera. Estandarraren erabilpen sarriagoa.
• Erregistro-mailak apaltzeko joera: formaltasun gutxiago eta erregistro subjektiboa.	• Ahozkoan baino formaltasun-maila altuagoa eta erregistro objektiborako joera.

[24] CASSANY, Daniel: *Describir el escribir. Cómo se aprende a escribir,* Paidós comunicación, Barcelona, 1987, 34-37.

[25] CASSANY, Daniel: *Describir el escribir. Cómo se aprende a escribir,* Paidós comunicación, Barcelona, 1987, 37-39
GARCIA-DEBANC, Claudine; PLANE, Sylvie: *Comment enseigner l'oral à l'enseignement primaire?*, Hatier, Paris, 2004.

Hori horrela da; baina, kontuz! Tokia zein, solaskideak nor, betebeharra nolakoa, eta kontestuko osagaiak kontuan hartuz jokatu behar da beti, zein erregistrotan mintzatu erabakitzean, adibidez: eskolan gai bat azaldu behar duen irakasleak ahozko erregistroan jardungo du, erregistro formalean eta ikasleen ulermen-mailaren arabera, erregistro espezializatua eta orokorra txandakatuko ditu; edo politikari batek bere herrian publikoki euskalkian egiteari egoki baderitzo ere, erregistro formala erabili beharko du, eta ez lagunartekoa. Eta abar. Tokian tokikoa, beraz, egoki beti, ahoz zein idatziz.	
Koherentzia	
• Informazioa ez da beti idatzian bezain zehazki hautatua, ez eta hain ordenatua, batez ere bat-batean ari denean: haritik urrundu edo gaia aldatu daiteke. Solaskideekiko elkarreraginagatik, haiei zuzendutako tartekiak edo iruzkinak agertzen dira.	• Informazioa zehatz hautatzen da eta ordenatzen.
• Informazioa antolatzeko: diskurtsoaren inguruko esplizitatze-formulak gehitzen dira, hain zuzen, esandakoa gogoraraziz, esan beharrekoa iragarriz eta aurreratuz, arreta edo ulermena mantentzeko balio duten iruzkinak eginez; ideiak errepikatzen dira informazio garrantzitsuena azpimarratzeko, hanpatzeko, edo gogorarazteko, eta ideien hierarkia finkatzeko.	• Ideiei dagokionez, idatzia ez da ahozkoa bezain erredundantea.
• Zerbaitetan fokalizatzeko, ahots-bolumena indartzen da eta lastertasuna moldatzen. Tonu-aldaketek ere laguntzen dute informazioa antolatzen.	
Kohesioa	
Baliabide gramatikalak erabiltzen dira, bai erreferentea mantentzeko, eta baita testua antolatu eta kateatzeko ere, baina, idatzian baino gutxiago:	Baliabide gramatikalak erabiltzen dira nagusiki bi mekanismo nagusi hauetarako:
• Erreferentea errepikapenaren bidez mantentzen da askotan, eta nahita, enfa-	• Erreferentea mantentzeko: horretarako dira anaforak, kataforak, ordezkapen

siaz (xede didaktikoa). • Idatzian baino lokailu gutxiago. Baliabide gramatikalak bezain garrantzitsuak dira gorputzaren erabilera, ahotsarena, mimika edo keinuak. Honela agertzen dira: · Etenaldiak edo isiluneak, fatemak (euh, mmm) edo etenaldi beteak, silaba luzapenak (hitz egiteko kanala irekirik atxikitzeko eta komunikazioak jarraitzen duela erakusteko). · Diskurtso-euskarriak edo makuluak (beno, bon, zera…), behin eta berriz diskurtsoa markatzen edo zatitzen dutenak, batez ere luze jarduten denean, ekoizpena laguntzeko. · Hitz-zatiak, birformulatze lokalak edo gaia berrartzeko errepikapenak, lapsus-arazoak edo kodetze-arazoak konpontzen dituztenak. Idatziaren aurreko zirriborroa bezalakoa da ahozko bat-batekoan entzuten dena: lehen turrusta, lehen jarioa eta, hortaz, solaskideen aurrean huts egin orduko konpontzen dena. Hitz-zatiak estropezuak edo pauso txarrak bezalakoak dira, eta hizlari handiengan ere agertzen dira. · Tonu-, lastertasun-, eta ahots-intentsitate aldaketak. · Kode ez-berbalak ere aipatu behar dira: gorputz- eta begi-mugimenduak, keinuak.	lexikalak, elipsiak eta abar. • Testu-antolatzaileak eta lokailuak.
Zuzentasuna • Fonetika: erabilpen bat-batekoen eta arinen ondorioz, hitzak ez dira beti osorik ahoskatzen (kontrakzioak), hau da, erabilera arruntaren arabera laburtzen dira edo moldatzen. • Sintaxi sinplea erabiltzeko joera: koordinazioa da nagusi, eta subordinazio gutxi. Anakolutuak eta bukatu gabeko esaldiak sarri. Elipsiak ere bai. Hitz-ordena idatzian	• Grafia: ortografiaren arauak errespetatzen dira. • Sintaxi konplexua eta garatua askotan. Subordinazioa ahozkoan baino askoz gehiagotan. Hitz-ordena aski finkoa, grama-

baino libreagoa. Hiztunak, solaskideari egokitu nahi zaiolako, gramatika-lege zurrunen ordez sintaxiaren erabilera eraginkorra bilatzen du, nola sortu efektua bere entzulearengan, nola ulertarazi. Zentzu horretan esaten da egunerokotasunaren erretorika bat sortzen dela: mezua estiratzen da, trinkotasuna hausten da, idatzizko sintaxi normatiboaren ordez, sintaxi teilakatua (inbrikatua) garatzen da (pibot modura hartzen da elementu bat eta horren gainean kateatzen dira formula desberdinak).	tikaren araberakoa.
• Lexikoa: malgutasunez erabiltzen da. Maileguzko hitzak erraz onartzen dira, hitz onomatopeikoak, *gauza*, *zera* bezalako makuluak eta bestelako tik linguistikoak agertzen dira.	• Lexikoan, ahozkoan baino garbizaletasun eta zehaztasun gehiagoz jokatzen da. Sinonimo, hiponimo eta hiperonimoen erabilpena.

Kontuz, hala ere: ezaugarriei dagokienez, ahozko erregistroaren eta erregistro idatziaren arteko bereizketa oinarrizkoa da gaur oraino, baina mota askotako ñabardurak erantsi behar zaizkio, batetik, ahozko kanala erabiltzeak ez baitakar berez ahozko erregistroan jardutea, ez eta kanal idatziak berez erregistro idatzia, baina bestetik, gainera, gizartean sortu diren teknologia berriek arras bestelakatu eta korapilatu baitute komunikabideen panorama. Hortaz:

1. Ahozko kanalak ez dakar berez ahozko erregistroan jardutea eta alderantziz. Adibide pare bat aski da horretaz jabetzeko: biltzar zientifiko batean mikrofono aurrean txosten bat aurkezten ari den zientzialariak, ahoz jardun arren, ahozko erregistrotik baino hurbilago dateke erregistro idatzitik. Eta halaxe gertatuko da ahoz azaltzeko baina idatziz prestatu diren azalpen-egoeretan ere. Alderantziz, kanal idatzia erabili arren, adiskide bati postal bat idazteko, ahozko erregistrotik hurbiltzeko joera dugu gehienok, alegia, mintzatuko gintzaizkiokeen bezala idaztekoa. Ikus ondoko adibidea:

Aupa motel !!!

Nazkatua negok hemen pisu billa baña oraindino aste bat egon biharko diat. Jakin duk Manu Chaorena, ezta? Ze moduz oporrak? Oh la-la, eta konpaiñia? Ondo? Beno, holako kontuk belarrira kontauko dizkidak bueltan. Ta lanean zer? Hartzak pazientzi, laster izango gaituk. Bi pote kale nagusin eta konponduko diagu mundua!!! Besarkada bat.

Beltza

2. Teknologia berriek komunikabideen panorama bestelakatu dute: mezu elektronikoetan, Interneteko webgune bat bisitatzean edo software programa bateko menu baten interfazarekin aritzean, irakurtzen dugu eta idatziz erantzuten dugu; haatik, ez dugu euskarri idatzi hutsa erabiltzen, baizik eta izaera digitala duen komunikazio bitarteko berri bat. Dituen ezaugarriak kontuan harturik (lastertasuna, erabilgarritasuna, eraginkortasuna, argitasuna eta zehaztasuna), garatzen ari gara, ez kode idatzi, ez ahozko huts den erregistro mota bat, baizik eta erregistro hibrido bat, dudarik gabe. Euskaraz osatze-bidean dena oraino. Ikus ondoko adibidea:[26]

- *kxo zmuz * j**
- *hhh ^..^# @*
- *2ar 5ttn hmn bstl*
- *oa 3 - 2) (*

Joan Mayans i Planells izeneko antropologoak *chat* izeneko komunikazio-klase berria aztertu du luze eta zabal *Genero chat* liburuan. Haren iritziz, komunikatze-molde horrek hizkuntza eta hizketaren arteko dikotomia klasikoa hautsi du, eta ezin da, bestalde, ahozko erregistroaren eta idatzizkoaren nahasketa gisa hartu, baizik eta molde berri bereizitzat. Horren ezaugarrien artean, hona interesatzen zaigun bat: gramatika-legeen urratzaile da. Alegia, komunikazio-esparru horretan sartuz gero, hiztunak ez du gramatika zaintzen. Akatsak formalki, kontzienteki edo nahitara egiten dira; erabiltzaileak ahalik eta lasterrenik idatzi nahi du, edo hitz egiten duen bezala. Eta zuzentasun falta hori ludikotasunari lotu behar zaio, ez gramatikaren ezagupen ezari.

Komunikazioaren helburuaren arabera, erregistro OBJEKTIBOA edo erregistro SUBJEKTIBOA erabiltzen dugu.

Hizkuntza erabiltzerakoan, errealitateaz modu objektiboan hitz egin dezakegu, mezua besterik gabe azalduz edo esplikatuz. Beste batzuetan, ordea, erregistro subjektibora jotzen dugu: entzulea edo irakurlea inplikatzean datza erregistro horren ezaugarria.

Diferentzia markatzeko, izenorde gramatikalen edo aditz-pertsonen aukeraketa da dagoen baliabiderik arruntena: singularreko 3. pertsona edo aditz-forma ez pertsonala erabiliz gero, ez da hizkuntzaren bitartez erakusten entzulea edo irakurlea inplikatzeko asmorik, baina egoera berean, pluraleko lehen pertsona edo 2. pertsona erabiltzen bada, erregistroak kutsu inplikatzailea hartzen du. Ikus eta konpara:

[26] Transkripzioa:

- Kaixo!...Zer moduz, Potroximel?
- Hi, haiz, hi, txerri zikin alena!
- Bihar bostetan hemen… Bestela…
- Hoa popatik hatzera. Bi muxu.

OLARIAGA komikilariaren *Zakilixut* batetik hartua (Berria , 2003-09-12)

a. *Komeni da gelatik irtetean, argiak itzaltzea*

b. *Gelatik irteten zarenean, itzal itzazu argiak!*

Jakintza- eta zientziaren eremu idatzietan, erregistro objektiboa da nagusi. Esparru horietan egindako erregistro-erabilera desegokiak fidagarritasuna kenduko lioke edukiari. Irudika dezagun, bestela, biologiako liburu batean honelako esaldiekin topo egiten dugula: *Entzun, irakurle, jakin behar duzu landareetako hosto inparipinatuek foliolo terminal bat daukatela errakiaren muturrean...* Edo eta *Gogoan izan ezazu hosto paripinatuak bi foliolotan amaitzen direla*.

Beste esparru batzuetan aukera irekiagoa da, hizlariaren edo idazlearen esku dago erregistro objektiboa ala subjektiboa erabiltzea. Bigarrena erabiliz, solaskidearengan eragiteko xedea garbi gelditzen denez, publizitatean edo bestelako kanpainetan erabili ohi da, hain zuzen, jendea ahal bezainbat erakartzea baita helburua, eta hizkuntzaren bitartez ere egiten delako hori. Adibidez:

a. *Hondartza denona da eta garbi mantendu behar da*

b. *Gogoan izan ezazu hondartza denona dela, manten dezagun garbi*

Bi esaldiotan mezu bera agertu zaigu, lehenik erregistro objektiboan emana (a), bigarrenean erregistro subjektiboan (b). Bigarren esaldia bereziki eraginkorra da solaskidearentzat, eta mota horretakoak ohi dira, beraz, gure inplikazioa eskatzen duten mezuen erregistroa.

Ondorio gisa

Ideiak laburbilduz, zehaztu behar dugu **hiztunak ez duela aldian kontestu-aldaera bakarra erabiltzen**, baizik eta **kontestu-aldaera mota guztiak konbinatzen dituela** denbora berean. Badira konbinaketa ohikoak (adibidez, ahozko erregistroa, erregistro orokorra, lagunartekoa, eta subjektiboa, batera erabiltzeko egoerak) eta badira konbinaketa bakanagoak (adibidez, ahozko erregistroan jardutea, formaltasunez, erregistro espezializatuan eta subjektiboan batera). Alegia, egoera bakoitzean gaia, solaskidea, komunikazio mota eta hiztunaren xedea kontuan hartuz gero, era batera edo bestera uztartuko dira testuan lau kontestu-aldaera motak. Horrela lortzen da **egokitasuna** betetzea.

GAI OSAGARRIAK: IRAKURKETAK, ARIKETAK, LAN PROPOSAMENAK

1. Gogoratu teorian azaldutako premisa hau:

> *Ahozko kanala erabiltzeak ez dakar berez ahozko erregistroan jardutea, ez eta kanal idatziak berez erregistro idatzia ...*

Hori gogoan hartuta, galderak erantzuten saiatuko zara, ahozko erregistroaren eta erregistro idatziaren erabilerak hobeki ulertzeko.

a. Zertan dira diferenteak lagunartean erabiltzen ditugun ahozko testuak (elkarrizketak) eta lagunei zuzentzen dizkiegun testu idatziak (postalak, gutunak, oharrak)?

b. Hizkuntza hobea non: idazle baten mintzaldi batean edo haren eleberrietan?

c. Irakasle bat klase ematen ari zaizu, eta noizean behin *zera* hitza tartekatzen du bere diskurtsoan: zer diozu horretaz?

d. Eskolara etorritako hizlari bat oholtza gainera igo da; agurtu ondoren, aurrez prestatutako mintzaldia irakurtzen hasi da, tarteka burua jasoz. Zer erregistro mota erabiltzen ari da, zure ustez? Zer deritzozu?

e. Ahozkoan hizkuntza ederki baliatzen duen haur txiki batek ulermen-arazoak izan ditu eskolan, testu-liburuetatik ikasten hasi orduko. Zein izan liteke horren arrazoia?

f. Zure ikaskide batek ederki ulertu omen du klasean azaldutako gaia, baina horren froga idatzia egiteko orduan, galderetako euskara ez omen zuenez ulertzen, kexatu zaio irakasleari. Aurreko galderako (*e*-ko) kasu bera al da?

g. Hona hemen eskolako iragarki-taulan agertu den iragarkia:

> *Nazkatua nao pixu billa ibiltzez. Jendia biher bazue eskertuko nizueke deitzia. 690214567 (haizea).*

Zer iruditzen zaizu: zuzena da?, egokia?

h. Ikaskideen aurrean azalpen bat garatzen ari zen ikasle baten kasua duzu hau. Hegazkin-istripu famatu baten kontaketa egiten ari zen. Honela esan zuen:

> *...Ikararen menpeko bihurturik, pilotu haiek ez ziren gehiago esperientziadun gizon ausartak, beldurraren harrapakinak baino.*

Zer iruditzen zaizu: diskurtso zuzena da?, egokia?

2. Ematen zaizkizun hitzetan egizu aukera eta erabaki zein diren erregistro formalean erabiltzekoak, zein lagunartekorako gorde behar genituzkeenak. Bi zutabetan koka itzazu, eta bakoitzaren parean jarri esanahi bera duen beste erregistroko hitz bat.

Izorratu, atsoa, larrua jo, alde egin, hil (trantsitiboa), emagaldu, hil (trantsitiboa), uzkia, putzontzia, gizena, (zerbait) pikutara joan, pertsona, pitzatuta, mozoloa, gernua

3. Hainbat egoera aurkeztuko zaizkizu jarraian. Esan, egokitasunez jardun nahi izanez gero, zein erregistro erabil daitezkeen (lau erregistro mota aipatuko dituzu bakoitzean, nabarmenenetatik hasita):

- Zure lagunekin hizketan ari zarela, klasean gertatutako anekdota bat kontatu behar duzu..
- Irakasle Eskolako praktikak egiten ari zarela, tutorea gaixorik jarri da eta 6. mailan *Inguruneari* buruzko eskola ematea egokitu zaizu**;** fotosintesia zer den ahoz esplikatu behar duzu.
- *Euskara eta Bere Didaktika* ikasgaiko azterketa idatzia egin behar duzu.
- Dirurik gabe zaude eta zure auto zaharra saltzea erabaki duzu: *Consum*-eko kortxoetan jarri duzu iragarki labur bat.
- Etxera iristean, zuk garbi utzitakoa erabat zikin ikusi duzu, harrikoa ere egin gabe dago: kanpora atera zara berehala, baina ohar bat utzi diezu etxekoei.

4. Adibide hau Iñigo Aranbarrik idatzitako iritzi-artikulu batetik *lapurtua* da. Kontuz: ez da berak idatzitako testu bat, ezpada adibide gisa erabili eta iruzkindu duen zerbait. *Berria*n argitaratu zen albistea dela zehaztu digu.

Zer esango zenuke albiste honen erregistroei dagokienez?

Borroka dantzalekuaren barruan hasi zen, ixteko orduan, baina kanpoan jarraitu zuen. Edalontziak eta bestelako objektuak jaurti zizkioten elkarri. Guztira, hamabost lagunetik gora ari ziren borrokan. Zinpeko guardiak gogor ari ziren bezeroetako baten kontra, eta une batean, auto batek bezero hori jo zuen, eta bertan hil zen. Autoaren gidaria hildako gaztearen laguna zen, eta, itxura baten, berari laguntzeko hartu zuen autoa, eta kontrako norabidean gidatu. Baina hanka sartu, eta laguna eraman zuen aurretik.

ARANBARRI, Iñigo: Estiloaz (Hizlandia), *in* Berria egunkaria, 2005-10-30

Gaiaren laburbiltze-eskema

Osa ezazu testua:

Euskal hiztunaren GAITASUN..... = euskararen aldaerak ezagutzea eta behar bezala erabiltzea.

Bete beharreko irizpidea: .....

EUSKARAREN ALDAERAK

ALDAERA GEOGRAFIKOAK:
Euskalkiak

- .....
- .....
- .....
- .....
- .....

Tokiko batuak

ALDAERA.....
Euskara batua

GIZARTE ALDAERAK

.....

KONTESTU ALDAERAK,
....., ESTILOAK

- ..... / .....
- ..... / .....
- ..... / .....
- ..... / .....

BIBLIOGRAFIA

Liburuak

- ALBERDI, Xabier: *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa,* EHU, Bilbo, 1999.
- ALBERDI, Xabier; SARASOLA, Ibon: *Euskal Estilo libururantz,* EHUAZ, Leioa, 2002.
- CASSANY, Daniel: *Describir el escribir*, Paidós, Barcelona, 1991.
- EIZAGIRRE, Pako: *Kontuan Izan!!* , EJAZN, Gasteiz, 2000.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA: *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, EJAZN, Gasteiz, 2004.
- IVAP/HAEE : *Zalantza-Dantza*, IVAP/HAEE, Gasteiz, 1999.
- MAIA, Julian: "Eskolako hizkera ereduaz, euskara baturaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan" *in* Tantak *26,* Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2001.
- MARÍ, Isidor: *Registres i varietats de la llengua*, *in* COM*, 3,* Barcelona, 1983.
- MARÍ, Isidor: *Estat d'elaboració dels registres* (hitzaldia), II Congrés Internacional de la Llengua Catalana, Palma de Mallorca, 1986.
- MOLLA,Toni; PALANCA, Carles: *Curs de Sociolingüística I,* Edicions Bromera, Alzira, 1987.
- **SARASOLA, Ibon: *Euskara batuaren ajeak,* Alberdania, Irun, 1997.**
- **URUBURU,Laura: "Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan" *in* Bizkaieraren lekua gaur, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1992.**
- VILLASANTE, Luis: *Euskararen auziaz*. "Luis Eleizalde" saila euskara idatziaren batasunaz , 9. liburukia, Estella, 1988.
- ZENBAITEN ARTEAN: *JAKIN* , 76. zk., Jakin, Lizarra, 1993.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Bizkaieraren lekua gaur*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1992.
- ZENBAITEN ARTEAN: *IVAPeko estilo-liburua,* IVAP/HAEE, Gasteiz, 2005.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Estilo liburua,* Euskal Editorea, S.L, Andoain., 2006.
- ZUAZO, Koldo: "Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez" *in* ASJU, XXI-3, 927-950.
- ZUAZO, Koldo: *Euskararen sendabelarrak,* Alberdania, Irun, 2000.

Webgune interesgarriak

- http://www.ehu.es/ehulku
- http://www.euskadi.net/euskara
- http://www.euskaltzaindia.net
- http://www.euskaltzaindia.net/arauak
- http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatuaa
- http://www.ivap.com/dudamuda/dudamuda.htm
- http://www.euskara.org
- http://www.ikasbil.net
- http://www.erabili.com
- http://www.idazleak.org/
- http://www.susa-literatura.com/
- http://www.armiarma.com/
- http://www.argia.com/mantxut/lokuzioak.htm